ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-05-06
ASTELEHENA
408. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET

TOKIKOM



GOIENA

## "Eskerrak bigarren sailkatzen dena ere igo egingo dela seguruenik"

**J. Garai** | Antzuolako entrenatzailea | 24

Aspanogiko lagunak pozik Bergarako martxarekin | 22



Michele Angiolilloren gaineko Aitor Arantzabalen liburua | 17



Asteburuan zabaldutako Pol-Polen erakusketan, bitxikeria ugari | 30

# Etena, logikaren sokan

Maila handiko Mostra egin dute Elgetan; magia eta poesia nahasian izan ziren zapatuko galan | 31



**Luis Boyanoren ikuskizuneko une bat; sei magoren saioak izan ziren zapatu gauean.**

IMANOL SORIANO

# Untzilla eta Zabola arteko bideagatik kexu jarraitzen dute aramaioarrek

Aramaioko Udalak Adif erakundeari eskatu dio aintzat hartzeko herritarren eskaerak bi auzoen arteko errepidea konpontzeko orduan. Lurjausiekin izan dituzte, adibidez, arazoak. Oinarrizko proiektuaren helegiteetarako epea luzatzeko ere eskatu dute aramaioarrek. | 20

## Ikasle izandakoak, berriro batera

Arantzazu Egunean 150 lagun batu ziren | 12



Arantzazun ikasle ibilitakoak. | JULEN IRIONDO

## Bizitza errazteko teknologia ere gutxituen eskura, askotariko erakundeen bitartez | 2

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

☎ 943 71 48 45
Hemen GARBIKETAK
www.hemen-garbiketak.com
Zure konfiantzako garbiketa enpresa
Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:
- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.
Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

# Teknologia ere gutxituen alde, erakundeeen eskutik

- Laguntza teknikoak ematen ditu Foru Aldundiak
- Behar dituenak Udalean eskatu behar ditu


Trautiko zenbait kide, bazkidetza kanpaina aurkezten; ezkerretik bigarrena, Rafael

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Gutxitasun batekin bizi izatea, beste gauza batzuen artean, garestia da. Eguneroko bizitza ahalik eta ondoen egin ahal izateko, gutxitasunen bat edo mendekotasunen bat dutenek laguntasuna behar izaten dute; kasu batzuetan, beste norbaiten laguntasuna, eta, beste batzuetan, laguntza teknikoak bat.

Laguntza tekniko -laguntzeko teknologiak da beste izen batesaten zaie gauza jakin batzuk egiteko modua emateko propio eginda dauden produktu batzuei eta, produktu horiek gabe, zeregin jakin hori ezinezkoa edo oso zaila izango litzatekeen jendeari daude zuzenduta. Mota askotako produktuak dira: dispositiboak, ekipamendu oso bat, tresnak, teknologia eta programa informatikoak. Gutxitasunak prebenitzeko, konpentsatzeko edo haien eragina kentzeko edo leuntzeko balio dute, eta gutxitasuna duenari bizitza erraztu eta gizartean parte hartzen laguntzen diote. Askok uste dezaketenaren kontra, gainera, laguntza tekniko horiek ez dira bakarrik jaiotzez edo berez gutxituak direnendako; gaixotasun larri edo kroniko baten ondorioz, adinarengatik, edo bestelako arrazoi baterengatik bizitzako une baten edozeinek izan dezake horien beharra.

### Zama ekonomikoa

Baina laguntza teknikoak garestiak dira. Hori ondo dakite Oñatiko Trauti elkarteko kideek, izan ere, askotariko gutxitasunak dituztenek eta horien senideek osatzen dute berau. Hori horrela izanda, Trautiko kide gehienen eguneroko bizitzaren zati bat dira laguntza tekniko horiek. Trautiko sortzaile eta kide Rafael Kortabarriaren esanetan, gurpildun jesarleku on bat 12.000 euro baino gehiago kostatu daiteke. Hori baino gauza merkeagorik badago, jakina; baina norberak laguntza tekniko bat baino gehiago behar izaten duela kontuan hartuta, azkenean faktura handia izan daiteke.

Bada, zama ekonomiko hori ahal den neurrian arintzeko modua dago, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak doan ematen ditu laguntza teknikoak horien premia dutenei, premia hori egiaztatu eta gero. Laguntza ailegatu arte, edo urgentziazko kasuetarako, Oñatiko Udalak uzten dizkie interesatuei berak aurten erosi dituen laguntza teknikoak. Hala, aurten, hiru ohe artikulatu (horietako bat, jasotzeko gurdiarekin); zaurien kontrako koltxoiak; gaixoak mugitzeko garabiak; bira ematen duten jesarlekuak, bainuontzirako; eskailerak igotzen laguntzen duten tresnak eta beste laguntza batzuk erosi ditu Udalak, eta 11.000 euro gastatu ditu horretan.

Udalak emandako prezioak hauek dira: ohea eta koltxoia, 700 eta 800 euro artean; luzaroan etzanda egoteagatik zauririk ez egiteko koltxoia, 120 euro; garabia, 1.200 eta 1.900 euroren artean; eskailerak igotzeko beldarra (oruga), 5.000 euro; bainuontzirako jesarlekua, bira ematen duena, 150 euro; gurpildun jesarleku elektrikoa, 4.000 eta 6.000 euro artean; eta jesarleku bereziak, 1.200 eta 4.000 euro artean. Horiek dira Foru Aldundiak ematen dituen tresnen prezioak. Dena dela, beharrak adinako laguntza tekniko motak daude, eta guztiak ez dira Foru Aldundiaren katalogoan sartzen; hala, Rafael Kortabarriak dioskunez, ordenagailuan irakurtzeko programa berezi bat, ONCEko afiliatuendako, 895 euro kostatzen da. "Oso garestia da; baina horiek ez dira kontsideratzen laguntza tekniko", diosku Kortabarriak.

### Tresna gehienak, utzita

Laguntza teknikoak eskatu diezazkioke Foru Aldundiari beharra duenak. Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek prozedura azaltzen digute: "Itxaron-zerrenda dago eta lau eta sei hilabete artean itxoin behar izaten da, presazko prozedura ematen ez bazaio, hau da, bat-batean norbaiten egoera aldatu bada –tronboa izan badu, adibidez". Itxaronaldi horrek dirauen bitartean, interesatuak Oñatiko Udalari eska diezaioke laguntza tekniko bat uzteko. Foru Aldundiak emandakoa jasotzen duenean, maileguan hartutako laguntza teknikoa Udalari bueltatzera konprometitzen da hasieran erabiltzailea. Bestalde, laguntza teknikoa presazkoa baina denbora txikirako baldin bada ere Udalak uzten dio berau interesatuari. Edozein kasutan ere, Udalak Foru Aldundiari jakinarazten dio bere laguntza teknikoren bat uzten duen bakoitzean.

Eta, datuen arabera, jende askok behar ditu laguntza tekniko horiek. Hala, Oñatiko Udal Gizarte Zerbitzuek dauzkaten laguntza ia guztiak emanda ditu momentu honetan. Zehazki, hauek ditu emanda: bi ohe eta bi koltxoi (bakoitza berearekin); denbora luzean etzanda egon behar direnendako, zauririk ez egiteko bi koltxoi; garabia; eta ospitaleko lau ohe, horietako bi jasotzeko karroarekin eta urrutiko kontrolarekin. Oraintxe jaso du bueltan bira ematen duen jesarlekua, dutxarako. Horrez gain, utzita dauzka ere bi baranda; horiek ez ditu Foru Aldundiak ematen, baina bai Udalak.

Bestetik, ez Udalak ez Foru Aldundiak ez dute normalean diru-laguntzarik ematen, salbuespen batzuekin: Foru Aldundiak laguntza ekonomikoa onartzen du bakar-bakarrik eskatutako laguntza teknikoa ez badu biltegian eta oso pertsonala denean: adibidez, entzumen-protesia.

Erakundeen babesak aurrera jarraitzen du, krisian gauden arren: hala, Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek dioskutenez, laguntza tekniko batzuk eskaintzatik kendu zituen Foru Aldundiak iaz, baina ez dira beharbada laguntza-mota garrantzitsuenak: ohetik jaikitzeko triangelua eta baranda kendu zituen.

**KONTAKTUA**

**656 71 10 00**

DENONDAKO HERRIA EGIN NAHI DU TRAUTIK

Mugitzeko arazoak edo gutxitasunak dituztenei dei egiten diete Trautik eurekin bat egin dezaten. Urteko kuota 5 euro da. Orain, 20 bat lagun dira. Posta elektroniko helbidea hau da: *trauti@terra.com.*

TRAUTI hesirik gabe!


Garabia ere eska diezaioke norberak Oñatiko Udalari. | GOIENA


Alderantzizkako *U*–ak ipini ditu Udalak. | OIHANA ELORTZA

## Berezaon, oinezko guztiak babestuta

Oñatiko Udalarekin hilean behin batzartzen dira Trautiko kideak. Herrian topatu zituzten zuzendu beharreko 27 muga edo barrera arkitektoniko, eta horiek konpontzen ahalegintzeko batzartzen dira. Orain azkeneko, Berezaon, Natra inguruan dagoen oinezkoendako ibilbidean buruz behera jarritako *U* antzekoak ipini ditu Udalak. Trautik azpimarratzen duenez, "babes hori ez da bakarrik gutxituondako, oinez doazen guztiendako baizik", eta eskerrak ematen dizkiote Udalari obra hori egitearren.



Kortabarria. | SANTI MENDIOLA

**DATUAK**

**11**

LAGUNTZA TEKNIKO

Oñatiko Udalak 11 tresna dauzka orain herritarrei utzita, Foru Aldundiarena jasotzen duten arte.

**10**

OHE

Ospitaleak egokitutako 10 ohe eman dizkio Oñatiko Udalari.

**ESANAK**

**"Norberak erosiz gero, oso garestiak dira laguntza teknikoak"**

RAFAEL KORTABARRIA
TRAUTI ELKARTEA

**"Krisi egoeran ere, laguntza gehienei eutsi egin die Foru Aldundiak"**

OÑATIKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

**ICOren maileguak zeuden**

Merkatuan denetariko laguntza teknikoak dauden arren, normalean jendeak laguntasun handiena behar izaten du ohetik jaikitzeko, bere burua garbitzeko, ibiltzeko... Bainugelako gauzak egiteko, batzuetan barrera arkitektonikoak kentzea izaten da bide bakarra. Bada, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradunek diotenez, "bainugelako barrera arkitektonikoak kentzeko ondo aztertzen dute, batetik, gutxituaren egoera eta, bestetik, bainugelan egin daitekeena; bainugela guztietan ezin daiteke gauza larregi egin". Trautiko kideek baieztatzen dute hori: etxebizitza osoan egin behar badira egokitzapenak, horretarako "dirulaguntza gutxi" dagoela dioskute.

Beste finantzazio eta laguntasun iturri batzuk itxi egin direla kontatzen digute Trautiko kideek. Rafael Kortabarriak dioen moduan, "lehen bazegoen aukera ICOren diru-mailegu batzuk lortzeko; horiekin, laguntza teknikoak norberak erosi, faktura aurkeztu eta bankuak ordaintzen zuen, eta mailegu hori bueltatzeko hiru urte zeuden, hilero kuota txikiarekin. Baina hori ere bukatu zen".

**Hobekuntzak izan dira**

Etxe barruko edo kanpoko oztopoak desagertu daitezen lanean jarraitzen du Oñatiko Trauti elkarteak. Orain arte, Udalarekin elkarlanean, herriko zenbait leku hobetzea lortu dute: besteak beste, losatan zeuden edukiontziak kentzea; San Miguel Parrokia inguruko argiak kentzea (gutxi ikusten dutenak itsutu egiten zituztelako); Antixena jauregira igotzeko Kale Barriko eskaileretan baranda ipintzea; Arantzazuko Ama kalea zabalagoa egitea; edo Sancti Spiritus Unibertsitateko klaustrora bi sarreretatik gurpildun jesarlekuan sartu ahal izatea.

## Eguneroko gauza txikiak

Laguntza tekniko batzuk denok ezagutzen ditugu, baina badaude eguneroko bizitza asko errazten duten beste laguntza mota asko. Izan ere, gaixotasunen baten, adinaren... ondorioz galdutako burujabetza neurri handi baten berreskuratzeko aukera ematen dute tresna horiek. Norbera garbitzeko eta apaintzeko, janaria prestatzeko edo jateko, deskantsu uneetarako, denbora libreko ekintzetarako, etxeko eguneroko gauzetan norbera hobeto moldatzeko... eguneroko bizitzako arlo guztietan norbera bere kabuz ibiltzeko modua ematen duten tresnak daude aukeran merkatuan.



**BELAKIAK** Kirtendun belakiekin, gorputz osoa ondo garbitzeko aukera du erabiltzaileak. Kirten batzuk malguak dira.



**AZAZKALAK** Oinetako azazkalak ebakitzeko tresna, kirten luzeduna. Eskuetako azazkalak ebakitzeko tresnak ere badaude.



**GILTZAK** Eskuetan indar txikia dutenendako aproposa izan daiteke giltzei bira emateko gailu hori.



**ENTXUFEA** Entxufea kentzeko gailu horrekin, indar txikiagoa egin behar da, eta ez dago entxufea bera oratu beharrik.



**ERRATZA ETA PALA** Erratz eta pala batzuen kirtena luzatu edo txikitu egin daiteke, altuera guztietatik erabili ahal izateko.



**JANZTEKO** Kremailera igotzeko eta jaisteko gaizki moldatzen dutenek tira egiten laguntzen duen aparailua erabil dezakete.



**SUKALDEAN** Latak, poteak, botilak... denetariko ontziak irekitzen laguntzen duten tresna unibertsalak daude.



**TETRA BRIKA** Likidoen tetra brikezko ontziak erabiltzeko euskarriak daude. Ontziaren neurrira egokitu daitezke, gainera.

Orain Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?

PSE: 37/04




Rosa Sarabia doktorea

PronoKal® metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko

– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ
Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa

# Aita Menniren lana txalotu du Urkullu lehendakariak

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Arrasateko Aita Menni ospitaleko instalazioetan egon ziren Iñigo Urkullu lehendakaria eta Jon Darpón Eusko Jaurlaritzako osasun sailburua joan den egubakoitzean, osasun zentroko zuzendaritzako kideekin batera. Urkulluk, Aita Menni ospitaleko gaixoei zaintzarik onena eskaintzen dioten profesionalen lana eta dedikazioa txalotu zituen ospitalea bisitatu ostean egindako hitzaldian. "Osasun zerbitzua, Aita Menni ospitale hau bezala, pertsonek pertsonei eskaintzen dioten zerbitzua da. Pertsonak proiektu baten ardatzean nola jarri erakusten duten eredua dira, bereziki zailtasunak dituzten pertsonetaz ari garenean", esan zuen Urkulluk. Gaixoen senideei ere mintzatu zitzaien, profesionalengan duten konfiantza goraipatuz.

Aita Menniko zuzendari Mikel Tellaetxeak eskerrak eman zizkion Urkulluri bisitagatik eta nabarmendu zuen "harreman estua" duela osasun sailarekin, "herritarren behar sanitario eta soziosanitarioak betetzera bideratutako proiektuak garatzeko".



Mikel Tellaetxe, Purificación Pardo, Iñigo Urkullu, Jon Darpón eta Nacho Quemada. | AITA MENNI OSPITALEA

## Tanzaniako proiektuen aldeko talo solidarioak egin dituzte Eroskin

O.E. | ARRASATE

Elkartasun helburuarekin antolatu zuten zapatuan Arrasateko Eroskin Elkartasun Taloak izeneko ekimena. Tanzaniako proiektu ezberdinetara bideratuko dute han batutako dirua.

### 10 urtez laguntzen

Markina Xemeingo Mundu Zabal GKEren proiektuetara bideratuko dute, hain zuzen, jasotako diru kopurua. "Dagoeneko 10 urte daramatzagu GKE horrekin lanean. Orain arte Mozanbiken egin dituzte proiektuak, errepideak, animaliendako etxaldeak edo eskolak eraikitzen, esaterako. Aurten, Tanzanian hasiko dira, Mozanbikerekin muga egiten duen eskualdean", kontatu du Itziar Emazabelek. "Orain arte bigarren eskuko azokak antolatu izan ditugu, eta 12.000 euro inguru jaso dugu urtean. Aurten Eroskirekin hasi gara elkarlanean eta gehiago jasoko dugula uste dugu. Eroskik jartzen ditu produktuak eta lortzen dugun dirua GKE horri ematen diogu", gehitu du hondarribiarrak.

Zapatuan egun osoz egon ziren taloak egiten. Bi eurotan saltzen zituzten, txistorra eta guzti. Horrez gain, baina, bestelako produktuak ere bazituzten salgai, gazta, piperrak, intxaurrak, txorizoak edo letxugak, esaterako.


Elkartasun taloak egiten zapatu eguerdian. | IMANOL SORIANO

## MUk bost master gehiago eskainiko ditu kurtso berrian

O.E. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak ingeniaritzako bost master eskainiko ditu datorren ikasturtean. Horietatik lau Arrasateko kanpusean emango dituzte, eta bat Donostialdekoan. Unibertsitate-master ofizial horiek ezagutzera emateko, gainera, hilabete honetarako informazio saioak antolatu ditu Mondragon Unibertsitateak Bilbo, Gasteiz, Donostia eta Arrasaten. Arrasateko saioa Goi Eskola Politeknikoan izango da, hilaren 29an. Hitzaldietan, gainera, enpresetako ordezkariek hartuko dute parte, besteak beste, Ingeteam, Innobasque, Orona, CAF, Ibermática eta Aernnova Aerospace enpresetako kideek. Masterrek enpresa arloarekin dituzten loturak azalduko dituzte, baita eskaintzen dituzten lan aukeren berri eman ere.

Unibertsitate masterren ezaugarriak dira espezializazioa, praktikotasuna, nazioartekotzea eta ikerketa, besteak beste.


Arrasateko Etxaluze eraikinean egin dute mintegia. | O.E.

## 70 lagunek jaso dute formazio politikoa Askapenaren eskutik

O.E. | ARRASATE

Formazio politikoa eskaintzeko mintegia ari da egiten Askapena; zapatuan egin zuten lehen saioa Arrasaten, eta inperialismoa, herri boterea eta internazionalizazioa eta feminismoa moduko gaiak landu zituzten, besteak beste. Bigarren saioa hurrengo zapatuan izango da.

### Euskal Herri osotik

Euskal Herri osotik etorritako jendea egon zen zapatuko saioan, tartean, arrasatear batzuk. "70 lagun inguru etorri dira eta pozik gaude. Batzuk brigadistak dira, beste batzuk Askapeneko militanteak, baina izan dira deialdiari erantzun dioten herritarrak ere", azaldu zuen Iñaki Etaio Askapeneko kideak. Izan ere, mintegiaren deialdia herritar guztiendako izan da. "Formazio politikoa beharrezkoa da, eta prozesu luzea da hori. Hala ere, mintegi honetan saiatu gara informazio orokorra ematen hemendik aurrera jendeak horren inguruan gehiago irakurri eta eztabaida dezan. Aurrerago, aurtengo brigaden inguruko informazio zehatzagoa emango diegu brigadistei. Aurten, Boliviara, Venezuelara, Palestinara eta okupatutako Saharara joango dira, adibidez", gehitu du Etaiok.

Zapatuko hitzaldietako bat, adibidez, Bilgune Feministak eskaini zuen, internazionalizazioaz eta feminismoaz. "Konturatu behar gara herrialde guztietan emakumeak aktiboak direla euren herrietako borroketan, eta hori baloratu egin behar da", adierazi zuen Leire Ibarguren hizlariak.

**EGITARAUA**

**MAIATZAK 11**

**10:00** Europa krisian. Hizlaria: Santi Ramirez.

**12:00** Abya Yala: ezker iraultzaileen egungo erronkak. Hizlaria: Susana Gonzalez.

**16:00** Euskal Inperialismoa. Hizlaria: Luismi Uharte.

**18:00** Alternatiba sozioekonomikoak eraikitzen. Hizlaria: Nekane Jurado.



OÑATIKO EAJ

## EAJren aurkako pintadak Oñatin

EAJren aurkako pintadak agertu ziren zapatu goizean Oñatin. Batzokikoan, *Euskal gazteria utzi bakean* irakur zitekeen eta kultura etxeko hormakoan, *PNV diruzale*. Oñatiko EAJk salatu egin ditu eta esan du "politikan eta demokrazian denak ez duela balio".

# Hasi dituzte AHTren lanak Bergarako irteeran

## 900 metroko luzerarekin, Bergarakoa izango da AHTk Gipuzkoan izango duen zubi luzeena

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Murrizketak jasan arren, Abiadura Handiko Trenaren obrak aurrera doaz. Aramaio inguruko zubiak bukatu eta gero, Bergaran, autobidea, GI-627 errepidea eta Deba ibaia zeharkatuko dituen zubia egiten hasi dira.

Amaitzen dutenean, zubiak 900 metro eta 11 zutabe izango ditu. Horietako bi Bergara eta Arrasate lotzen dituen errepidearen ondotik pasako dira, eta dagoeneko hasi dira zuhaitzak mozten eta lurra mugitzen.

Bergarako Biltoki enpresako sarreran zeuden zuhaitzak moztu eta gero, ibai ondoan, makinak zuloa egiten hasi dira. Errepidearen beste aldean ere, mendi magalean, erraz ikusten da zutabeak egongo diren lekua zein izango den.

Gipuzkoako zatiko lanak egiten ari den Eusko Jaurlaritzaren ETS (Euskal Trenbide Sarea) enpresatik esandakoaren arabera, "konplexutasun handiko obra handia da"; zubi luzeena izateaz gain, orografia zaila gainditu eta hainbat azpiegitura ere zeharkatu beharko ditu-eta.

Horregatik, zutabeen arteko distantzia ere normala baino handiagoa izango da. Batez beste, zutabeak bata bestearengandik 80 metroko distantziara egongo dira. Hori gutxi balitz, gainera, punturik garaienean, zubia 90 metro garai izango da.

### Diseinu berezia

Zubiak bailarako paisaian izango duen eragina murrizteko asmoarekin, hormigoizkoa beharrean, orain egiten hasi diren zubia metalezkoa izango da. ETSk esandakoaren arabera, zubia izango da Elorregin AP-1 autobidekoa dagoenaren antzekoa.

### Zailtasun gehiago

Zubia ez da Bergarako zatiak duen zailtasun bakarra. Herriko lurretatik igarotzen den zatiak hiru zubi izango ditu, eta bi tunel artifizial.

ETSk ez du lanak bukatzeko data zehatzik eman, baina Bergaratik trenbideak egingo dituen 3,1 kilometroak 34 hilabetean egingo zituela aurreikusi zuen proiektu hasieran. Bergarako zatiaren lanek, gainera, 95 milioi euroko aurrekontua dute.



Hasi dira lurra mugitzen zutabeak egingo dituzten tokietan. | UBANE MADERA



Zuhaitz baten aurkitutako habia. | GOIENA

# Asiako erlabioaren izurriei aurre egiteko kanpaina

## Eskuorriak banatzeaz gain, bailarako hainbat herritan hitzaldiak egingo dituzte

I.G. | ARRASATE

Martxo eta maiatz artean hasten dira Asiako erlabio edo liztorrak lehen habiak jartzen; izurririk ez sortzeko, Debagoieneko Mankomunitateak informazio kanpaina jarri du abian.

Asiako erlabioek udaberri hasieran egiten dituzte lehenengo habiak; eta horietako bakoitzeko erreginak beste habia bat egiten du; hala, 200 erregina inguru sortzen dira. Horregatik, Mankomunitatetik argi dute hasiera-hasieran habia suntsitzea ezinbestekoa dela. "Horrela, suntsitzen dugun hasierako habia bakoitzeko 200 erregina gutxiago izatea lortuko dugu", diote Mankomunitatetik.

Habiak bost zentimetrokoak izan ohi dira, eta teilatu edo aterpeetan egiten dituzte. Erabilitako egurraren arabera, gainera, kolore desberdina izaten dute. Kontuz! Habia kentzea ez da nahikoa; erregina akabatu egin behar da.

### Informazio-batzarrak

Informazio gehiago gura dutenek erraza izango dute, herri bakoitzean bilerak egingo dituzte-eta: 19:00etan. Gaur, Arrasateko Kulturateko areto nagusian egingo dute lehena. Eguenean Bergarako osoko bilkuren aretoan izango da eta egubakoitzean, Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Astelehenean Oñatiko Santa Ana aretoan izango da eta eguenean, azkenik, Aretxabaletako Zaraian.

### Erlabioaren kontra

**ZER EGIN**

- Norberak suntsi dezake, emandako jarraibideak segituta.
- Zalantza izanez gero, udaltzainei deitu behar zaie.
- Beti eman behar zaie abisua udaltzainei, nahiz eta norberak kendu, jasota geratzeko non azaldu diren habiak.

**NOLA SUNTSITU**

- Eguzkia atera aurretik edo gorde eta gero egin behar da.
- Poltsa batean sartu.
- Etxeko edozein intsektizida bota.
- Itxaron 20 minutu.
- Kendu paretatik.
- Suntsitu habia.

# San Pankrazio eguna ospatuko dute eguenean Goi Eskola Politeknikoan

## Urtero moduan, arrautza–jaurtiketa txapelketa izango da ekintza jendetsuena

I.G. | ARRASATE

Eguena, maiatzak 10, egun handia izango Mondragon Unibertsitateko ikasleendako. San Pankrazio eguna ospatuko dute, eta, urtero moduan, jai egitarau ederra prestatu dute.

Goizean goiz hasiko dira jaieguna ospatzen. 09:00etan, nagiak kentzeko, taldekako jokoak izango dituzte. 11:00etan, tradizio bilakatu den arrautza-jaurtiketa izango dute. Txapelketa horren helburua da ikasleek arrautza babestuko duen aparailua diseinatzea. Hala, ikasleek arrautza aparailuan sartu eta laugarren solairutik ahalik eta urrunen botatzen dute. Hegaldi luzeena saritzeaz gain, diseinu originalenak ere jasoko du saria. 12:00etan, etxafuegoa bota eta ofizialki egunari hasiera emango diote; 13:00etan, auto telegidatu lasterketa egingo dute.

14:00etan, herri bazkaria egingo dute; txartelak, sei euroren truke, Kirol Zerbitzuan, 4.102 gelan eta Txitxinpen eta Zeppelinen daude salgai. Bapo jan eta digestioa egiteko astia izan ostean, 16:30ean, elektrotxarangarekin txikiteoa egingo dute. Horrez gain, arratsaldean, eskolako zelaian jam sesioa izango dute.

### Eguna bukatzeko, kontzertuak

Iluntzean eta gauean, nola ez, zuzeneko musika izango da protagonista –20:00etan hasita–: Sextoners, Rawsky, Keepsake, Menim eta Gugaz berbena taldeek girotuko dute ospakizuna. Eta, horren ostean, campuseko frontoi txikian karaokea izango da. Lastland DJren erritmoek emango diote amaiera aurtengo San Prankazio egunari.





Fagor Etxetresnen Garagartzako planta. | IMANOL GALLEGO

# Etxetresnek, 89 milioiko galerekin batera, iraunkortasuneko hazkunde plana aurkeztu dute

Krisia orokortu den eszenatokian, Espainian bere merkatu-kuota %0,7 gehitzea lortu du

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE

Fagor Etxetresnak enpresak 89 milioi euroko galerarekin itxi zuen 2012ko jarduna. Enpresak azaldu duenez, kontsumoaren beherakada, nazioartean zabaltzera bideratutako inbertsioaren murrizketa eta merkatuen errealitate berrira moldatzeko prozesua izan dira galeraren arrazoiak. Hala ere, eszenatoki ezkor honetan berri guztiak ez dira negatiboak izan. Fagor Etxetresnek bere merkatu-kuota %0,7 gehitu dute Espainian eta sektoreko bosgarren fabrikatzaile europarra izateari eusten diote.

**Nazioarteko merkatua**

Nazioarteko salmentak negozioaren %76 izan direla azaldu du Fagorrek, eta 2013ko aurreikuspenen arabera %10 haziko da Fagor. Nazioarteko esparruan, gainera, estrategikoak diren zenbait merkatutan oso emaitza positiboak lortu ditu. Hala, Frantzian eta Polonian, hurrenez hurren, 449 eta 62 milioi irabazi ditu kooperatibak.

**Etorkizunera begira**

2012an, konpainiak datozen lau urteotan jarraituko duen Plan Estrategikoa zehaztu du. Hazkundea, aliantzak eta merkatura egokitzea dira planaren ardatz nagusiak. Honela, merkatu berrietan 100 milioi gehiago irabaztea da helburu nagusia.

Enpresa-aliantzen bidez, kooperatibak produkzio-kostuak optimizatzea, erosketa bateratuak egitea eta garatzeko bidean dauden herrialdeetan bere marketako etxetresnak komertzializatzea du helmuga.

## Martitzenean batzar orokorra

Bihar, martitzena, egingo dute Arrasateko eta Eskoriatzako Fagor Etxetresnetako eta Bergarako Geyserreko bazkideek aurtengo batzar orokorra; 2.000 lagun pasa daude deituta. Izan ere, bazkide aktiboez gain, egun lanean ez egon arren kapitala oraindik kooperatiban dutenak ere deitu dituzte.

Batzarrari dagokionez, kooperatibaren norabidea zehaztuko duten puntuak jorratuko dituzte eta, horrez gain, Kontseilu Berria iniziatibak ere bere proposamena aurkeztuko du.

# Ikastaroak, krisiaren aurkako politiketaz

**OIHANA ELORZA** | ARRASATE

Ekai Center-ek antolatu dituen ikastaroetako bat gaur, astelehena, hasiko da eta hilaren 24a bitartean emango dute. *El euro y la gestión política: europa ante la crisis económica* da ikastaro horren izenburua. Bigarren ikastaroaren izenburua, berriz, *Euskadi, posición ante la crisis* da eta maiatzaren 27tik ekainaren 24a bitartean emango dute. Langileen etengabeko formaziorako laguntzekin antolatuta daude bi ikastaroak. Euskal Autonomia Erkidegoko langileendako, okupatuak daudenendako eta langabezia egoeran daudenendako dira. Jorratuko dituzten gaiak zeintzuk izango diren jakiteko edo informazio gehiagorako: *errukane@ekaincenter.eu*.

# Erabili ez arren, ibilgailu guztiek behar dute IAT gaindituta, bestela isun arriskua dute jabeek

Segurtasun Sailak autoen jabeei ez die abisurik bidaliko. Trafiko Zuzendaritzak egiten du, baina

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Isuna jaso dezakete IAT gainditua ez duten ibilgailuen titularrek, nahiz eta ibilgailua luzaroan zirkulazioan ez egon, Trafiko Zuzendaritzak GOIENAri argitu dioenez. Horrela bada, azken asteotan komunikabideetan agertu diren albisteen gaineko azalpenak eman ditu.

Trafiko Zuzendaritzak gogorarazten duenez, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrak (RD. 2822/1998), 10. artikuluan, honakoa dio: "Matrikulatuta dauden edo zirkulazioan ipinita dauden ibilgailuek azterketa teknikoa egin beharko dute". Era berean, I. Eranskinean, baldintzak eta salbuespenak jasotzen ditu.

Trafiko sailak gaineratzen duenez, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Erregelamenduak (RD. 2042/1994), 2. artikuluko 3. puntuan dioenez, "ezinbesteko baldintza" izango da, IAT pasatzeko betebeharra kentzeko, Trafiko Zuzendaritza probintzialean edo lekuan lekukoan behin-behineko baja ematea ibilgailuari.

Hau da: IAT pasatu behar dutela behin-behineko baja hartuta ez duten ibilgailu guztiek.

Bestalde, Espainiako Trafiko Zuzendaritzak ez bezala, EAEko Segurtasun Sailak ez dizkie jabeei jakinarazpenak edo oharrak bidaliko.

Isun arriskua dute ere leku publiko baten geldi dauden ibilgailuek, baldin eta Ertzaintza ohartzen bada eta IAT pasatu gabe badute.


Geldi egon arren, ibiligailu guztiek pasa beharko dute IAT. | IMANOL GALLEGO

Jatetxe Gida









## Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



## Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



## Uxarte jatetxea

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**




## Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

**Eskaintza**

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

**10 menu hartuta, 1 DOAN.**

## ZABALIK

**DIEGO MARTIARTU**
http://goiena.net/iritzia/



# Hazkundeaz

Krisitik irteteko, hau da, berriro lanpostuak sortzen hasteko eta lehengora bueltatzeko, hazkundea behar ei dugu arnasa hartzeko airea legez.

Hala ere, uste dut zentzuzkoena desazkundeari heltzea litzatekeela, batzuek tunelaren barrenean ikusten duten argi hori ez dadin lur arraso berdinduko gaituen trenarena bilaka.

Duela askotxo, burgesek gauzak eta gauzak pilatzen zituzten. Orain pobreek baino ez dituzte gauzak gordetzen, lotsaz bezala, dauzkaten gauza horietaz lehenbailehen libratu eta berriak eskuratzea baita zinez gura dutena. Gauzakiak ez dira jadanik gauza bihurtzen, bihurtzeko puntuan daudenean arrapataka joaten gara-eta merkatura beste zerbaiten bila, ordezkoen bila. Orain gauzak ez dira hondatzen, ondo dabiltzala botatzen ditugu harrika. Gauzak pilatzeak ez gaitu asetzen, gauzak aldatzeak gaitu apurtxo bat baretzen. Kontsumoaren demasak nora eroan gaituen: Interneteko denda birtualetan zerbait erosi eta, postariak erositako hori behin etxera ekarrita, kamara piztu eta eskatutako zera horri bilgarria zelan kentzen dioten grabatzea eta Youtuben jartzea: horixe da hainbat gizajoren plazer iturria *(unboxing* da aski zabaldurik dagoen moda berriaren izen teknikoa).

> **"Orain gauzak ez dira hondatzen, ondo dabiltzala botatzen ditugu"**

Kapitalismoan bizi garenok ilusio batek bizi gaitu: den-dena da ordezkagarria, dena da aldagarria. Ilusio hori sendo zuztartuta dago etengabeko hazkundearen ilusioan. Planeta honen baliabideek mugarik ez balute bezala jardutean datza mugarik gabeko hazkundearen kuentotxinoa. Okerrena zera da: hazkunde ezak langabeziara eta mixeria gorrira daroa milioika pertsona; atergabeko hazkundeak, berriz, natura, ekologia eta zibilizazioa bera suntsitzen ditu. Gaur gaurkoz, aukera biak dira negargarriak zeren eta desazkundea, eraginkorra izango bada, zimendu berrien gainean ezarri beharko baita.

## USTEAK USTE

**LEIRE KORTABARRIA** | lkortabarria@goiena.com

# Desberdintasun gehiago

Donostiaren eta Gipuzkoako *besteon* arteko beste desberdintasun bat: asteon irakurri dut Donostian oporretako etxebizitza dutenek ez dutela etxebizitza hutsendako IBI handiagoaren penalizaziorik izango, Gipuzkoako herri gehienetan gertatzen ez den bezala. Diskriminazioa iruditzen zait: beste edozein herritan, Oñatin, adibidez, oporretako etxebizitza dutenek zergatik ordaindu behar dute errekargu hori? Eta, bigarren: Donostian oporretako etxebizitza dutenak ez dira izaten, hain justu, ahalmen ekonomiko txikienekoak. Horrek ez dirudi fiskaltasun bidezko eta progresiboa. Kasu bakoitza aztertuta, kontraesanak eta iruzurrak saihestuko lirateke. Lan handia, akaso, baina beharrezkoa.

## KALE INKESTA

# Zer deritzozu Reala egiten ari den denboraldiari?



**EDUARDO ANDRES**
HONDARRIBIA

"Bartzelona eta Real zalea naiz. Asko ari naiz gozatzen Realarekin. Datorren denboraldian Reala–Bartzelona, Txapeldunen Ligan".



**PATXI IRURETA**
BEASAIN

"Urte askotan sufritu dugu Realarekin, baina aurtengoa pozgarria da. Eta harrobiko zortzi edo bederatzi jokalarirekin jokatzen du gainera".



**PATXI AGIRREBEÑA**
ARRASATE

"Garai hauetan baditugu gauza garrantzitsuagoak, nahiz eta futbola ondo dagoen entretenimendu gisa, eta inbidia apur bat ere eman tarteka".



**MARI CARMEN TELLERIA**
OÑATI

"Pilota gustatzen zait gehiago, baina Reala jarraitzen dut pixka bat. Nere etxekoei entzutea nahikoa da informatuta egoteko. Pozik daude".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Sorgortu

**Pello Zabala**
http://berria.info/blogak/pellozabala/

Aditz hau urrun ezazue zuen aldamenetik.

Ezin sortu, erabat sor ta gor, sorgortua… antzualdi luzean.

Gure ermanoetako batek dioen gisara, *ezer gehio asmatzeko gauza ez ba haiz, Antzuolako seme kuttun izendatuko haute!*

Barka biezate Antzuolako lagunek, baina, aspaldiko esana sortu genuen hemen, bat logurez eta loantzean sumatzen genuenean, edo, ez esna eta ez iratzar harrapatzen genuenean, *"Aizak hi, Antzuolan ere ez haute ametituko"*, eta bestetzuetan, lehen esana, beste batek asmaturiko horixe: *Antzuolako seme kuttun!*

*Antzuaren sormena Antzuolaraino ailegatzen zela,* halaxe asmatu baitzigun beste ermano batek.

Bueno, barka, baina hau dena datorkit nire sor-gortasun anportu trixtea ezin dudalako iratzarri…

Orduan, eta hortaz, egunkarien notiziatxo gutiziagarrien peskizan para naiz, hartara patxada hobea dudakeelakoan.

Eta, halaxe suertatu ere: gutiziak gutiziatsu bihurtu nau, ea ba ezer gutiziagarririk topa ote nezakeen… eta sikiera, gutizi sorkuntzan ea artista bilaka nindekeen edo… ekin diot egunkarietan albiste alpixtetsuenak topatzeari.

Noski, kulturaren orrialdetara jo dut, non bestela, topa alpixterik?

Eta hara!

*Maixa eta Ixiar, ia 14 urte trikiti-panderoak aldameneratu ostean, Itziargo festan, larunbatean jotzekotan omen direla!*

Beajondaizuela!

Hori poza, hori!

Animoa puztutzen hasi zait bertatik!

Banoa zesuman aurrera, eta… hara bestea!

*Neguaren lekuko, udaberriaren igarle!*

Hau nireetakoa duk inondik ere, eta… nor izango eta, gure Xanti, Zabala batetik, *"Lexo"* bestetik.

127 bertso sail bilbatu dizkiote Nikolas Aldaik eta Pello Esnalek.

Xanti Gaintxurizketakoa izanik, hantxe baititut *Pernando Amezketarraren ondorengo Bengoetxeatar lehengusuak* ere.

Banator gero eta animatuago, eta… hirugarren alpixtea, ia-ia kontrako-eztarrira joango zitzaidan, ataka itxi ez banio!

*Joiño, joiño!*

Antton Lafont Mendizabal laguna topatu dut lan eder baten egile.

Lanaren mamia eta pasta ez dizut laburbilduko, baina bai, *-Beajondaiala, Antton, hik bai asmatu! Hori duk sormena, hori!-* … bere izenaren azpian, nor zaigun adierazteko, aizu, zer ipiniko, eta, hauxe: *Peatón y empresario.*

Ai nire barreak, eta beste lagunen algarak!

Gustatu zaigu, benetan, krisialdirako ezin hobeto datorkigun *'peatón' ibiltari umil eta apal* horrena, empresario izanik, gainera.

*Beajondaiala, Antton! Hire lezioa kopiatuko diat.*

Askotan galdetzen baitidate, *"Qué vamos a poner, Peio Zabala, que qué eres, fraile, de Aránzazu, o qué"…?*

Oraintxe bazekiat, Antton, hiri ikasita: *Peatón de Arantzazu!*

Eta euskaldunei, errazago oraindik: *Arantzazuko natur-ibiltaria,* edo *ibiltari naturala!*

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Julen Iriondo
**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak

## Eraman ezazu beti txartela aldean!

## GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO

### KAFE MAKINA

NESCAFÉ Dolce Gusto Melody kafe makina dugu zozketatzeko!



**Parte hartzeko**

DolceGusto
BaserriSarea
Arrikrutz
Bertikal
Mihiluze

**SMS:** KLUBA [**SARIAREN IZENA**] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** *kluba@goiena.com*
**WhatsApp bidez:** KLUBA [**SARIAREN IZENA**] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

### BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



### ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



### MIHILUZE

MIHILUZE jokoa irabaztea nahi? Bi joko ditugu zozketatzeko.



### BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako. 5 joko ditugu zozketatzeko.



**DESKONTUAK:** ***www.goienakluba.com***



**Beste abantaila batzuk:**
- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Aitor Goiti** | Euskal Herritarrok eta EAE-ANVko zinegotzi izan zen Bergaran (1998-2002 eta 2007-2011)

- Bi agintaldi oso desberdin bizi izan zituen Goitik, bata oposizioan eta bestea gobernuan
- Ilegalizazioak bizi izan zituen, baina gogorrena oposizioaren 'etika mozioa' izan zela dio
- Zorra gutxitzea eta uraren kudeaketa berria lortzea izan ziren bi lorpen garrantzitsu

# "Proposamen asko aurrera atera genituen eta oso harro nago egindako lan guztiaz"

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Zortzi urtez, Bergarako udalbatzan zinegotzi izandakoa da Goiti. Bi ilegalizazio bizi izan ditu, momentu gogorrak bere esanetan, baina bizipen oso onak ere badituela dio. Oposizioan eta udal gobernuan izandakoa da.

**Nolatan sartu zinen politikan?**

Beti izan naiz ezker abertzaleko militante eta Euskal Herritarroken lehenengo zerrendan sartzeko aukera izan nuen eta, horrela, hauteskundeetan babesa jaso eta sartu nintzen udalbatzan.

**Bi agintalditan egon zara lanean; bizipen asko izango dituzu, ezta?**

Bai, egia esan, bizipen asko ditut. Gainera, egoera desberdinak bizi izan ditut bi agintalditan; izan ere, lehenengoan, EHrekin, oposizioan geunden. Su-eten garaia zen, Lizarra-Garaziko akordioaren garaia... Bigarren agintaldia guztiz desberdina izan zen, hauteskundeetan guk irabazi genuen eta zuzenean gobernuan sartu ginen eta ez ginen oposizioan egon, aurreko lau urteetan bezala. Bigarren agintaldian askoz gusturago egon nintzen. Gehiengo absolutua geneukan, Aralarrekin akordiora iritsi ginelako. Gainera, harreman oso estua eta polita genuen gure artean eta oso aberasgarria izan zen niretzako.

**Gauzak batera, elkarlanean eginda, hobeto egiten dira, ala?**

Bai, bai; baina hobeto egiteaz gain, aberasgarria da, ze bakoitzak bere arloan gauza batzuk kontrolatzen ditu eta beste batzuek beste batzuk; beti ikasten da zerbait elkarlanean. Lehenengo agintaldian nahikoa gaizki pasa genuen; gogorra izan zen, su-etena bertan behera geratu eta beti horma baten aurka egiten genuen. Edozer gauza proposatu eta beti udal gobernuaren horma gogorra genuen aurrean.

**EAJ gobernuan urte askotan izatetik, udala zuen esku geratzera pasatu zen.**

Bai, oso aldaketa handia izan zen. Sartu ginenean mugimendu handia egon zen udaletxean. Gai asko jorratu ziren eta proiektu asko atera genituen aurrera.

**Ilegalizazioak ere bizi izan dituzu.**

Bai, bi ilegalizazio sentitu eta bizi izan ditut; amorrua ez, baina inpotentzia sentitzen duzu, gauzak egin nahi, gauza asko arduraz egin eta dena bat-batean bertan behera geratu zen. Aurrera egiteko, edozein pausu emateko, kontu handiz egin behar genuen guztia, politikoki gauzak nola ikusten ziren, zein ondorio izango ziren kontuan hartu behar zen. Niretako mingarriena oposizioak sartutako *mozio etikoa* izan zen. Harreman ona genuen eta egun batetik bestera *mozio etikoa*-rekin etorri ziren, niretako oso gogorra izan zen.

**Zure egitekoak, gehien bat, Ogasunarekin lotutakoak izan ziren.**

Bai, gehien bat ogasun sailean egon nintzen. Egin genuen gauzekin oso harro nago, zor handia zegoen gu sartu ginenean eta asko jaistea lortu genuen; pentsa, 13.000.000 euroko zorra egotetik 2.000.000 eurokoa izatera pasa zen. Gauzak egitea posible dela erakutsi genuen. Halaber, uraren tarifa ere aldatu genuen, zenbat kontsumitu hura ordaindu, ideia aurrera eraman eta proiektuak aurrera egin zuen.

**Orain, urteak pasa direla, oroitzapen onak dituzu?**

Oroitzapen oso onak ditut, berriz ere sartuko nintzatekeen udalean, ze asko ikasten da, oso aberasgarria da ikusten duzulako nola funtzionatzen duen halako instituzio batek, harremanak egiten dituzu, herriarentzako lan egiten duzu, herritarrekin harremana izan eta kontaktua izaten duzu. Lan asko da, baina merezi du. Guk, gainera, ez genuen dietarik kobratzen, gaur egun oso modan dagoen gaia dela ikusita... nik ez nuen ezer kobratu.



Aitor Goiti, gaur egun, irakasle lanetan dabil. | A.G.

> "Bi agintalditan egon naiz udalean eta oso desberdinak izan dira biak"

> "Ilegalizazioak oso gogorrak dira; gainera, nik bitan bizi izan ditut"

> "Gogorrena 'etika mozioa' izan zen niretzako; garai zailak ziren"

> "Udalean lan egitea oso aberasgarria da, denok pasa beharko ginateke bertatik"

PEDALKA
SAIO BERRIA
FRANTZIAKO ALPEAK ALDERIK ALDE BIZIKLETAZ JULEN IRIONDOREKIN
GOIENA TELEBISTA | MAIATZAK 9, 21:50



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# HERRIAK

ARRASATE

# Salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantza eguneratu du Udalak

▸ Udaltzainek aukera izango dute jatorri arraroa duten produktuak erretiratzeko

▸ Herrian egiten diren merkatuetan janaria saltzeko debekua kentzea erabaki dute

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Londres, Paris, Madril... bezalako hirien xarma merkatuetan ikusten da. Bertako postu eta produktuetan hiri baten arima ikusten dela esan ohi da. Arrasate hiri horietako errealitateetatik urrun dagoen arren, urtean zehar zenbait merkatu egiten dira, eta araudi zabal bat bazuten arren, orain Udalak eguneratu egin du. Honela, egun egiten diren merkatuak arautzeaz gain, orain arte arauditik kanpo geratzen ziren zenbait errealitate ere ordenantza berrian sartu dituzte.



Egubakoitzetako Laubideko merkatuak jende asko erakartzen du. | IMANOL GALLEGO

## Janaria saldu

Arrasateko merkatu egutegiari ongi begiratuz gero, araudi zaharreko zenbait puntu lekuz kanpo zeudela erraz ikus daiteke. Horietako bat, janaria saltzeko debekuarena izan da. Urteetan indarrean egon den araudiak, nahiz eta merkatu gehienetan saldu den, janaria saltzea debekatzen zuen. Udalak ez du inoiz hori zigortu, baina Juan Antonio Barriocanal Zerbitzuetako batzorde buruaren hitzetan "errealitate horrek ordenantzaren barruan egon beharko luke eta, orain, bertan sartu dugu". Debeku honek herritar bat baino gehiago harritu du: "Herri honetako merkatu gehienetan janaria saldu da".

Egia da hor esandako hori, baina orain, Udalak egindako aldaketari esker, janaria saltzea ordenantzaren barruan egongo da. Aldaketa txikia dirudien arren, uste baino konplexuagoa da. Ordenantzak, onartzeaz gain, salmenta bera arautu egiten du. Ondorioz, kalitatea eta prozesua bera ere bermatuko ditu.

## Produktuak zaindu

Asteroko merkatuetan ez dira produktu faltsuak ikusten, baina zenbait festaren harira jartzen diren postu ibiltarietan ohikoagoa da Carolina Herreraren poltsekin edo Armani etxearen betaurrekoekin topo egitea. Hemendik aurrera, udaltzainek horrelako produktuak konfiskatzeko baimena izango dute.

Herritar eta gainontzeko saltzaileen mesedetan, jatorri arraroa duten produktuak ere erretiratuko dituzte. Elkarrizketatutako saltzaile guztiek gauza bera diote puntu honi buruz: "Salmentek legearen barruan egon behar dute. Horrelako produktuek izen txarra ematen digute".

## Saltzaile eta erosleak gustura

Ordenantza berrituak kritika onak besterik ez ditu jaso. Herritar batek, ordenantza berria ezagutu ostean zera zioen: "Jarrera bat debekatu aurretik, araudi on bat egitearen aldekoa naiz".

Jasotako iritziei kasu egin ezkero, badirudi, araudia, hasieratik, mundu guztiak onartu duela. Saltzaileek ere haren alde egin dute: "Bazen garaia" edo "urteetan egin ditugun eskaerak aintzat hartu dituzte" bezalakoak zituzten askok ahotan.

Kritika negatibo bakarra denbora izan da. Saltzaile batek argi zuen: "Aspaldi arautu beharreko kontuak erregulatzen ditu ordenantzak". Saltzaile batek zioen moduan, "jendeak asko erostea besterik ez da falta".



**MOULAY DRISS OUAFA**
SALTZAILEA

"Aldaketak ongi daude. Laubide plazakoa merkatu txikia da eta arazo gehiegi egon ez arren, edozein araudik mesede egingo digu".



**JOSUE JIMENEZ**
SALTZAILEA

"Bazen garaia! Araudian azaltzen diren zenbait puntu aspalditik guk eskatutako gauzak dira. Orain egokiagoa dela uste dut".



**NOURDINE OUAFA**
SALTZAILEA

"Araudi berriak erosleak babesteaz gain, saltzaileak ere babesten ditu. Araudi honekin merkatu hobeago bat egiteko aukera izango dugu".

**J.A. BARRIOCANAL** | ZERBITZUETAKO BATZORDE BURUA

## "Ordenantza berria egin baino, zegoena egungo errealitatera egokitu dugu"



IMANOL GALLEGO

**Zein izan da araudia aldatzeko kausa?**

Ordenantza egokitzea izan da. Alde batetik, oraindik indarrean dagoen ordenantzan San Andres eta San Joango merkatuen izenak ageri ziren; orain Laubide plaza agertuko da. Bestetik, festetako azoketan jakirik saltzerik ez dagoela esaten zuen aurreko ordenantzak; berriak, berriz, baietz. Ordenantza berrian saltzeko baimenen transmisio kasuak zabaldu ditugu. Azkenik, bai saltzaileak, bai salmenta produktuak araudi barruan daudela bermatzea.

**Merkatuetan janaria saltzeko aukera arautu duzue?**

Udalak jakien salmenta baimentzea erabaki du gaur egungo azoka tradizionaletan (Santamasak eta baserritarren hirugarren zapatuko azoka). Salmenta hori egiten denez, arauditik kanpo uzteak ez du inolako zentzurik.

**Herrian ez da produktu faltsu askorik ikusten; hala ere, beharrezkoa da hori arautzea?**

Lehen esan bezala, ordenantza berria egin baino, gaur egungo errealitatera egokitu da eta araudi horren baitan egon behar dute bai saltzaileek, bai salmenta produktu guztiek ere. Erosleei eskaintzen zaien produktuek ziurrak behar dute.

**Aldaketa hauek postu gehiago ekarriko dituzte?**

Ordenantza eguneratzeak ez dakar postu kopuruan aldaketarik.

OÑATI

# Arantzazu, lagun zaharren topaleku, jende ezaguna ere bai horien artean

## Ikasle izandako 150 inguru batu ziren domekan III. Arantzazu Eguneko ospakizunetan

**JULEN IRIONDO** | OÑATI

Harridura keinuz lagundutako agurrak, garai bateko kontuen gaineko solasak eta etorkizunean elkarren berri sarriago izaten ahalegintzeko promesak. Osagai horiek izan zituen Arantzazu Eguneko aurtengo ospakizunak, aurrez egitarauan zehaztuta zetozenekin batera.

Izango dira 1.000 inguru Arantzazuko seminarioan ikasten ibili eta oraindik bizi diren lagunak, eta horietatik 150 bat izan ziren domekan –denengana iristeko zailtasunak aitortu zituen Iñaki Beristain frantziskotarrak, datu faltagatik–.

Mahai-ingurua egin zuten aurrena eta garai desberdinetako ikasle ohiek han jasotakoa azaldu zuten: "Ikasi zutela ikasten" izan zen askok nabarmendutakoa.

Meza egin zuten ondoren; hainbatek tragoxka bat hartzeko edo inguruko bazterretan berriz ibiltzeko aprobetxatu zuten tarte hori, eta elizakoak amaitzean Andoni Egaña eta Sebastian Lizasok bertsotan egin zuten, eta Jon Enbeitak kantuan, gitarrarekin. Egiten zuen giro ederrarekin, gustura egon ziren entzuten, festara joandakoak eta han zebilen beste hainbat. "Oso egun gozoa doa; aspaldi eduki dugun ideia onenetakoa izan da hau antolatzea", zioen Beristainek, ospakizun amaierako bazkaritara joan aurretik.



**JOSE RAMON BELOKI**
POLITIKARI OHIA

"Fraile izateko asmotan etorri nintzen. Beste bide batzuk ireki zizkidaten hemen pasatako urteek; humanismoa, natura, norbera izaten ikastea... eman zizkidaten".



**RUPER ORMAZA**
UNESCO ETXEKO LEHENDAKARIA

"Hego Ameriketan, esaterako, izan du eragina Arantzazuk. Munduko ikuspegi hori, proiektu handietan pentsatzea, hemen ezagutu eta Unescon jarraitu egiten dut".



**JON ENBEITA**
BERTSOLARIA

"Aspaldi ikusi gabeko batzuk ikusteaz batera izena ere etorri zait gogora, eta harrituta. Egun polita da. Oroitzapen gazi-gozoak ditut. Diziplina gogorra zen".



**JABIER KORTABARRIA**
OÑATIARRA

"Lagun batzuk ere egonak dira, baina ni geratu nintzen *Fraile* ezizenarekin. 11 urterekin ez duzu erabakitzeko gaitasunik. Pilota gustatu, frontoia zegoen, honaxe".



Arantzazun ikasten ibilitako 150 lagun inguru, domekako ospakizunean. | JULEN IRIONDO



Sebastian LIzaso eta Andoni Egaña bertsotan, meza ostean. | J.I.



BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

## San Migel Monteren jatorria

75 urte dira aurten Angiozarko Goimendiko San Migel Monte ermita berritu zutela. Urteurren horren harira, berpizkunde garaiko lau taulen kopiak jarri zituzten atzo, domeka, ermita barruan, San Migelen agerkundearen (Italiako Gargano mendian) istorioa kontatzen dutenak. Auzoko jaien barruan egin dute ekitaldia.




OÑATI

IMANOL SORIANO

## Txantxiku Ikastolaren Eguna

Izenez Txantxiku Ikastolaren Eguna izan arren, asteburu osoan egin dituzte ospakizunak oñatiarrek. Frontoiko harmailak bete egin ziren egubakoitzean egindako festan. Antzerki, abesti eta koreografiak egin zituzten ikasle, irakasle eta gurasoek. Zapatu arratsaldean, berriz, jendetsua izan zen Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioa.



ARETXABALETA

IMANOL SORIANO

## Udaberriko jaia Arizmendik

Giro ederrarekin ospatu zuten zapatuan Aretxabaletan Arizmendi Ikastolaren udaberriko jaia. Gidatutako dantza saioan ume eta guraso askok hartu zuten parte, eta taloa jan eta eztarria freskatzeko modua ere izan zen eguerdian plazan. Hara kalejiran iritsi ziren asko, neska-mutikoz osatutako batukada lagun.

ESKORIATZA

# Aitzorrotz kultur elkartearen eguna ospatu zuten, bertsoez, musikaz, janaz eta edanaz

Goizean hasi eta gaueko ordu txikiak arte ospakizun eta ekintzez bete zuten Eskoriatza zapatuan


Eskoriatzarrak taloa erosteko esperoan. | IMANOL SORIANO


Aitzorrotz kultur elkarteko kideak sagardoa zerbitzatzen. | IMANOL SORIANO

JAGOBA DOMINGO | ESKORIATZA

Zapatu goizeko 11:00etan eman zieten hasiera Aitzorrotz kultur elkartearen egunaren ospakizunei etxafuego jaurtiketarekin. Ondoren, txikienentzako txistulari eta buruhandiekin kalejira egin zuten.

Eguerdian sagardo eta taloen ordua iritsi zen. Eskoriatzako plaza goraino bete zen sagardo ezberdinak dastatu eta taloez gozatzeko, Uxue Alberdi eta Xabier Silveira bertsotan ziren bitartean.

**Jana, pailazoak eta musika**

Trikitilari eta bertsolariek herri bazkaria girotu zuten eta, ostean, Potx eta Motx pailazoek arratsaldea alaitu zieten umeei.

Egunari amaiera emateko musika izan zen; Menim, Balerdi Balerdi eta Never Surrender taldeek jo zuten Inkernu tabernaren kanpoaldean.


Never Surrender arrasatearren kontzertua. | JOKIN BEREZIARTUA

## Atxorrotz eguna giro paregabean

Aurten ere jendetza bildu da Atxorrotzen. Goizeko 9:30ean hasi ziren Eskoriatzatik igotzen eta, eguraldia lagun, ehunka eskoriatzar batu ziren egun berezi hau ospatzeko.

Atxorrotzeko indusketak ikusteko bisita gidatua egiteko aukera ere egon zen.


Atxorrotz mendia domeka goizean. | IÑAKI KORTAZAR






Merkemerkaua da Udalaren eta Ibai-Arteren arteko hitzarmenak lagunduta antolatzen den ekintzetako bat. | ARTXIBOA

# Udalaren eta Ibai-Arteren arteko lankidetza, aurrera

Azken Tokiko batzarrean onartu zen merkatariendako 2013ko Ekintza Plana

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Udalak eta Ibai-Arte merkataritza elkarteak lankidetza hitzarmena berritu dute aurten ere. 2009an ekin zitzaion bi aldeen arteko lankidetza sistema berriari, herriko merkataritza sustertzeko helburuarekin. Aurten iazko diru kopuru bera emango dio Udalak Ibai-Arteri: 31.000 euro. Diru laguntza honek Ibai-Arteren aurrekontuaren %25 inguru suposatzen du eta elkarteak urtean zehar egiten dituen ekintzetarako bideratuko da.

Ekintza horien artean daude Merkemerkaua, Merkataritza Berdearen Astea, Gabonetako Kanpaina, Ibai Arte txartela, Ibai Arteren webgunea, Dendari.com egitasmoa, Udaberriko Festa, Arrasate Irekia ekimena eta bestelako ekintza puntualak, besteak beste, Ardo Bira, Harreman tonbola eta baserritarren azokak.

Enplegua eta Garapen Ekonomikoko batzordean aztertu zen gaia. Aurreko urteetako esperientziak ondo funtzionatu duela ikusita, joan den asteko Tokiko Gobernu batzarrean onartu zen Ibai Arte elkarteak proposatutako 2013ko Ekintza Plana.

**DATUA**

**31.000**

EUROKO EKARPENA

**Udalak, iaz egindako moduan, 31.000 euro eman dizkio Ibai-Arteri, elkartearen 2013ko Ekintza Planerako.**

### Plana betetzeko konpromisoa

Diru laguntza jasotzearekin batera, Ibai Artek 2013rako ezarrita duen Ekintza Planeko ekimen guztiak betetzeko konpromisoa hartu du –horietako batzuk bete ditu dagoeneko; adibidez, Merkemerkaua– eta baita ekimen berriak edo aldaketak izatekotan Udalari jakinarazteko ere.

Ibai Arte merkataritza elkartekoek adierazi dutenez, Arrasateko merkataritza "gertukoa" eta "konfiantzazkoa" da, eta merkataritza gune handiek eskaintzen ez dituzten zerbitzu eta baldintzak eskaintzen ditu.

# Sarrerak salgai ekainaren 29an Leo Harlem umoristak Amaia antzokian eskainiko duen emanaldirako



Leo Harlem. | ARRASATEKO UDALA

**J.B.** | ARRASATE

Leonardo Gonzalezek, Leo Harlem ezizenez ezaguna den umorista entzutetsuak, Amaia antzokian bere azken ikuskizuna aurkeztuko du ekainaren 29an: *¿Qué hay de nuevo?*. Bi hilabete luze falta dira oraindik baina Udaleko Kultura Sailak iragarri du sarrerak salgai daudela dagoeneko; interneten eros daitezke: *www.kutxasarrerak.net*.

Kultura Sailak 2012ko urriaren 13an ekarri zuen lehenengoz Estatuan oihartzun handia duen bakarrizketa barregarrien formatua. Orduan David Guapo etorri zen gurera eta Amaia antzokia lepo bete zuen. Ikusleek ederto gozatu zuten Guaporen txantxekin. Hala, *El club de la comedia* telebista saio ezaguneko umoristak apustu segurua direla argi geratu zen orduan.

### Prezio bakarra: 24 euro

Oraingoan ere tankera horretako umorista bat ekarriko dute Amaiara: Leo Harlem. Beraz, pentsatzekoa da sarrerak laster agortuko direla.

Prezio bakarra zehaztu dute antolatzaileek: 24 euro. *¿Qué hay de nuevo?* emanaldiak ordu eta erdi iraungo du, izan ere, Leongo bakarlariarekin batera Sergio Olalla igoko da agertokira. Olallak eskarmentu handia du komediaren munduan; lehenengo bakarrizketak 2002an egin zituen.

# Etorkizuneko etxebizitzen gaineko jardunaldiak Kulturaten, hilaren 10ean

Arizmendi ikastolak antolatuta, eraikuntza eta natura izango dute hizpide aurtengo jardunaldiek

**J.B.** | ARRASATE

XXI. mendeko etxebizitzen gaineko jardunaldiak antolatu ditu Arizmendi ikastolak, zazpigarrenez. Aurten naturaren eta eraikuntzaren arteko erlazioa aztertuko dute. Eraikuntzako eta ingeniaritza arloko enpresak, arkitektura bulegoak, instituzio ezberdinetako teknikariak, instalatzaileak eta alor horretan interesatuta dagoen edonor dago gonbidatuta. Izen-ematea doakoa da: Edurne Erauskin arduradunagatik galdetu behar da, 943 77 20 25 telefonora deituta edo *eraikuntza@arizmendi.ikastola.net* helbidera idatzita.

### Luxuzko gonbidatuak

Aurtengo jardunaldiek ere luxuzko gonbidatuak izango dituzte: Eduardo Rojo arkitekto doktorea eta Gasteizko Udaleko Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen zerbitzuko burua, Mikel Baztan Noain-Elortzibarko Udaleko lorezaina eta Agenda 21eko arduraduna, Iñaki Urquia arkitekto bioklimatikoa, Elena Morales industria ingeniaria eta Juan Antonio Urdangarin Arrasateko Udaleko Hirigintza Saileko arduraduna.

**EGITARAUA**

**EGUBAKOITZA, HILAK 10**

**09:20** Ongi etorria: Inazio Azkarragaurizar alkatea, Alberto Gorroñogoitia LKSeko zuzendaria eta Edurne Erauskin Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketaren arduraduna.

**09:30** Eduardo Rojo: *Paisaia eta hiria*.

**10:15** Mikel Baztan: *Lorezaintza, jendearen bizi kalitatea hobetzeko tresna*.

**11:00** Ekokaleak. Hiri–Altzari Iraunkorraren V. Ideia Lehiaketaren sariak.

**11:45** Iñaki Urquia: *Lastozko eraikin pasiboak*.

**12:30** Elena Morales: *Fatxada eta estalki begetalak: ikuspegi orokorra eta energia ikuspuntutik apunte batzuk*.

**13:15** Mahai ingurua. Moderatzailea: Juan Antonio Urdangarin.

**14:00** Luncha.

# Musakola jaietan murgilduko da erabat aste bukaera honetan

**J.B.** | ARRASATE

Arrasateko auzorik *independenteena* gertu dago astoaren umore onak gidatzen dituen urteko egun politenak bizitzeko. Badatoz Musakolako jaiak.

Auzo alkatetzak eta jai batzordeak bat egin dute ahalik eta egitaraurik osatuena prestatzeko, aurrekontua murriztu egin dieten arren: "Krisia ez da aitzakia izango jai giroa nagusitu dadin", adierazi digu Iban Goñi alkateak. Iaz sartu zen auzo alkatetzan baina oraingoa izan da jaiak antolatzea tokatu zaion lehen aldia: "Jesus Mari Apraizi eta jai batzordeari eskerrik beroenak eman gura dizkiet, eurak barik ezingo nukeelako antolakuntza lana aurrera eraman. Sekulako taldea dago, ez nuen espero horren jende ona egongo zenik".

**Egitarau osoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## OHARRAK

### 1963AN JAIOTAKO HERRITARRENDAKO DEIA

1963an jaio ziren arrasatearrendako deialdia egin dute, 50 urte bete dituztela-eta ospakizun bereziren bat antolatu dezaketen ikusteko. Kajoi tabernan elkartuko dira eguen honetan, maiatzak 9 (19:00). Zenbat jende dagoen ikusteko lehen bilera bat izango da.

### ARRASATE MUSIKALEN OHIKO BATZAR NAGUSIA

Prentsa ohar bidez jakinarazi dutenez, Arrasate Musikalek ohiko Batzar Nagusia ospatuko du eguaztenean, maiatzak 8. Lehen deialdia 18:00etan izango da eta bigarrena 18:30ean. Elkartearen egoitzan bertan egingo da batzarra, hau da, Monterron jauregian.

## Stop atez ate, txip bidezko bosgarren edukiontziarekin

J.B. | ARRASATE

Stop atez atekoa plataformak begi onez ikusten du txip bidezko bosgarren edukiontzia jartzea: "Beti esan izan dugu gure apustua bosgarren edukiontziaren aldekoa dela, frogatuta dagoelako sistemarik garbiena, jasangarriena eta merkeena dela. Hala ere, txip bidezko bosgarren edukiontzia jartzearena ondo ikusten dugu, batez ere bi aldeetako eragileok beharrezkoa dugun akordio puntu horretara iristeko", adierazi du Oscar Garcia plataformako bozeramaileak, prentsa ohar bidez.

Udalari eskatu diote atez atekoa ezartzearen erabakia birplantea dezala: "Bilduk ez badu bere asmoa aldatzen, herritarren gaitzespena izango da atez atekoari alternatiba bat bilatzera behartuko duena. Egoera honekin amaitu beharra dago", diote.

# Ttak Eguna: giro ederra eta gazte asko euskaraz ondo pasatzeko

AEDko Ttak gazte taldeak bigarrenez antolatutako jaian, ia 50 lagun aurten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

AEDko Ttak gazte taldeak antolatuta, Ttak Eguna ospatu zuten zapatuan Arrasateko eta Atarrabiako hainbat gaztek. Izan ere, Atarrabiako Karrikaluze euskara elkarteko gazte taldeak bat egin zuen Ttak taldearen ospakizunarekin, aurrez elkar ezagutzen zuten-eta. Helburua, bi taldeen arteko harremanak sendotzeaz gain, egun pasa eta parranda eder bat egitea, beti ere euskara ahoan dutela.

**Bigarrena ere, jendetsua**

Ia 50 gazte elkartu ziren Ttak Eguna giro ederrean ospatzeko. Iruñea ondotik 13 lagun etorri ziren eta parranda egin ostean horietako batzuk Uarkape pilotalekuan geratu ziren lotan. Iñaki Telleria AEDko kideak pozik zegoen aurtengo ospakizunarekin: "Bigarren urtea izan da aurtengoa eta arrasatearrek oso ondo erantzuteaz gain, Atarrabiako 13 gazteen etorrerak indar berezia eman diote jaiari".

**Amaitzeko, DJ Elvis Caino**

Ospakizuna suziri jaurtiketarekin eta txalaparta eta bertso saio banarekin hasi zuten. Gero "olinpiada ibiltariak" egin zituzten herriko txoko ezberdinetan: Arbolapetan, Olarten, Ferrerias kalean, Erdiko Kalen... Probak, denetarikoak; zapatu iluntzean Arrasateko alde zaharretik ibili zenak igarri zuen zerbait berezia ari zela ospatzen. Poteoa amaitu ostean gaztetxera egin zuten, afaltzeko. 65 bat lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan paella eder batez gozatzeko. Gero, afalostean, DJ Elvis Caino arduratu zen gaztetxea girotu eta egunari amaiera borobila emateaz. Atarrabiako lagunek atzo eguerdian hartu zuten itzulerako bidaia.

Arrasateko euskararen erabilera aztertzen ari den AEDko ekintza taldearendako albiste ona izan beharko litzateke Ttak Egunaren arrakasta, bai horixe.



Ttak egunean parte hartu zuten gazteak, zapatu arratsaldean, Ferrerias kalean. | JOKIN BEREZIARTUA

## 'Nazio egitura eta hizkuntza' saioa etzi, Koldo Zuazoren eskutik

Zuztarrak Errotuz taldeak, Nabarraldek eta Udalak antolatutako Udaberriko Hitzaldi zikloaren barruan, maiatzaren 8an Koldo Zuazo hizkuntzalariak *Nazio egitura eta hizkuntza* izenburu duen hitzaldia eskainiko du. Euskalkiez eta hizkuntzaren garapenaz egingo du berba Zuazok, besteak beste. Kulturaten izango da, 19:00etan.

## Edadetuei ahotsa emateko batzordea eratu gura du PSE-EEk

Hirugarren Adineko Kontseilua eratu gura du PSE-EEk, eurei eragiten dieten erabakietan "modu aktiboan" parte har dezaten. Jose Riviere Abaroa elkarteko presidentearekin egon dira eta, diotenez, Riviere ados dago batzorde hori eratzeko proposamenarekin. Udaleko Ongizate batzordean aurkeztuko dute proposamena.

## Bizkaiko Biraren 15. etapa hilaren 19an, Besaidek antolatuta

Besaide mendizale elkartekoek Bizkaiko Biraren 15. etapa egingo dute hilaren 19an, Areta eta Orozko artean. Izena eman daiteke hilaren 13an, 14an edo 15ean. Interesatuek egun horietan Besaideko bulegora jo beharko dute izena emateko, 19:30etik 20:30era. Bestalde, beteranoen irteera ekainaren 1ean egingo da.

# Willi Nile handia Amaian, maiatzaren 11n

J.B. | ARRASATE

Gaztemaniak ekimenari esker Willie Nile handiak Amaia antzokian joko du zapatuan, hilak 11 (20:00). Sarrera zazpi euro ordaindu beharko da. Willie Nile, New Yorkeko olerkaria, bueltan dator disko berria aurkezteko: *American Ride*. 2012ko udan grabatua, Willie Nilek berak ekoitzi eta zuzendu zuen, Stewart Smithekin batera. Europan barrena –Erresuma Batua, Espainia, Italia...– 2012an bira ikusgarri bat egin ondoren, New Yorkeko musikariak hamabigarren diskoa grabatu du; konposizioen ahalmen handia erakutsi du, rock melodia bikainak –*This Is Our Time*, *Life On Bleecker Street*...– eta balada apartak –*American Ride*– tartekatuz. Azken kantu hori, diskoari izena emateaz gain, 2013ko abesti onenetako bat bihurtuko da, adituen arabera. Lau disko argitaratu zituen 1980 eta 1992 artean; kritika bikainak baina salmenta urriak izan zituen, kultuko artista bat bihurtuta. Nileren aurretik Jim TNT bakarlari arrasatearra igoko da agertokira, Amerikako folk doinuak eskaintzeko asmoz.



Willi Nile musikaria, promoziorako argazki baten. | FURYDAYS.WORDPRESS.COM

## 'Publikoari gorroto' obra, Kooltur-en eskutik

J.B. | ARRASATE

Huts teatroa antzerki taldearen *Publikoari Gorroto* antzezlanarekin bueltan dator Kooltur Ostegunak ekimena. Antzerkiari buruzko hausnarketa jostalari baten moduan hasten da obra, publikoarekiko keinuz eta umorez. Pixkanaka, baina, arimaren barrunbe ilunenak joango dira agertzen: krudelkeria, bortxa, botere-harremanak... Giza izatearen amildegi ertzera iristeko asmoz dator aktorea. Lipus da protagonista nagusia eta beraz, ikuskizuna bermatuta dago. Eguenean, gaztetxean (22:00).

## Justizia soziala aldarrikatzeko elkarretaratzea Portaloian

Apirilean egin moduan, justizia soziala aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuen herritar talde batek joan den eguenean. Eraso sozialen aurrean batzeko deia egin zuten eta aurrerantzean hileko lehen eguenetan elkartuko dira Portaloian, 19:00etan.




MONDRABERRI



DYAko boluntario taldea eta Elortza alkatea, egoitza berria inauguratu zuten egunean. | GOIENA

# Istripuak prebenitzen ikasteko saioak, debalde, DYArekin

Gaur hasi eta barikura arte, hitzaldiak eta tailerrak egongo dira Martokon, parte hartu nahi dutenentzat

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

DYAk *Osasuna eta istripuen prebentzioaren astea* antolatu du, gaur, maiatzak 6, hasi eta 10era bitartean egiteko. Aste horren barruan hitzaldiak eta tailerrak egingo dituzte egunero, 19:00etatik 21:00etara, Martoko kaleko 22. zenbakian duten ordezkaritzan.

Astelehenetik egubakoitzera, egunero hitzaldi edo tailer bat egongo da –ikusi ondoko taula–, debalde, boluntarioen eskutik, eta guztiak arratsaldeko 19:00etan hasiko dira.

**Prebentzioa oinarrizkoa da**

Prebentzioa lantzea ezinbestekoa dela diote DYAko ordezkariek: "35 urte larrialdiez arduratzeak zerbait erakutsi badigu zera da, prebentzioa dela gako nagusia istripuak gutxitzeko eta gaixotasunen agertzea saihesteko". Hori dela eta, 2009. urtea ezkero, DYA Gipuzkoako Irakaskuntza Eskola biztanleria osoari zuzendutako debaldeko jarduerak egiten ari da.

Eskaintza horren barruan, aurten, *Osasuna eta istripuen prebentzioaren astea* deitu dutena egiten ari dira, Gipuzkoan barrena; eta, istripu eta tailerrekin batera, astearen amaieran istripu baten simulazioa ere egiten dute. DYAko ordezkarien nahia da, "ahalik eta pertsona kopuru handienari gaixotasunak eta istripuak saihesten irakastea, eta osasuna eta ongizatea galduta dutenen kasuan, horiek suspertzeko oinarrizko kontzeptuak irakastea".

**Izena eman behar da**

Jarduera guztiak oso parte-hartzaileak izango dira: eduki teorikoez gain, bertaratutakoen testigantzekin eta parte-hartzaile guztien kontsulta eta iritziekin mahai-inguruak egingo dituzte.

Ekitaldiotan parte hartzeko interesa duten herritarrek 943 46 46 22 telefono zenbakira dei dezakete izena emateko –eguneko edozein ordutan–, edo mezua bidal dezakete *irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com* helbidera.

### EGITARAUA

**MAIATZAK 6**

**Hitzaldia: 'Ohiko larrialdiak'**

Egoera horietan izan beharreko jokabideari buruz arituko dira. Besteak beste, miokardioko bihotzekoaz, konbultsioez, zorabioez, traumatismoez, erreduraz eta istripu garun-baskularraz arituko dira.

**MAIATZAK 7**

**Tailerra: 'Hesgailuak'**

Oinarrizko tailerra izango da, eskua, besoa, sorbalda, oina, belauna eta hanka kontuan hartuta.

**MAIATZAK 8**

**Hitzaldia: 'Etxeko istripuen prebentzioa'**

Erredurak, erorketak, intoxikazioak... jorratuko dituzte.

**MAIATZAK 9**

**Tailerra: 'Bihotz-biriken suspertzea'**

Bertaratutako guztiek oinarrizko mugimenduak egin ahal izango dituzte.

**MAIATZAK 10**

**Hitzaldia: 'Zure bihotza zaintzea'**

Bizitza osasungarria eramateko kontuan hartu beharreko alderdi guztiak landuko dituzte.

Hitzaldi eta tailer guztiak 19:00etatik 21:00etara izango dira, Martoko kaleko 22. zenbakian duten ordezkaritzan.

## Beartek ume eta gazteendako margo ikastaroa antolatu du uztailerako

A.B. | BERGARA

Marraztea eta margotzea gustuko duten neska-mutikoek udako oporretan euren zaletasuna lantzen jarraitzeko aukera izango dute aurten ere. Bergarako Artisten Elkarteak pintura eta marrazketa ikastaroa antolatu du ume eta gazteendako. Uztailaren 1etik 24ra bitartean izango dira eskolak, 10:30etik 12:30era. Ikastaroa 6 eta 13 urte arteko neska-mutikoei dago zuzenduta.

Bada, interesa dutenek maiatzaren 31 baino lehen eman beharko dute izena. Eta, horretarako, telefono zenbaki hauetara deitu behar dute: 653 71 53 82 edo 635 71 32 69.

## Asier Altunaren 'Bertsolari' dokumentalak Espiello sarietako bat eroan du ikusleen botoen bidez

Asier Altuna *Kixi*-k beste sari bat jaso du *Bertsolari* dokumentalarekin. Sobrarbeko (Huesca) Dokumental Etnikoen Nazioarteko XI. Jaialdian saritu dute; zehazki, *Espiello Boltaña* deritzon saria jaso du; hau da, ikusleen saria. Gainera, epaimahaiak aipamen berezia egin zion Altunaren lanari, "bere estetikagatik, baserri-giroko balioak ingurune urbanora hurbiltzeagatik, belaunaldien arteko transmisioagatik eta emakumea balio horietan guztietan integratzeari garrantzia emateagatik".

## Gaur, astelehena, zabalduko dute uztaileko udaleku irekietan izena emateko epea

Gaur, astelehena, zabalduko dute uztaileko udaleku irekietan izena emateko epea. Uztailaren 1etik 19ra izango dira udaleku irekiak, 10:00etatik 13:00etara, eta 2001-2010 urte artean jaiotako haurrek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko epea maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik, eta, horretarako, kultura etxera jo daiteke, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara, eta *www.bergara.net* webgunean ere egin daiteke. Aurten ere Jardunek kudeatuko ditu udalekuok.

## Eneko Ibañez eta Iraide Birunbrales dira Pazkoetako aurtengo zapiaren egileak

Ibañez irudiaren egilea da eta Birunbrales, leloarena; ohi bezala, Pazkoetan jarriko ditu salgai zapiak Jardunek, eta pegatinak ere aterako dituzte

M.B. | BERGARA

Jardun elkarteak dagoeneko aukeratu ditu aurtengo Pentekoste jaietako zapiaren irudia eta leloa.

Aurkeztutako lan guztien artean Eneko Ibañezen irudia da Jarduneko kideei gehien gustatu zaiena: "Jasotakoen artean konpletoena da. Irudi bakarrean jaietako elementu asko batzen ditu: musika, suziriak, erraldoiak, ikurrina...", esan dute Jarduneko ordezkariek.

Irudiarekin batera, zapian joango den leloari dagokionez, Iraide Birunbralesek sortutako hau aukeratu dute: *Giroaz gozatu euskaraz mintzatuz*. "Jaietarako oso egokia izateaz gain, egoera askotan da oso egokia lelo hori", esan dute Jardunetik, eta horregatik aukeratu dute.

Euskara elkartetik argitu dutenez, aurreko urteetan ez bezala, bitan banatu dute aurten saria: irudia saritu dute, batetik, eta leloa, bestetik: "Jasotako lanetako bateko irudia gustatu zitzaigun, eta beste bateko leloa. Hortaz, bitan banatzea erabaki genuen. Hala, 60 euroko sari bakarra barik, 40 euroko bi banatu ditugu aurten", azaldu dute.


Eneko Ibañezen irudia. | ENEKO IBAÑEZ

1.300 zapi jarriko dituzte salgai, Pentekoste jaietako egubakoitzean eta zapatuan, San Martin plazan jarriko duten postuan, 3 eurotan. Horrez guztiaz gain, herriko tabernetan eskuratzeko aukera ere egongo da. Bestalde, 2.000 pegatina inguru aterako dituzte.

**Goitibehera lehiaketa jaietan**

Maiatzaren 19an, Pazkoetako domekan, goitibehera lehiaketa jokatuko da San Martzialerako maldan, aurten laugarren aldiz.

Interesa duten guztiek har dezakete parte, 679 31 62 72 edo 943 76 07 47 zenbakira deituta (Irene). Izena emateko azken eguna maiatzaren 13a da.



Mutiko koadrila bat buruhaundien aldamenean. | JAGOBA DOMINGO

# Umeen taldea sortzeko asmoz ate irekiak egin zituen Erraldoien Taldeak

Bi erraldoi txiki egiten ari da Mikel Ibarzabal eta Pentekoste jaietan aurkeztuko dituzte

A.B. | BERGARA

Zabalotegiko frontoia erraldoiz bete zen pasa den eguaztenean gaztetxoen gozamenerako. Bertan lau erraldoi handi, bi ertain eta lau txiki egon ziren ikusgai. Erraldoien Taldeak umeen taldea osatu nahi du, harrobia sendotu eta zaletasuna sustatzeko. Bada, helburu horrekin ate irekien jardunaldia egin zuten eguaztenean.

Arazo txiki batzuk tarteko, nahi baino erraldoi gutxiago egon zirela azaldu digu Zigor Uleirok. Izan ere, hasierako asmoa zen jaietan aurkeztuko dituzten bi erraldoi txiki berriak Zabalotegira eramatea. Mikel Ibarzabal bergararra ari da erraldoiok egiten. Elhuyar anaiak izango dira; Bergarako historiaren parte izan diren zientzialariak. Bada, bergararrek Pentekoste jaiak heldu arte itxaron beharko dute bi erraldoi berriak ezagutzeko.

Antolatzaileak pozik zeuden jardunaldiak emandakoarekin eta gazteak Erraldoien Taldean parte hartzera animatuko direla espero dute.



IÑIGO ALKORTA

## Labegaraietan, jai usainean

Auzoko jaiak ospatu zituzten maiatzaren 1ean Labegaraietan. Goizean meza egin zuten auzoko elizan eta ondoren salda eta txorizoa banatu zituzten auzotarrendako. Arratsaldean, berriz, jolasak egin zituzten neska-mutikoendako eta baita txorimaloak ere. Barrua berotzeko, txokolatea ere banatu zuten. Arratsaldeko ekintza batzuk tenis karparen azpian egin zituzten, tarteka euria egin zuelako.

**Aitor Aranzabal** | Liburuaren egilea

# "Badugu parekotasunik, libre izan nahi eta preso bukatu"

- Michele Angiolilloren gaineko liburua idatzi zuen Arantzabalek espetxean
- Datorren zapatuan auzolanean inprimatuko dute Bergarako gaztetxean

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Laster ikusiko du argia Aitor Arantzabalek, espetxean egon zenean, idatzi zuen Angiolilloren gaineko liburuak. Auzolanean inprimatuko dute datorren asteburuan eta ekainaren 14an aurkeztuko.

**Nolatan Angiolilloren gaineko liburua egiten?**

Orain dela hamabost bat urte, beste lau gazterekin batera, informazioa batu eta Angiolilloren inguruko liburuxka bat idatzi behar genuela pentsatu genuen. Koldo Izagirrerekin egon ginen, orduan idatzi berri zuen *Nik ere germinal! Egin gura nuen aldarri* eleberri zoragarria. Bergarako gaztetxera etorri zen, eta poltsa handi batean Angiolilloren inguruko material piloa ekarri zigun. Momentu horretan ez genuen fundamentu handirik atera eta proiektua hor gelditu zen. 2008ko otsailean, nire jarduera eta lan politikoarengatik, kartzelaratua izan nintzen. Denbora asko nuela-eta, garai batean utzi nuen eginbehar horri heldu nion.

**Zergatik Angiolillo?**

Michele Angiolillo anarkista italiarra, ahaztutako pertsonaia garrantzitsua da. Angiolillo moduko pertsonei tarte txikia eskainiko die historiak, nahiz eta bere ekintzarekin historiaren norabidea nabarmen aldatu. Zor pertsonala nuela uste nuen.Kultura politiko desberdinetatik gatoz, baina gure mugimenduek badute parekotasunik: duintasuna, konpromisoa… libre izan nahi eta preso bukatu.

**Zer topatuko dugu liburuan?**

Saiakera da, ez ikerketa sakona egin dudalako; alderantziz, saiakera da asko saiatu naizelako.



Aitor Arantzabal. | A. BARRUSO

### "Jendarte aske bat eraiki nahi zuen ameslari baten azken estazioa da"

Liburuxka hau ez da eleberri on bat; ez naiz idazlea. Akatsak topatuko dituzu, idazle bezala trasgresio ugari aurkituko dituzu, lizentzia bereziak hartu ditut. Zer aurkitzea nahi dudan? Militante kontsekuente baten nondik norakoak. Jendarte eredu aske bat eraikitzea nahi zuen ameslari baten azken estazioa. Utopia egingarria dela aldarrikatzea.

**Informazioa nondik jaso duzu?**

Iturri nagusiena Koldo Izagirrek eman zigun poltsakada paperak osatu dute. Kanpotik neskalagunak, Maittanek, eta beste lagun batzuek bildutako informazioa. Liburuan bibliografia aipatzen dugu, liburu asko irakurri ditut; webgune askotatik ateratako informazioa sartu zidaten espetxera. Atal honetan geldiunetxo bat egitea merezi du. Euskal preso politiko guztiek komunikazioak interbenituta dauzkate; fotokopiatutako apunteak eta materialak debekatuta daude paketeetan; hilean behin, aurrez aurreko bisitak aprobetxatzen genituen materialak sartu eta ateratzeko, ezkutuan eta harrapatu ezkero zigorra jasotzearen mehatxupean –isolamendua, sei hilabete aurrez aurreko gabe, espetxe aldaketa…–. Baldintza horretan idatzi genuen liburuxka.

**Angiolilloren bizitzan zerk harritu zaitu gehien?**

Atxilotzeari, epaiketari, espetxeari, zigorrari eta azkenik urkamendiari nolako heldutasun eta osotasunarekin aurre egin zien. Ihes egiterik bazuen, erruki eskatzea ere bai, baina dotoretasuna, duintasuna eta konpromisoa azken momentura arte aldamenean izan zituen. Ideia anarkistengatik borrokatu zuen azken hatsa eman arte.

**Auzolanean egindako liburua da.**

Hemen protagonista bakarra dago: Angiolillo. Guk errazena egin dugu, hark egindakoa jarraitu eta paperean batu. Auzolanean egin dugu, bai. Elkarrizketan zehar aipatu ditut, hasieran ernamuina izan ziren lau gazteak, Koldo Izagirre, gaztetxea, neskalaguna, koadrila eta familia, baita despistatutako funtzionarioa ere, zergatik ez, Angiolillo Liburutegia… Oso modu xumean inprimatuko dugu Gasteizko Irrintzi inprimategian eta muntatu geuk egingo dugu. Zapatuan izango da hori, gaztetxean, Angiolillo Liburutegia dagoen ziegan. 12:00etan hasiko gara eta nahi duen guztia etor daiteke.



GOIENA

## Infantil mailako Gipuzkoako txapeldunorde

Bigarren urteko infantilen mailako saskibaloi txapelketaren lauko finalak jokatu ziren aurreko asteburuan Urretxun. Bergarako mutilek lan bikaina egin zuten eta bigarren postuarekin amaiera borobila eman diote denboraldiari. Finalerdia irabazi egin zuten Easoren aurka (41-36). Finalean, ordea, Goierriren aurka galdu zuten (71-62). Bergararrak pozik itzuli ziren etxera, galdu arren finalean gozatu egin zutelako.

# Fosilen erakusketa-jolasa antolatu dute, Txandako dendak ezagutzeko

## Txandako 34 erakusleihoetan, turismo bulegoan eta Arrikrutzen egongo dira fosilak bihartik aurrera

**IMANOL GALLEGO** | OÑATI

Aurreko urteko mineral erakusketak izandako arrakastaren ostean, aurten fosilak hobeto ezagutzeko erakusketa-jolasa antolatu dute Arrikrutz-Oñatiko kobak eta Txanda merkatarien elkarteak. Maiatzaren 7tik 18ra 34 fosil jarriko dituzte Oñatiko dendetako erakusleihoetan.

Arrikrutz-Oñatiko kobak eta Txanda merkatarien elkarteak elkarlanean antolatutako egitasmoa da. Fosilak ezagutaraztearekin batera, jolas baten bitartez jendeak herriko dendak ere ezagutuko ditu. Txandako kide den Amaia Igartuaren hitzetan, "Honelako ekintzek, Oñatiko dendek eskaintzen dugun guztia erakusteko balio digute". Ander Moraza Arrikrutzeko gidak ere antzerako iritzia dauka: "Geologiarekin zerikusia duten gauzak ikasteaz gain, jendeak Oñatiko dendek eskaintzeko duten guztia ezagutzeko modua izaten dute".



Ander Moraza, Amaia Igartua eta Josu Lizarralde, aurkezpenean. | I.G.

### Kartoia bete

Ume eta helduek parte har dezakete jolas horretan. Txandako dendetan, Arrikrutzen eta Turismo Bulegoan kartoi batzuk egongo dira eskura, eta kartoi hori beteta entregatu behar da hilaren 18a aurretik Turismo Bulegoan edo Arrikrutzen. Bete beharreko galderak dendetako erakusleihoetan ikusgai egongo diren fosilen inguruko galderak dira. 34 dendez gain, turismo bulegoan eta Arrikrutzen ere fosil bana egongo da; 36 fosil guztira. Gutxienez 35 fosilen galderak erantzunak jaso behar dira kartoian. Erantzunak, baina, erraz topatzekoak dira, fosil bakoitzaren ondoan berari buruzko informazioa jasotzen duen testu bat egongo baita. Galderei erantzun ondoren, jokalariak hamar dendetako zigiluak lortu beharko ditu kartoiari balioa emateko. Zigiluez gain, erantzun orriko galdera guztiak ongi erantzuten dituztenek lepotik zintzilik eramateko marrazo baten hagin bat izango dute opari. Horrez gain, Madagaskarreko zuhaitz baten enborraren fosil baten zozketan hartuko dute parte. Parte-hartzaile bakoitzak kartoi bakarra aurkeztu ahal du. Urretxuko Urrelur museoak utzitako fosilak dira ikusgai jarriko dituztenak.

**DATUA**

**10**

DENDATAKO ZIGILUAK

Kartoiak balioa izateko, Txandako 10 dendatako zigiluak lortu behar dira.

# Turkian egon dira Urgaineko bost ikasle

Turkian egon ziren apirilaren erdialdean Urgaineko DBH3ko bost ikasle eta bi irakasle. Comenius programaren *Eager to Learn, Eager to Share* izeneko proiektuaren barruan kokatutako elkartrukea izan da. Ankaran egin zuten egonaldia, eta hango institutu bat ezagutzeko ere aprobetxatu zuten bidaia.



URGAIN


Apirilaren 30ean enpresariek eta Udalak egindako bilera. | RUBEN CUESTA

# Enpresen ahalmenak eta gaitasunak aztergai

## Teknologia, produktu eta merkatu alorrean egingo dute azterketa herriko enpresetan

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateak eskualdeko diagnosi sozioekonomikoa eta industri garapenerako proiektu posibleen azterketa egin zuen udazkenean. Bada, Oñatiko Udalak herriko enpresa nagusienetan aurkeztu ditu bi txosten horien emaitzak. Herriko 20 langiletik gorako enpresa guztiak bisitatu dituzte udal ordezkariek eta garapen industrialerako perspektibak ere aurkeztu dizkiete.

Lehenengo fasea bukatuta, orain bigarren fasearekin hasiko dira Oñatin. Joan den martitzenean egin zuten batzarrean hurrengo fasea nondik nora abiatu eta egin behar dituzten urratsak zeintzuk izango diren zehaztu zituzten enpresetako eta udaleko ordezkariek. "Orain arte ehun industriala aztertu badugu, hurrengo urratsean herriko gaitasun eta ahalmenak aztertuko ditugu teknologia, produktu eta merkatu arloetan. Kanpo enpresa baten laguntza izango dugu horretarako. Enpresa bakoitzari bi orduko dedikazioa eskatuko zaio, eta udalak finantziatuta egongo da lan hori", azaldu du Josu Lizarralde sozioekonomia zinegotziak. Aste honetan hasiko dira azterketa hori egiten eta abuztua aurretik bukatu gura dute. Udalak, 75.000 euroko partida bat gorde du aurrekontuetan garapen endogenoan oinarritutako tokiko garapenera bideratzeko. Bestalde, Udalak, eskerrak eman gura die bileretan parte hartu duten enpresei, garai hauetan elkarlanean aurrera egiteko erakutsi duten prestutasunagatik.

### Hondakinen gaikako bilketa sistemaren argibideak emateko bilerak hasiko dituzte gaur, astelehena

Hondakinen gaineko bilketa sistemaren inguruko argibideak eta informazioa emateko bilerak egingo dituzte gaurtik hilaren 15era bitartean. Herritarrendako, landa gunean bizi direnendako eta merkatariendako izango dira, eta euskaraz, gazteleraz eta zeinu hizkuntzan egingo dituzte. Lehen bilera gaur, astelehena, egingo dute, 19:00etan ETEOko eraikin zaharrean.

### Garaiko elikaduraz berba egingo du bihar Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak Pake Lekun

*Gure garaiko elikadura* izeneko hitzaldia egingo du bihar, martitzena, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak. Pake Lekun izango da hitzaldia, 17:30ean. Zer jaten dugun, nola jaten dugun, eta elikadurak duen garrantziaz jardungo du, besteak beste, Diaz de Monasteriogurenek. Hitzaldia Pake Leku erretiratuen elkarteak antolatu du baina herritar guztiendako egongo da zabalik. Dietistari galderak egin ahal izango dizkiote joaten direnek.

### Zapatuan Senperen egingo den Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du Txantxiku Ikastolak

Zapatuan, hilak 12, egingo dute aurtengo Herri Urrats festa Senpereko lakuan, eta Txantxiku Ikastolak autobusa antolatu du. Goizeko 08:00etan aterako da postetxe aurreko autobus geltokitik, eta 19:00etan Senperetik. Joan gura duenak ikastolako bulegoan eman behar du izena. Prezioa da 12 euro eta apuntatzeko azken eguna, maiatzak 9. 18 urtetik beherakoek gurasoen baimena beharko dute eta nagusi batekin joan beharko dute.

ESKORIATZA

# Atxorrotzeko indusketa lanen V. kanpaina abian

- Indusketa lanak berriz ere martxan izango dira aurten Atxorrotzen
- Lanak egiteaz gain, bisita gidatuak eta bilerak izango dira maiatzean

ANE ETXEBERRIA | ESKORIATZA

Apirilaren 29an hasi zuten Atxorrotzeko indusketa lanen V. kanpaina, baina maiatza osoan eta ekaineko egun batzuetan lanean egongo dira Iñaki Sagredo eta bere taldea.

Besteak beste, honako lanak egin nahi dituzte: arkeologia lanak, ekialdeko harresiaren kokapena zehaztea eta ermitako teilatuaren sendotze lanak. Gainera, auzolanerako beharra egongo dela uste dute.

Domekan Atxorrotzeko eguna ospatu zuten. Eguerdiko 12:30ean bisita gidatua egin zuten Iñaki Sagredoren eskutik, eta aurreko kanpainetako lanen berri emateaz gain, aurten egingo direnak azaldu zituen bertan. Halaber, maiatzaren 7an, martitzena, arratsaldeko 19:00etan, Ibarraundi Museoan, bilera egingo dute auzolanean aritzeko interesa daukatenekin, egin beharreko lanak antolatzeko asmoz.


Indusketa lanetan, Atxorrotzen. | GOIENA

**Aurkikuntzak**

Eskoriatzako Bolibar elizatean dago kokatua Atxorrotz, Aizkorri-Aratz Parke Naturalean. Natur aberastasun izugarria eta paisaia aniztasun handia dago bertan. Hau da, biodibertsitatearen ikuspuntutik eremua oso interesgarria da, bertako animalia eta landare babestuak asko direlako.

Hala ere, paraje natural horretan benetan gailentzen dena Erdi Aroko gotorlekua da, gaur egun, Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa dena. Iaz, Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu zuen.

60ko hamarkadan, Bolibarreko apaiza zen Cruz Albarrategik armen aztarnak eta Felipe II.aren eta Alfontso XII.aren garaien arteko txanponak aurkitu zituen. 1968 eta 1970 artean Ignazio Barandiaranek gazteluaren esparru nagusiko mendebaldea eta ekialdea aztertu zituen. Azterketaren emaitzak oso interesgarriak izan ziren, geruza desberdinen artean objektu mota asko atera zituelako. Besteak beste, txanponak, armak eta Erdi Aroko eta Aro Garaikideko aztarnak. 2009tik hona, Iñaki Sagredoren eskutik, Larrate taldea dabil arkeologia eta dokumentatze lanetan, Atxorrotzen Erdi Aroan zegoen gaztelua berreskuratzeko eta dokumentatzeko helburuarekin. Aurten ere horretan dabiltza.

ARETXABALETA

## 'Gu ere harrera familia gara' hitzaldia eta dokumentala

A.E | ARETXABALETA

Eguaztenean, hilak 8, hitzaldia eta dokumentala izango dira Zaraian, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Esther Fernandez eta Maite Eliasek hitzaldia emango dute eta ondoren dokumentala ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek.

"Gaur egun, oraindik ere, harrera familiaren baliabidea ezezaguna da gizartearentzat. Aldi berean, ordea, gero eta gehiago dira, zenbait arrazoi tarteko, haurrak babesteko baliabideren batean parte hartu behar duten neska-mutikoak, familia naturalaren egoeraren ondorioz, horrek dakarren guztiarekin". Gai honi buruzko informazioa zabaldu eta gizarteratzeko asmoz egin dugu dokumentala. Bertan familia desberdinen bizipenak eta gaiari buruz duten ikuspuntua islatu nahi izan dute egileek.

Dokumentalaren egitura Euskal Herriko errealitate eta gune desberdinetako familiei egindako elkarrizketetan oinarrituta dago. Bideoak, gurasoen, anai-arreben eta harrerako haurraren inguruan bizi diren gainerako pertsonen esperientziak ezagutarazten ditu. Dokumentala euskaraz da.

ARETXABALETA

## Zigorren eta txertoen inguruko hitzaldiak izango dira hurrengo bi asteetan

A.E | ARETXABALETA

Aretxabaletako Kuku Miku elkarteak bi hitzaldi antolatu ditu maiatzerako. Aurrena zigorrak izango dituzte hizpide, eta hurrengoan txertoen gainean egingo dute berba.

Aurrenekoa gaur, astelehena, izango da, 17:30ean hasita. Nerea Mendizabal psikopedagogoak eskainiko duen *Ez dut zigortu nahi!* berbaldiak gurasoek haurren portaeraren aurrean izaten duten jarrera aztertuko du.

Bigarren hitzaldia, berriz, maiatzaren 14an izango da eta osasun gaiak landuko dituzte orduan. Hain zuzen ere, txertoak izango dituzte ardatz 18:00etan hasiko den hitzaldian. Gaztelaniazko saioa izango da.


Martin Garitano ahaldun nagusia. | GOIENA

ESKORIATZA

## Martin Garitano ahaldun nagusia Eskoriatzan izango da eguenean

A.E | ESKORIATZA

Eguen honetan osoko bilkura egingo du Eskoriatzako udalbatzak, baina oraingoan gonbidatu berezi bat izango da bertan. Izan ere, Aldundiko ordezkariak izango dira aretoan, Martin Garitano ahaldun nagusia buru dela.

Aldundiaren eta herritarren arteko komunikazioa landu eta herrietako errealitatea bertatik bertara ezagutzeko asmoz egingo dute bisita hau. Aldundiak ongi ezagutu nahi ditu herri bakoitzeko arazoak eta errealitateak, herritarrekiko komunikazioa eta gertutasuna garrantzitsuak baitira bere ustez. Herritarrekin ere bilduko da, herriko kontuetaz jarduteko.

Arratsaldeko 18:30etik aurrera, herritarrekin batzar irekia izango da; hortaz, interesa duten guztiek aukera bikaina dute eguenean Aldundiko ordezkariei euren kezka, galdera eta hausnarketak helarazteko.

**Herriz herri, komunikatzen**

Eguenean Eskoriatzan izango da, baina aurretik beste hainbat herritan ere izan da. Iaz, aurrekontuak aurkezteko hainbat hilabetetan agerraldiak egin zituzten. Orain, tokian tokiko beharren eta politiken inguruan udalak zein lan egiten dabiltzan jakingo dute bertatik bertara.

ESKORIATZA

## Mendia protagonista hilabete honetan

A.E | ESKORIATZA

Hilabete honetan mendia izango da protagonista; izan ere, hainbat ekimen antolatu dituzte mendiaren inguruan, besteak beste, eskalada eta irteera gidatuak. Aste honi begira, hainbat kontu daude: martitzenean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera eskalada jaialdia izango da kiroldegian. Bi mailatan banatuko dituzte partehartzaileak: alde batetik, 10 urtetik 18ra bitartekoak eta, bestetik, 18tik gorakoak. Eguaztenean, berriz, eskalada kalera aterako da, hau da nahi duen orok, aldez aurretik izena ematen dutenek, eskaladaz disfrutatuko du. Domekan, azkenik, 9:30etik aurrera irteera gidatua izango da Tantadui hariztira. Ibilbide honen iraupena bi ordu eta erdikoa da.

ESKORIATZA

## Gurasoen elkargunea sortu nahian dabiltza

A.E | ESKORIATZA

Udaleko Gazteria Zerbitzuak eta MUko Hazitegi ikerkuntza guneak 0-6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei eta epe laburrean guraso izan nahi dutenei zuzendutako elkargunea sortu nahi dute. Hainbat bilera egingo dituzte Huheziko Hazitegi egitasmoko kideek kudeatuta.

Lau saio aurreikusten dira hemendik eta udara arte; saioak izango dira eguaztenetan, 18:00etatik 19:30era, Ibarraundi museoan.

Hausnarketa gune horren helburua da haurtzaroan sakontzea, umeen garapenaren inguruan dakitena partekatzea eta beraientzako onena izan daitekeenari buruz pentsatzea. Gehienez, hamar pertsonako taldeak onartuko dituzte.

ESKORIATZA

## Bernabe Errasti eskoriatzarrak 103 urte bete ditu

Zapatuan, maiatzaren 4an, 103 urte bete zituen Bernabe Errasti eskoriatzarrak. Urte asko dira eta denok ez ditugunez horrenbeste betetzen, gaur, maiatzak 6, omenalditxoa jasoko du. Udaleko arduradunak eta Olazar jubilatuen elkarteko ordezkariak bertan izango dira senideekin batera. Zorionak Bernabe!



Ramon Ajuria alkatea, Lierni Altuna zinegotzia eta Antonio Elejalde Azkoagako alkatea, egubakoitzeko agerraldian. | GOIENA

ARAMAIO

# Untzilla eta Zabola bideari dagokionez, herritarrak aintzat hartzeko eskaera

## Bide tarte hori konpontzeko konpromisoa hartu zuen Adifek; helegiteak aurkezteko egun gutxi eskaini izana salatzen dute Udalak eta bizilagunek

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Aramaioko Udalak Adif erakundeari egindako eskaerak kontuan hartzea exijitu dio Untzila eta Zabola auzoen arteko errepidea konpontzeko orduan. AHTko lanen ondorioz Arrasatera doan A-2620 errepide nagusia itxi izanaren ondorioetatik dator arazoa: "Alternatiba moduan, bide bat utzi genien eta hura egokitu zuten. Gastu horiez gain, 36.973 eurotan zenbatu zuen Udalak bestelako lanen kostua eta faktura guztiak Espainiako Sustapen Sailari eta Adifi bidali genizkion. Oraindik ez dugu ezer kobratu", azaldu zuen Ramon Ajuria Aramaioko Alkateak egubakoitz goizean Gasteizko Ciudad de Vitoria hotelean egindako prentsa agerraldian. Haren ondoan egon ziren Lierni Altuna zinegotzia eta auzokide kaltetuen izenean agertu zen Antonio Elejalde Azkoaga auzoko alkatea.

Baina hori ez da arazo larriena, Ajuriaren arabera. Bidea egokitzeko lan horiek presaka egin ziren eta arazoak sortu dituzte gero. Negua gogorra izan da eta hainbat lurjausi izan dira Aramaioko puntu ezberdinetan. Adifek hori guztia konpontzeko konpromisoa hartu zuen eta oinarrizko proiektua aurkeztu zuen. Aramaioko Udalak proiektua ezagutzen zuen baina hobekuntza batzuk planteatu zizkion. Horretarako Ingek ingeniaritza enpresak egindako txostena erabili du oinarri moduan. Bertan, akats ugari zerrendatu zituen eta horiek konpondu behar dituztela beharrezkotzat ikusten du Udalak.

> ESANAK
>
> **"Helegiteak aurkezteko 15 egun gehiago eskatu dizkigu Gobernuari"**
>
> **"Adifek eragozpenak gutxitzeko ahalegina egin behar du"**
>
> RAMON AJURIA | ARAMAIOKO ALKATEA

**Epea luzatzeko eskaera**

Apirilaren 26an udaletxean idatzi bat jaso zuten. Idatzi horrek, oinarrizko proiektu hori onartuta zegoela iragarri eta alegazioak aurkezteko 15 eguneko epea zutela azaltzen zuen: "Herritarrak kontuan hartzea nahi dugu eta horregatik helegiteak aurkezteko epea 15 egun luzatzea eskatu diogu Madrilgo Gobernuari. Kaltetuei kalte-ordainak ematea ere eskatzen dugu. Adifek eragozpenak gutxitzeko ahalegina egin behar du eta batez ere, eremu pribatuetara joan-etorriak bermatu behar ditu", gaineratu zuen.

Azkenik, gogora ekarri dute aramaioarren gehiengo zabala azpiegitura horren kontra agertu arren, haren ondorio guztiak eurak jasan dituztela.

LEINTZ GATZAGA

# Aldaketak izango dira, hondakinen bilketa sistemarekin lotuta

## Herrirako pentsatutako konpost-guneetako bat kendu eta bakarra lagako dute

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Hondakinak batzeko sistema berriaren barruan, konposta egiteko bi gune egokitzea pentsatuta zeukan Gatzagako Udalak: goiko konpost-gailu komunitarioa Errosarioko aparkalekuaren izkinan, eta behekoa eskola eta Leintzargiko instalazio artean. Bada azken hori bakarrik egokituko dute. Eta gainera, hasieran pentsatutakotik desberdin. Izan ere, Sakanan (Nafarroa) dagoenaren antzerako bat egokitu gura dute.

**Leku txikiagoa**

Labur esanda, konpartimenduz osatutako txabola bat egokitu gura dute, konpost-gailu erraldoi bat duena. Lehenagoko gunearekin alderatuta, toki txikiago batean familia gehiagori zerbitzua emateko bidea eskaintzen du. Eta, herri osoari emango dio zerbitzua. Erabilera librekoa izango da, gainera. Hau da, ez da izango ez egun eta ezta ordu zehatzik ere organikoak eramateko, eta ezta giltzarik beharko ere. Hori bai, Udal langile batek jarraipena egin eta bera arduratuko da konpostaren prozesuaz. Auzoetan-eta ezarri behar diren ekarpen-guneei dagokienez, berriz, bere horretan segituko dute. Bestalde, gogoan izan etzi, eguaztena, informatzaileak izango direla, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, udaletxean.

ELGETA

# Hurrengo mendi irteera Sarako eta Etxalarko usategietatik igaroko da

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Elgetako Kantsatzeke mendi taldeak prest du maiatzeko irteera. Hilaren 12an, domekan, egingo dute txangoa; Lizarrieta, Atxuria (756 m), Lizarrieta. Bortziri eta Xareta inguruan ibiliko dira, beraz.

Antolatzaileek sei bat orduko ibilbidea iragarri dute, eta, jakinarazi dutenez, Sarako eta Etxalarko usategietatik igaroko dira. 08:00etan abiatuko da taldea Elgetatik, eta Lizarrietaraino autoz joango dira.

**Izen-ematea zabalik**

Interesatuek udaletxean edo *kantsatzeke@gmail.com* helbide elektronikoan eman behar dute izena hilaren 9a baino lehen. Prezioa 10 euro da. Diru hori garraio gastuak ordaintzeko erabiliko dute.



Mendi taldeak, iaz, Intzako Dorrera egindako irteera. | KANTSATZEKE MENDI TALDEA

### Udalak peoia kontratatu gura du hiru hilabeterako; interesatuek gaur dute izena emateko azken eguna

Langile horren egitekoak izango dira belarra mozten, bide bazterrak garbitzen edo kaleko altzari berriak ipintzen laguntzea... Jardunaldi osoko kontratua iragarri du Udalak, 1.661,43 euroko soldata gordinarekin. Interesatuek udaletxean eman behar dute izena, eta gaur, 12:00etan, amaitzen da horretarako epea. Kontuan hartuko dituzte langabezia prestazioa jasotzen ez duen langabea izatea, euskara maila, erremintak erabiltzen jakitea, Elgeta ezagutzea eta esperientzia.

ANTZUOLA

# Bertso jaialdia izango da egubakoitz honetan

**ANE ETXEBERRIA** | ANTZUOLA

Bertsolaritzak zale asko ditu herrian; horren erakusle da herrian antolatzen diren ekintza desberdinetan izaten duen protagonismoa. Hil honetan ere bertsolaritzak ez du hutsik egingo, egubakoitzerako bertso jaialdia antolatu baitute Sasibertsolari taldeko kideek.

Saioa Torresoroan izango da, gaueko hamarretan hasita. Agin Rezola, Aitor Sarriegi, Jokin Uranga, Uxue Alberdi eta Aitzol Iturbe antzuolarra arituko dira jendaurrean bertsoak botatzen. Gai-jartzaile lanetan, aldiz, Iraia Gabilondo arituko da. Hortaz, herrikideak oholtza gainean nola dabiltzan ikusteko aukera paregabea izan daiteke ostiralekoa.



Sasibertsolarixak, bertso jaialdiaren antolatzaileak. | GOIENA.

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




### Ninika Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10 deskontua artikulu guztietan.

### Alzu, S.L
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10 beherapena.

### Naren Fisioterapia Zentroa
Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta

- %15 zerbitzu guztietan.

### Esko Sport
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.

### Jaixak
Barrenkale - Bergara

- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburuetan izan ezik.

### Estacion Servicio Arrasate
San Andres 7 - Arrasate

- % 2 gasolindegian erregaia erosita.
- % 2 dendako produktuetan.

### Begiondo Optika
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.

### Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea
Torreauzo Auzoa 10 - Oñati

- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoan) eta kartan.

### Gahir Fisioterapia/Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza

- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

### Gaes
Otalora 18, Arrasate
Zurradero 10 Bergara

- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

### Multiopticas
Juan Carlos Guerra, 1 behea – Arrasate
Ibargarai, 16 Bergara

- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

### Arrikrutz Kobak
Araotz Auzoa - Oñati

- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.

### Imprespal, C.B Imprimategia
Komenio 2 - Bergara

- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.

### Kuttuna Estetika
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza

- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik

### AQUARIUM
Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.

### Oñati Garajea
Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.

### Biotika
Iturriotz 21 - Arrasate

- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.

### Caravanas Oñate
Otadui Zuhaiztia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketa egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.

### Guztiz Eder
Kalebarria 29
Oñati

- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.

### Lilura Edertze Institutua
Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

### Argia
www.argia.com

- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.

### Txuri Urdin izotz pista
Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jaiegun, jaiegun bezpera edo oporraldia.
** Ez bada zubia edo oporraldia.

### Lastai
Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz

- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atseden arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.



## Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

# KIROLA



Ilarak egin ziren apuntatzeko; 123k Internetez egin zuten. | O.E.


Abiatu ziren txirrindularien %80 federatuak ziren. | JOSETXO ARANTZABAL



Lainopean eta tropelean igo zuten Udana mendatea txirrindulariek. | JOSETXO ARANTZABAL

ZIKLOTURISMOA

## Aspanogiren aldeko martxan 244 txirrindularik hartu zuten parte

### Sei mendate eta hiru bailara zeharkatu zituen ibilbidea egin zuten, 105 kilometro guztira

OIHANA ELORTZA | BERGARA

244 txirrindulari atera ziren atzo, domeka, goizean Bergarako Lokatza txirrindulari eskolak antolatutako martxa zikloturistan. Kirola egiteaz gain, bazuen beste mezu bat atzoko martxak: Aspanogi elkartearen aldeko irteera zen. Gipuzkoako haur minbizidunen gurasoen elkartearen aldekoa, alegia. "Gipuzkoatik ez ezik, Bizkaitik ere etorri dira eta bakarren bat baita Burgostik ere. Urtetik urtera jende gehiago etortzen da eta aurtengo harrerarekin oso pozik gaude. Martxak badu elkartasun mezua, eta kirolariek ondo erantzun diote", esan du antolakuntza lanetan ibili den Unai Asurmendik.

**Sei mendate**

Bergarako Agorrosin kirol gunetik atera ziren txirrindulariak, 09:00etan, eta Oñatirako bidea hartu zuten. Pedalka, Udana, Aztiria, Barbari, Liernia, Mandubia eta Elosuko gainak bizikleta gainean pasa ondoren, 13:00ak baino lehen ziren lehenengoak bueltan Agorrosinen. Barbariko jaitsiera zen ibilbideko puntu beltzetako bat, obratan ari direlako eta bidea estua delako, baina ez zen arazorik izan. "Egia esan ez dugu arazorik izan zirkulazioarekin, oso ondo egin dugu buelta", zioen amaieran Donostiako Iñaki Osak. Helmugara heldutako gehienak, baina, ibilbidearen gogortasuna eta nekea aipatzen zuten, irribarrea ahotik kendu barik, hori bai. Izan ere, izerditu arren, buelta gustura egin zutela aitortu zuten denek. Mokadutxoa ahoan zutela, ibilbidean izandako sentsazioak izan zituzten hizpide guztiek.

**DATUA**

**%25**

DEGAGOIENDARRAK

244 txirrindularien artean bostetik lau gipuzkoarrak izan dira. Horietatik %25, debagoiendarrak.



**JUAN CARLOS SEGUIN**
EIBAR

"Ermuko lagun batzuekin etorri naiz. Galgo batzuk jarri dira aurrean eta erritmo gogorra jarri dute baina jarraitu diegu. Ondo bukatu dugu, izerditu arren".



**IÑAKI OSA**
DONOSTIA

"Hiru lagun etorri gara Donostiatik eta elkarrekin egin dugu itzulia. Ohituta gaude ibilbide hauetara, martxa askotan hartzen dugu parte".



**SEBER GURIDI**
ONDARROA

"Talde txiki baten joan gara bost lagun, bakoitza herri ezberdin batekoa. Gure erritmoan, elkarrekin, egin dugu buelta eta pozik gaude, gustura".



**NERITZEL ALBISUA**
BERGARA
**POL ESPONDA**
HONDARRIBIA

"Gustura egin dugu. Martxa gogorra izan da baina gustura izerditu dugu. Dena ondo antolatuta egon da, eta pozik gaude, kontent".



**UNAI ASURMENDI**
ANTOLAKUNTZA

"Oso ondo joan da martxa. Bi erorketa baino ez dira egon, biak Gorlatik behera. Eskerrak eman gura dizkiegu parte hartu dutenei eta boluntario guztiei".

**FUTBOLA** | Herriko Txapelketako finalak Oñatin | **26**





Udanan gora fresko-fresko, argazkilaria agurtzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Boluntarioekin batera, herriko dendek ere lagundu zuten jan-edanekin. | O.E.

**JOSE LUIS FERNANDEZ** | ASPANOGI-KO PRESIDENTEA

## "Minbizidun haurrak ere aurrera ateratzen direla erakutsi gura dugu"



O.E.

Aspanogi elkarteko presidentea da azken bi urte hauetan Jose Luis Fernandez aretxabaletarra. Izen-emateekin batutako dirua elkartearendako izango da.

**Zer iruditu zaizu martxa?**
Laugarren aldiz egin dugu Lokatzakoekin, eta pozik gaude. Aurten ere erantzun ona izan du.

**Kirola barik, elkartasun martxa ere izan da, ezta?**
Bai. Aspanogiren izena zabaltzea gura dugu guk horrelako ekintzekin. Kirola egin gura duenak egiten du, eta guk gure mezua zabaltzen diegu herritarrei.

**Zer lan egiten du Aspanogik?**
Minbizia duten Gipuzkoako haurren gurasoen elkartea da eta gure egoitza Donostian dago. Ume bat minbiziaz gaixotzen denean, umeari eta gurasoei laguntzeko gaude gu. Esan gura diegu familia horiei ez direla bakarrak, kasu gehiago ere badaudela. Harremanetan jartzen ditugu familiak, ikusteko umeak aurrera ateratzen direla, badagoela irtenbidea.

**Hemen batutako dirua besteko garrantzia izango du mezu hori zabaltzeak, ezta?**
Dirua garrantzitsua da, bai, baina baita gure elkartearen berri eman eta jasotzea ere. Jendeak jakin behar du elkarte bat badagoela prest laguntzeko. Gure beharra duen edonor, gure web orrian sar daiteke: *www.aspanogi.org*.



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



ROOMBA 620
350 € iRobot



1200 b/min
6 Kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA 3TS - 8GS
299 € Balay



1200 b/min
7 Kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-7212
399 € FAGOR



1200 b/min
7 Kg
A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-7212X
475 € FAGOR



1200 b/min
8 Kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-8212
430 € FAGOR



A++ Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13
399 € FAGOR



8 Kg
ONTZI-GARBIGAILUA LVF-19X
450 € FAGOR



8 Kg
KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA SF 820CE
420 € FAGOR



INDUKZIO PLAKA URBAN I-33S
365 € edesa



INDUKZIO PLAKA IF-33BS
465 €



LABE PIROLITIKOA 6H-760AX
450 €
FAGOR

2 URTE BERMEA

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

ERREGIONAL PREFERENTEA

**Juanina Garai** | Antzuolako entrenatzailea

# "Igoera gertu ikustean hasi dira zalantzak; eskerrak bigarrena ere igoko dela seguruenik"

Jardunaldi bakarra geratzen denean bigarren dago Antzuola (55), Getariakorengandik bi puntura (57)

**JOKIN BEREZIARTUA** | ANTZUOLA

Laugarren jardunalditik lider izan ostean zapatuan bigarren postura jaitsi zen Antzuola. "Kolpe itzela" izan zen, baina Juanina Garai entrenatzailearen arabera, bigarrena ere mailaz igoko da, karanbola arrarorik ezean.

**Kolpe handia izan zen Zestoaren aurkako porrota?**

Kolpe itzela izan zen. Ez genuen ezer egin irabazteko, ez genuen gure ohiko maila erakutsi. Atzo [zapatuan] ez nuen nire taldea ezagutu. Eurek gu baino korrika gehiago egin zuten eta horregatik lortu zuten garaipena. Lehen 15 minutuetan lau aukera garbi izan genituen ate aurrean baina ez genuen asmatu. Aukera horiek barkatu ostean ez dakit zer aldatu zen gure buruan baina ez ginen gu izan. Eta hori atsedenaldira 1-2 irabazten joan ginela eta aldagelan ez erlaxatzeko berba egin genuela, baina...

**Zer gertatu zitzaion taldeari?**

Ez dakit zehazki. Presio larregi izan genuen, akaso. Horri leporatu gura diot. Bigarren zatia hasi eta gutxira 2-2koa egin ziguten eta gola jaso eta berehala hamar jokalarirekin geratu ginen. Ordura arte gauzak gaizki bazihoazen, hortik aurrera are okerrago joan ziren. Jokalari bat gutxiagorekin geratzeari ezin izan genion buelta eman.

**Zestoak ez du talde txarra. Eurek ere izango zuten zerikusirik, edo?**

Akaso bai, baina errua gurea izan zela esango nuke. Epaileak ere ez zuen batera lagundu, baina ez ginen beste hainbat partidutan irten izan garen moduan irten. Lazkaon, adibidez, sekulako grinaz irten ginen. Baina Lazkaoren aurka jokatu zuen taldeak eta atzokoak [zapatukoak] ez dute zerikusirik. Badakizu, halako mailetan futbol talde batek asko alda dezake aste batetik bestera. Gu zuritik beltzera aldatu gara.

**Getariakok irabazi egin du eta bigarren zaudete orain, ia denboraldi osoan zehar lider sendoak izan ostean. Igoera arriskuan al dago?**

Getariakok igoera ospatu zuen zapatuan. Udaletxean harrera egin zieten jokalariei baina oraindik ez dira lehenak matematikoki. Soraluzeren aurka ez badute irabazten eta guk azkena doan Idiazabalen aurka irabazten badugu, guk amaituko genuke lehen postuan. Beraz, lehen bi sailkatuak mailaz igoko direla esan daiteke baina oraindik ezin da ofizial egin. Eman behar diren karanbolak oso arraroak izan behar dira bigarrena ez igotzeko.

**Azken lehia alde batera utzita, Antzuolaren denboraldia urte askoan gogoratzekoa izan da.**

Zalantza barik. Urte historikoa izan daiteke, Antzuola ez da-eta sekula egon Ohorezko Mailan. Antzuolarrak asko inplikatu dira; atzo [zapatuan] jende asko joan zen Zestoara eta pena handia da zaletuen aurrean hala galdu izana. Era berean, baina, denboraldi hasieran inork ez zuen hau espero; partiduz partidu joan gara eta gauzak ondo irten zaizkigu. Hori bai, igoera gertu ikusi dugunean hasi dira zalantzak; eskerrak bigarren sailkatua ere igoko dela seguruenik...



Juanina Garai Estala futbol zelaian, artxiboko irudi baten. | GOIENA

**"Ez genuen gure maila erakutsi, ez genuen ezer egin irabazteko"**

**"Historikoa izan daiteke, Antzuola ez da sekula egon Ohorezko Mailan"**

OHOREZKO ERREGIONALA

## Partidurik onena egin ez arren, merezita irabazi zuen UDAk

EMAITZA

ZARAUTZ
**2-3**
ARETXABALETA

**J.B.** | ARETXABALETA

Zapatuan merezitako garaipena lortu zuen Aretxabaletak Zarautzen aurka. UDAk ez zuen denboraldiko partidurik onena egin eta emaitza izan zen albisterik onena: "Hainbat gauza ikusi ditut hobetu daitezkeenak baina orokorrean ondo aritu gara. Gainera, erregional preferente mailako jokalari batek debuta egin zuen eta hori albiste ona da". Bixent izan zen debuta egin zuen jokalaria eta gola egin zuen, gainera. Beñat Etxabek eta Aitor Perezek egin zituzten beste bi golak.

Albistegik azaldu digunez, Zarauzko taldeari igarri zitzaion maila ez galtzeko borrokan ari direla: "Larri ikusi nituen, nabaritu zitzaien atzealdean dabiltzala. Presio handiarekin ikusi nituen jokatzen, nahiko behartuta". Hirugarren Mailarako igoeraren ametsa alde batera utzita, Real Union taldeari hirugarren postua kentzeko borrokatuko dute aretxabaletarrek.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Jokoan ezer izan ez arren, garaipena lortzeko borrokan

EMAITZA

REAL UNION
**1-0**
BERGARA

**J.B.** | BERGARA

Bergarak zerbait gehiago merezi izan zuen Real Unionen aurka. Hirugarren postuan dagoen Irungo taldearen aurrean hortzak erakutsi zituen Nicasio Galan *Neka*-ren taldeak.

Hiru puntuen bila joan ziren mahoneroak, sailkapenari begira jokoan ezer ez badute ere: "Ez zait epailearen lana kritikatzea gustatzen baina oraingoan zerbait esan beharra daukat. Lana baino bere jarrera salatu gura dut. Jokoan ezer ez izateagatik badirudi ezin zarela kexatu eta erabakiak zure kontra hartzen dira gehienetan. Zapatuan bi edo hiru erabaki egon ziren partidua erabat baldintzatu zutenak. Aurkariek ere gure ustez injustuak ziren erabakien aurrean kexatu izana kritikatu ziguten. Horrek asko haserretu gintuen", esan digu entrenatzaileak.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Ate aurrean barkatu ostean, puntu bakarra Oñatira

EMAITZA

UROLA
**0-0**
ALOÑA MENDI

**J.B.** | OÑATI

Aloña Mendik irabaztea merezi izan zuen zapatuan Urolaren aurka. Andoni Azkargortaren mutilak ez ziren batere fin ibili ate aurrean. Aurten 27 gol sartu ditu Aloñak eta gol horiekin 40 puntu batu dituzte. Datu esanguratsua da hori.

"Pena handia izan da. Bost aldiz geratu ginen bakarrik atezainaren aurrean baina ez genuen asmatu. Gainera, azken minutuan zutoinera bidali genuen baloia... Aukerak sortu genituen baina azken metroetan kalitatea falta zaigu eta horrela zaila da partiduak irabaztea. Eurek estrategia jokaldietan sortu zuten aukeraren bat edo beste baina garaipena merezi izan genuen, zalantza barik", adierazi digu entrenatzaileak. Zapatuko puntuarekin matematikoki maila mantentzea lortu dute oñatiarrek.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Jipoi galanta jaso zuen Mondrak Hondarribian

EMAITZA

HONDARRIBIA
**5-0**
MONDRA

**J.B.** | ARRASATE

Mondrak jipoi galanta jaso zuen zapatuan Hondarribian: "Lehen zatian lau aukera garbi izan genituen baina ez genuen asmatu. Lehen zatiaren amaieran gola jaso genuen eta 1-3 edo 1-4 joan beharrean 1-0 heldu ginen atsedenaldira. Bigarren zatian ez dakit zer gertatu zen, behera egin zuen taldeak. Guztira bost jaso genituen baina beste bost ere izan zitezkeen. Atzealdean batez ere, oso makal aritu ginen", zioen Iturrinok.

Zapatukoa ahaztu eta aurretik dituzten hiru finalak –Lagun Onak, Ostadar eta Aurrera– ondo prestatzeko lanean jarri beharko dira arrasatearrak. Izan ere, behealdean ari direnak ere huts egin dute aste bukaera honetan: "Geratzen diren hiru partiduetan erabakiko da denboraldia. Aurkari zuzenak dira; irabaztea, ez dago besterik".

ARETO FUTBOLA

## Lagun Onak taldea Eskoriatzaren gainetik pasa zen (8-0)

Lagun Onak taldearen aurka jokatzeko Galdakaora egindako bisitan jipoi galanta jaso zuen zapatuan Eskoriatzako taldeak. Aratz Kortazar jokalariak azaldu digunez, kontraeraso guztietan harrapatu zituzten eta uneoro etxekoek kontrolpean izan zuten norgehiagoka. Sailkapenari dagokionez, eskoriatzarrek ez zuten ezer jokoan eta horrek zerikusi zuzena izan zuen taldeak erakutsitako mailarekin. Azken txanpan sartu da liga dagoeneko.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Andoni Azkargortak Aloña Mendin jarraituko du datorren denboraldian

Andoni Azkargortak Aloña Mendi zuzenduko datorren denboraldian. Erabakia "erraza" izan da hartzeko, kontatu digunez: "Oso gustura nago. Taldeak oso ondo egin du lan, gozamena da entrenamendutara joatea. Zuzendaritzak ere eskatu diodan guztia eman dit. Lan egiten utzi didate eta, gainera, nire lana baloratua dela ikusten dut. Leku oso onean nago eta ez dut inongo zalantzarik izan beste urtebetez hemen egoteko. Erabaki erraza izan da", dio.

SASKIBALOIA

# Azkenengo minutuak hobeto jokatzeari esker irabazi zuten MU-koek

## Arejolaleiba eta Barberoren arteko azken erasoa eta azken defentsa ona izan ziren garaipenaren gakoak

**EMAITZA**
MU
**58-57**
LIZUAN.COM

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE

Partidu beroa aurreikusi zitekeen zapatuan eta jokalariek ez zuten hutsik egin. Norgehiagoka borrokatua ikusi zen Iturripen eta garaipena etxean geratu zen, 58 eta 57.

Azpeitikoa talde gazte eta azkarra da, baina etxekoek azken baloi jabetzak hobeto defendatu eta jokatu ostean irabaztea lortu zuten. Mikel Arejolaleiba pozik azaldu zen partidu amaieran, denboraldi honetan hainbat partidu azken minutuan galdu ondoren, egoerari buelta emateko lan egin duelako taldeak.


Barbero, azken saskiratzearen protagonista. | JAGOBA DOMINGO

### Hasiera nahasia

Partiduak hasiera kaxkarra izan zuen. Bi taldeak urduri kantxaratu ziren eta joko azkarra egin nahi izateak huts asko egitera eraman zituen, batez ere erasoan. Bosgarren minutuan 7 eta 2ko emaitzarekin zegoen norgehiagoka, baina hurrengo minutuan azpeitiarrak esnatu eta 9 eta 9koa jarri zuten markagailuan. Lehenengo laurdena oso gorabeheratsua izan zen; bi taldeen erritmoa oso azkarra izan da denboraldian zehar, baina, zapatuan, kontraerasoak ez zituzten behar bezala aprobetxatu. Hala ere, azken minutuetan jokoa baretu eta Arejolaleibaren barneraketei eta Arantzabalen jaurtiketa libreei esker, aurretik amaitu zuten, 19 eta 18.

Bigarren laurdena hobeto hasi zen; etxekoak erasoko jokaldiak bere osotasunean egiten saiatu ziren eta erritmoak azkarra izaten jarraitu arren, buruarekin jokatu zuten. Laurdenaren azken minutuetan, baina, epaileak partiduko protagonista izaten hasi ziren etxekoen aurkako erabaki eztabaidagarriekin. Dena den, atsedenaldira markagailuan aurretik joan ziren, 36 eta 32.

### Hirugarren laurden txarra

Hamar minututan zortzi puntu besterik ez zituzten sartu Larreategiren mutilek. Laurdenaren hasieratik defentsak asko gogortu ziren, azpeitiarrek kantxa osoan presioa egin zuten, eta falta inozo asko egin zituzten etxekoek. Markagailuan atzetik amaitu zuten laurden hau, 44 eta 46, eta, gainera, Arantzabal eta Gorka Arejolaleibak partidua utzi behar izan zuten orkatila bihurritu ondoren.

Azken hamar minutuak ez ziren ondo hasi etxekoentzat, erasoan baloi bat galdu ondoren Atxari kirolez kontrako falta adierazi zioten eta. Baina pixkanaka eta kostata, egoerari buelta ematea lortu zuten Larreategiren mutilek, epaileek lan hau zailago egin zuten arren. Eta aurten beste hainbat partidutan bezala, azken minutura puntu bat azpitik heldu ziren. Hala ere, azken eraso ona egin ondoren garaipena etxean geratu zen zorionez.


Soraluze BKE taldeko defentsa, gogor lanean. | IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

# Etxean jokatutako azken partidua galdu egin zuten

## Gipuzkoako Kopako lehenengo norgehiagokan porrot egin zuten Muniategiren mutilek

**EMAITZA**
SORALUZE BKE
**26-27**
ELGOIBAR

**JAGOBA DOMINGO** | BERGARA

Gipuzkoako Kopari ekin zioten zapatuan Soraluze BKE taldekoek, eta ez zuten nahi bezain ondo hasi. Gol baten aldearekin galdu zuten Labegaraietako kiroldegiko norgehiagoka, eta kopako finalera heltzeko txartela lortzea zaila izango dute.

Gipuzkoako Kopan hiru talde daude, eta euren artean partidu bakar bat jokatuko dute; beraz, lehena galduta, datorren astekoa irabaztea derrigorrezkoa izango da finalera heltzeko. Datorren astean, Oreretara joango dira, Ereintza Aguaplast taldearen aurka jokatzera.

### Denboraldiaren balorazioa

Balorazio nahikoa ona egin zuen Josetxo Muniategik. Entrenatzailearen esanetan, nahi baino erregulartasun txikiagoa izan du taldeak eta, hori dela eta, puntu batzuk utzi dituzte bidean. Hala ere, denboraldi txukuna egin dute Bergarakoek. Defentsako lana dezente hobetu dute, horren ondorioz, baina, ezin izan dute kontraerasoan nahi beste gol egin.


JULEN IRIONDO

MENDI BIZIKLETA

# Ia 200 lagun Zigorrolako martxan

**Goiz ederra pasatzeko modua izan zuten domekan Zigorrolako mendi bizikleta martxa egitera joandakoek. Sei urte daramatzate irteera antolatzen, eta oraingoa izan da edizio jendetsuena, 190 parte-hartzailerekin. "Oso pozik gaude", zioen amaieran antolakuntzako kide Iban Goñik. Eta gustura amaitu zuten txirrindulariek ere: "Asko gustatu zaie ibilbidea".**

MENDIA

### Mendia ardatz duten zazpi laburmetrai ikusteko aukera izango da bihar Arrasateko Amaia antzokian

Besaide mendi elkarteak, Arrasateko Udalaren laguntzarekin, *Mendi Tour* zinema emanaldia ekarriko du Amaia Antzokira martitzenean, maiatzak 7, 20:30ean. Emanaldian, zazpi laburmetrai egongo dira ikusgai; horietako lau, Bilbon ospatu den Mendi Film Festival-ean sarituak. Mendia ardatz bezala hartuta, zuzendari bakoitzak mendiaren ikuspuntu ezberdin bat erakutsiko du eta bertan bizi diren egoera askok gizakietan sortzen dituzten sentimendu eta beldurrak erakutsiko dituzte.

FUTBOLA

# Zorrobero ligako txapeldun bigarrenez jarraian, finala merezimendu osoz irabazita

## Kopan Txarrixak irabazle, Bundeswehr garaitu ostean



Zorrobero taldea, ligako txapeldunaren garaikurra jaso ostean. | JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

"Urte asko ditu txapelketak, herrian oso onartuta dago. Esan daiteke oñatiarroi futbola asko gustatzen zaigula orokorrean, eta Aloña Mendin aukerarik izan ez genuenok hor izan dugu beti Beteranoen txapelketa". Iban Orueta Herriko Futbol txapelketako zuzendaritzako kidearen hitzak dira. Pozik, azken jardunaldian ere dena ondo irten zelako.

**Zorrobero, jaun eta jabe**

Zorroberok talde gutxik egindakoa egin zuen zapatuan: ligako irabazle izatea lortu bi urtez jarraian. Finalean Sasquatch taldea hartu zuten mendean (3-1), merezimenduz. Baloiaren jabetza eurena izan zen eta eurek jarri zioten erritmoa norgehiagokoari. Atsedenaldira husnakoarekin iritsi arren, bigarren zatian Txarlik eta Oleagak gol bana egin zuten eta finala ia erabakita utzi. Azken minutuetan Sasquatchek 2-1ekoa egin zuen baina Txarlik ez zuen berdinketan amesteko aukerarik eman; jaurtiketa eder batekin egin zuen 3-1koa. Zorrobero taldeko Josu Igartuak txapelketa bera goraipatu zuen: "Oñatin hainbat ekintza antolatzen dituzte herritarrek euren kabuz; hau da bat. Jendeak gustura hartzen du parte eta borondatezko antolakuntza lan handia dago atzetik eta hori guztia batzen denean, halako txapelketa eder bat da emaitza. Guretako ohore bat da parte hartzea".

Kopan, berriz, Txarrixak taldeak Bundeswehr hartu zuen mendean, 3-1.

### DENBORALDIKO PROTAGONISTAK

**Ligako txapelduna:**
Zorrobero.
**Ligako azpitxapelduna:**
Sasquatch.
**Ligako finaleko jokalari onena:**
Arkaitz Arano (Zorrobero).
**Kopako txapelduna:**
Txarrixak.
**Kopako txapeldunordea:**
Bundeswehr.
**Ligako hirugarren sailkatua:**
Joxely.
**Ligako laugarren sailkatua:**
Dollygan's.
**Kopako finaleko jokalari onena:**
Aitzol Guridi (Txarrixak).
**A taldeko txapelduna:**
Xaguxar.
**B taldeko txapelduna:**
Kalañatasaray.
**Kiroltasunaren saria:**
Iñaki Murua (Lozorromo).
**Jokalari beteranoena:**
Iñaki Markuleta (Zorrobero).
**Atezain onena:**
Iñigo Kortabarria (Xaguxar).
**Goleatzaile onena:**
Roberto Idigoras (Doolygan's).



**JOSU IGARTUA**
ZORROBERO

"Oso pozik gaude, aurten ere txapeldun izan gara. Lehen gola asko kosta zaigu baina lehenaren ostean, dena errazagoa izan da. Finalera heltzeko ez da nahikoa ondo jokatzea, lesioek eta beste hainbat faktorek asko eragiten dute. Galdu ala irabazi, afari bat egin eta urteari amaiera emateko geratuta geunden, eta asmo horrekin irtengo gara gero".



**MIKEL URIBETXEBERRIA**
SASQUATCH

"Finaleraino heltzea zaila da, oso talde onak daude txapelketan. Baloia ez dugu gure oinetan izan eta gaizki jokatu dugu. Aurkariak iaz ere txapeldun izan ziren eta bagenekien zaila izango zela, igarri da. Urte asko daramate txapelketa honetan eta badakite nola jokatu. Hala ere, pozik egon gaitezke, beteranoetan bigarren egitea lorpen handia da–eta".



**IBAN ORUETA**
ZUZENDARITZAKO KIDEA

"Oso denboraldi ona izan da. Aste bukaera bakar baten atzerapenen bat egon zen elurragatik, baina kirol arloari dagokionez, dena irten da ondo. Aurten, gainera, talde gazteak heldu dira finaletara eta atzetik zaletuak ekarri dituzte; giro ederra jarri dute. Hori bai, irabazleak beteranoak izan dira, oraindik egurra emateko moduan daudela erakutsi dute".



Zorrobero taldeko jokalari bat atera jaurtitzen, ligako finalean. | IMANOL SORIANO

SASKIBALOIA

# 650 gaztetxo saskibaloiaz gozatzen, 3x3 formatuan

J.B. | ARRASATE

Ointxe Saskibaloi elkarteak antolatuta, Leintz Eskola Kirolaren elkarlanarekin eta Kobate harrobiaren babesarekin, zapatuan gaztetxoendako 3x3 saskibaloi txapelketa jokatu zen Arrasateko Laubide plazan. Urtero moduan, saskiak Baskonia fundazioak jarri zituen eta antolatzaileek biziki eskertu gura izan diete lan hori hartu izana. Helburua, saskibaloia gazteen artean ezagutzera eman eta herrian kirol ekintza ireki bat antolatzea. Parte hartzeak urtez urte gora egiten du; 130 taldetan banatuta, aurten 650 bat gaztetxok egin dute bat deialdiarekin. Benjamin, alebin eta infantil mailetan –9 urtetik 14 urtera arte– hiru multzo banatu zituzten: nesken taldeak, mutilenak eta talde mistoak. Maila bakoitzeko lehen bi sailkatuek, gainera, saria eraman zuten etxera.

Susana Santor Leintz Eskola Kiroleko koordinatzaileak eguna "primeran" irten zela esan digu: "Parte hartze eta eguraldi ezin hobea izan dugu. Eskola kiroleko begiraleen eta Ointxe elkarteko kideen lana eskertzekoa izan da, epaile eta hezitzaile moduan egin duten lan ederragatik".



Laubide plaza saskibaloiaren gune izan zen 10:00etatik 20:00etara. | J.B.



Neska bat saskiratze bat egiteko gertu. | JOKIN BEREZIARTUA

SASKIBALOIA

## Eneko Blanco | Natra Oñati taldeko entrenatzailea

# "Disfrutatzeko unea da, baina ezin gara horrekin geratu: lan ona egin gura dugu"

- Natra Oñatik Zilarrezko LEB mailarako igoera fasea jokatuko du hilaren 24tik 26ra
- Oñatiarrak Plasencian edo Malagan lehiatuko dira EBAko talde indartsuenen kontra

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Eneko Blanco (Oñati, 1981) bideo artean dabil azken egunetan. Zilarrezko LEB mailarako igoera prestatzen dihardu. Katalunia, Madril eta Andaluzia aldeko taldeen kontra jokatu beharko du Natra Oñatik. Oraindik ez dakite non –Plasencia edo Malaga– eta zein talderen kontra, baina badakite noiz: hilaren 24tik 26ra. Erronka handia da. Oñatiko taldeak azken urtetan izan duen bilakaeraren azken pausua. Zaila dela badakite; baina, lauko finalean egonda, igotzeko aukerak dituztela ere badakite.

**Hiru urtetan mailaz maila igo zineten lehen nazionalera heldu arte. Handik EBAra eta orain Zilarrezko LEBera igotzeko lauko finalean zaudete. Bilakaera itzela.**

Bai. Orain arte egindako bidea oso ona izan da. Iaz ez genuen EBAn mantentzeko kirol-meriturik egin, baina aurten bai. Denboraldi borobila egin dugu. Hainbat gorabehera izan ditugu, baina urte ona egin dugula esango nuke. Gure multzoko txapeldun izan eta igoera faserako sailkatzea lorpen historikoa dela uste dut.

Igoera fasean lau taldeko lau multzo egongo dira. Guztira, 16 talde. EBAko talde indartsuenak, eta horietako bat Natra Oñati da. Ondo pasatzeko momentua da.

**Hilaren 24tik 26ra jokatuko duzue fasea, baina ez dakizuen non eta noren kontra. Nola prestatzen diharduzue igoera?**

Gure aurkari izan daitezken taldeen bideoak ikusten gabiltza. Ez daukagu izen zehatzik, baina igoera prestatu beharra daukagu nola edo hala. Lau taldeko multzoa izango da, eta hiru partidu jokatuko ditugu. Puntu gehien lortzen dituenak jokatuko du Zilarrezko LEB mailan.

**Aste bukaera intentsua izango duzue. Lehenengo partidua irabaztea garrantzitsua izango da.**

Bai, batez ere taldeari emango liokeen konfiantzarengatik. Lehen partidua galtzeak ez du esangura igotzeko aukera barik geratuko ginatekenik. Lehenengoa galduta, huts egiteko tarte barik geratuko ginateke. Taldearen konfiantzarako lehenengo partidua irabaztea oso ona litzake. Hori horrela, lehen partidua prestatzen dihardugu. Emaitza horren arabera antolatuko ditugu beste bi lehiak.

**Bideoak, entrenamenduak, igoera fasera heltzeko gogoa... Nola kudeatzen dituzue horiek guztiak?**

Aurreko astean arlo fisikoa landu genuen, eta ez dugu partidurik jokatu. Gaurtik aurrera, ohiko entrenamenduak egingo ditugu: bi orduko hiru entrenamendu. Gainera, lagunarteko partiduak jokatuko ditugu: igoera fasearen aurreko aste bukaeran, bi egunetan bi lehia.

Igoeran hiru egunetan hiru lehia jokatuko ditugu, eta ez gaude dinamika horretara ohituta. Jokalariek lan handiagoa egin behar dute hiru egunetan, eta lehia batetik bestera nola indarberritu ikasi beharko dugu.

**Eta azken astean, arlo psikologikoa landuko duzue?**

Lehenengo partidua prestatuko dugu. Bi entrenamendu egingo ditugu, astelehen eta eguaztenean. Lan fisiko handia egin barik, jokaldiak landuko ditugu.

**Igoera fasea disfrutatzeko unea dela esan diguzu, baina hori baino gehiago izango da zuentzako.**

Saskibaloiko profesionalen antzera biziko dugu. Europako lauko finalean edo Errege Kopan taldeek bizi dutenaz disfrutatzeko aukera izango dugu. Elkarrekin gosaldu, batzar teknikoak egin, bazkaldu, siesta, partidurako elkartu... Gozamena izango da. Hori bai, gure asmoa ahalik eta lan onena egitea da. Azken fasean egonda, igotzeko aukera errealak ditugu, baina badakigu zaila eta gogorra izango dela.




Eneko Blanco entrenatzailea, Zubikoan egindako entrenamendu saioan. | JULIO CALLEJA

**Denboraldi borobila egin duzue. Igoera lortzen ez bada, urteko balorazioa aldatu egiten da?**

Igoeratik lana ondo egin dugunaren sentsazioarekin itzultzen bagara, gustura egongo gara LEB mailara ez igo arren. Dakigun jokoa egiten badugu, baina emaitzak ez badira igoera lortzeko bestekoak, pozik egongo gara.

Triste itzuliko gara, baina igoera faseko lanak ezin du zapuztu denboraldian egindakoa.

**Igoera lortu edo ez, Natra Oñatik 2012-13 denboraldian egindako lana asko baloratuko da hilabete edo urte batzuk pasa ostean.**

Hala da. Lorpen historikoak hotzean baloratzen dira gehiago, eta gurea ere, horrela baloratuko dugu jokalari eta arduradunok, eta baloratuko dute besteek.

**Plasencian edo Malagan jokatu, duda barik, zaleen falta nabarituko duzue.**

Bai. Plasencian jokatzen badugu, akaso banaka batzuk animatuko dira, baina Malagan bada, oso zaila izango da zaleen laguntza izatea. Zubikoan 300-400 zale artean elkartu dira lehia guztietan, eta askotan esan dugun arren, euren laguntza oso inportantea izan da une askotan. Lerro hauen bidez, eskerrik beroenak zale guztiei.

**Denboraldia hiru zatitan banatuko nuke: irailetik otsailera, otsaila bera, eta otsailetik maiatzera arte. Ados zaude?**

Bai. Denboraldia hiru zatitan banatuko nuke, baina denboraldi-aurrean egindako lana ere aipatuko nuke. Lan itzela egin genuen. Euskal Kopako finalerdietara heldu ginen joko ona erakutsita. Piropo asko jaso genituen orduan: talde indartsua genuela, goiko postuetan egoteko jokalariak...

**Eta denboraldiko lehen zatia oso ona izan zen.**

Lau partidu jarraian irabazi genituen, tartean Zornotza eta Santurtziren kontra. Teorian gure multzoko talde indartsuenak zirenak. Lehen itzulia partidu bakarra galduta bukatu genuen.

**Otsailean, lautik lau porrot.**

Santurtziren kontra 38 puntugatik galdu genuen. Otsailaren 9a zen. Min handia egin zigun emaitza hark, eta jarraian beste hiru galdu genituen. Hilabete gogorra izan zen.

Bitxia da: otsailean egin genituen urteko entrenamendu saio onenak, intentsuenak, gogorrenak... baina asteko lanak ez zigun fruiturik ematen aste bukaeran. Arlo psikologikoa asko landu genuen. Lau porrot haiekin sailkapena asko estutu zen. Atzeko taldeak indartsu zetozen, eta gu, nahi eta ezin genbiltzan.

**Estelaren kontra irabazita, argia ikusten hasi zineten berriro.**

Bagenekien partidu bat irabazita, bolada onarekin hasiko ginela berriro. Hala izan zen. Lehia gogorrak izan ditugu martxotik maiatzera. Asko sufritu dugu puntuak irabazteko.

**Denboraldiko une onena eta txarrena.**

Onena, Zornotzaren kontra euren kantxan jokatutako partidua. Josean Cavada izan zen pibot bakarra. Baja garrantzitsuak genituen, baina taldeak joko bikaina egin zuen.

Eta txarrak, hainbat: kirol ikuspegitik, otsaileko emaitzak eta Asier de la Iglesiaren gaixotasuna; eta pertsonalean, etxean izandako gaixotasuna.

**Hurrengo denboraldiari begira zer aurreratu genezake?**

Oso goiz da oraindik. Saskibaloi federazioak urtetik urtera mailen egituraketa asko aldatzen du. Arlo ekonomikoa ere kontuan hartuko dugu. Gainera, jokalarien egoera ere aztertu beharko dugu: taldean geratzeko gertu daudenak, bajak... Hausnarketa sakona egin beharko dugu guztiok: entrenatzaile, jokalari, eta zuzendaritzako kideek. Baina, hori igoera fasearen ondoren izango da.

**"Igoerako lehen partidua irabaztea garrantzitsua da konfiantzarako"**

**"Lorpen historikoak denborarekin eta hotzean baloratzen dira gehiago"**

**"Denboraldiko une txarrena otsaila izan zen: lau partiduak galdu genituen"**

**"Faktore asko aztertuko ditugu etorkizunera begiratu aurretik"**

# Estimulazio goiztiarraren inguruko gogoeta: nola eta zertarako estimulatu haurrak

Alvaro Beñaran pedagogoaren hausnarketa jaso du 'Hik hasi' aldizkariak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARRASATE



Haurren zentzumenak lantzeko estimulazio tailer bat. | MARYSOL BABARRO

Estimulazio goiztiarrak garuneko neuronak txikitatik lantzea du helburu. Ariketa eta jolas sistematiko eta errepikakorrak proposatzen dituzte metodo ezberdinek, haurra inteligenteagoa eta bizkorragoa izateko. *Hik hasi* aldizkariak iritzia eskatu dio Bergarako Luzaro psikomotrizitate eskolako Alvaro Beñarani. Pedagogo, terapeuta eta psikomotrizistak galdera batekin plazaratzen du bere lehenengo gogoeta: "Zertarako estimulatu nahi dugu haurra? Estimulatzean, seme-alabentzat onena nahi dugu ala haur hori onena izatea?". Beñaranek dio perfekzioaren bila ikusten dituela guraso asko eta asko gaur egun, eta estimulazioa kontzeptu arriskutsua iruditzen zaiola. Onena izateak haurrari zer nolako exijentzia dakarkion azaltzeko eskatzen du. "Estimulazioa konfiantza falta baten erakusle da", gaineratu du. Konfiantza falta umeari balioak transmititzeko gure gaitasunean, baina baita umearen gaitasunetan ere. Haurra osotasunean zaindu behar dela dio pedagogoak, eta atal bakarra lantzean beti ariko garela beste zerbait alde batera uzten. Sozializatzeko arazoen inguruan ere ohartarazten du Beñaranek: "Estimulazioa gain-estimulazio bilaka liteke muturrera eramaten denean (...), eta adimena bakarrik eta bere horretan lantzeak afektuen eta goxotasunaren esparrua alde batera utz dezake". Estimulazioaz berba egin beharrean Beñaranek nahiago du arretari buruz berba egin; haurraren beharretara egokitu eta bere gaitasunak martxan jartzea, hain zuzen. "Gurasoek ez dute euren haurrarekin lan egin behar; ahal duten lasaien egon eta gozatu egin behar dute", dio.

# Erregresioak oso ohikoak eta naturalak dira 3-5 urte bitarteko umeen artean

Sara Tarres psikologoak gomendatzen du halako egoerak lasaitasunez hartzeko

**L.Z.** | ARRASATE

Haurrek erregresioak izaten dituzte batzuetan, eta gai horren gainean Sara Tarres psikologoak emandako azalpenak jaso ditugu *Guraso.com* atarian. Erregresioak dira, esaterako, berriz ere ohean pixa egitea, bat-batean modu infantilagoan berba egiten hastea, edo utzita zuen biberoia berriz hartu nahi izatea...

Normalak eta oso ohikoak direla dio adituak. "Haurraren garapena ez da prozesu lineala, eta erregresio horiekin segurtasuna bilatzen du umeak", azaltzen du Tarresek. Ikastur-te hasiera, aldaketa bat familian, heriotza bat... atzerapauso horiek, gehienbat, antzerako egoeretan gertatzen direla azaltzen du. Horrelakoetan, gurasoek edo hezitzaileek babesa eskaini behar dute: atzerapausoa onartu, eta haurrari aurrera egiten lagundu, alegia. "Garrantzitsua da umearekin ez haserretzea", gomendatzen du. "Erregresioak, gehienetan, pasakorrak dira, eta, horrelakoetan, umeek ulerkortasuna, lasaitasuna eta maitasuna behar dute". Adituaren esanetan, komeni da ez dramatizatzea: "Umeak biberoia eskatu badu, ez da ezer gertatzen ematen badiogu". Gure jarrerak aztertzeko ere eskatzen du Tarresek, eta aipatzen ditu umeak handi egiteari beldurra dioten gurasoak.

Erregresioak luze iraunez gero -bizpahiru hilabete-, gomendioa da laguntza profesionala eskatzea; izan ere, jarraipena eskatzen duen nahasmendu emozional sakonagoa izan daiteke.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

# Eraikuntzaren kontzeptu berria

**Isaak Galarraga**
Arkitekto teknikoa eta irakaslea

Azkenaldian egindako eraikuntzetan ez da gehiegizko energiaren kontsumoa kontuan hartu, eta energiaren erabilera irrazionala izan da. Harmonian zegoen paisaia naturala hormigoizkoa izatera pasa da, eta eraikinek eragin handia izan dute klima artifizialak sortzen. Gero eta argiago dago nahitaezkoa dela eraikuntza eta natura orekatzea.

Eraikuntzaren kontzeptua aldatzen ari da egunotan. Energiaren eta uraren zentzuzko erabilera arrazionala sustatzen ari da. Naturan integratzen diren eraikuntzek diseinu bioklimatikoan oinarritzen dira, non horma bat, ia magikoki, izadi habitat bilakatzen den, eta zenbait landare-espezieen bizitoki bihurtzen den. Hala, eraikuntza eta ekologia harmoniaz integratzen ari dira.

XXI. mendeko etxebizitza %100 jasangarria da; behar duen energia auto-ekoizteko gai da. Eraikin berri horiek aurrefabrikatutako osagaiekin eginak daude, eta guztiz aldagarriak dira; inertzia termiko handia dute. Behar duten energia urria eguzkitik hartzen dute -plaka-sentsore termiko eta fotovoltaikoen bitartez-, edo lurretik -bero-ponpa geotermikoaren erabilerarekin-. Eraikinaren fatxada, estalkiak... ortu edo lorategi bihurtzen dira.

Etxe osoa da birkonfiguragarria eta malgua. Pieza guztiak dira aldagarriak eta birziklagarriak; morterorik gabe eta inongo substantzia toxikorik gabe muntatzen dira. Piezak presioarekin lotzen dira erraz desmuntatzeko, eta ahalik eta hondakin gutxien sortzen dute. Konpontzeko errazak dira, eta berrerabilgarriak. Pentsatuta daude produktu berriak erraz ezartzeko ahalik eta bizitza luzeena izan dezaten.

## Nahitaezkoa da eraikuntza eta natura orekatzea

Materiala ekologikoa eta organikoarekin oso ondo isolatuta daude. Hormak mugi daitezke beharren arabera egokitzeko, eta erraza da gelak handitzea. Iparraldeko fatxada eraikinaren aurpegi berdea izan ohi da: lorategi bertikal bat.

Estrategia eta soluzio berriztagarriak erabiltzen dira. Eguzkiaren orientazioa kontuan hartzen da, energia kontsumoa murrizteko baliabideak eta materialak optimizatzen dira, eta instalakuntza eraginkorrak ezarriz energia berriztagarriak sustatzen dira.

Mantenuak erraza izan behar du, eta garrantzitsua da hondakinen sorrera gutxitzea. Funtzionalitatea lehenesten da. Azken finean, guztion bizi-kalitatea hobetzea baita helburua.



Jasangarriak diren etxebizitzak. | ARIZMENDI IKASTOLA

## Jardunaldia Kulturaten, hilaren 10ean

Arizmendiko Lanbide Heziketak jardunaldia antolatu du gaiaren inguruan hilaren 10erako. Arrasateko Kulturaten egingo dute. Landuko dituzten gaiak dira: paisaia eta hiria; lorezaintza, jendearen bizi kalitatea hobetzeko tresna bat; lastozko eraikin pasiboak; fatxada eta estalki begetala; ikuspegi orokorra eta energia ikuspuntutik apunte batzuk. Eta Ekokaleak Hiri Altzari Iraunkorraren V. Ideia Lehiaketaren sariak banatuko dituzte. Sarrera doan da. Izena emateko, 943 77 20 25 zenbakira deitu edo *eraikuntza@arizmendi.ikastola.net* helbidera idatzi.

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**
arizmendi ikastola PRO

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA**
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

**BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE**
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA

# Historiaren oinkadak iruditan

## Pol-Pol taldearen lehen 30 urteetako argazkiak, Aroztegin ikusgai

JON BEREZIBAR | BERGARA

Oparoa da Bergarako mendizale taldearen historia, aurki beteko baititu 75 urte taldeak. Aroztegi aretoan egubakoitzetik dagoen erakusketak, zehazki, hasierako 30 urteetako irudiez osatutako kronika erakusten du. Partikularrengana, fondo publikoetara eta ahal izan duten lekuetara jo dute argazki bila. Zailena mendizaleak identifikatzea izan dela diote antolatzaileek, argazki zaharrenetan agertzen diren gazteenek 80 urtetik gora dituztelako. Honela, Pol-Pol mendi taldearen ibilbide aberatsaren hasierako oinkaden kontakizun ederra jaso dute Aroztegi aretoan.

### Lehen urratsak

Argazkirik zaharrenari ezin izan diote datarik ezarri baina balio sentimental handienetakoa duena da. Bittor Arriaran da erakusketan lanean ibili direnetako bat eta hark azaltzen duenez jakin ere ez dakite taldea eratu baino lehenagoko ala osteko irudia den. Bat ala beste, lotura estua dauka Pol-Pol mendi taldearen sorrerarekin, Bergaratik Gorlarako bidean zegoen azken baserrian ateratakoa baita, Joxepa, bertako etxekoandrearekin. Gorlara egindako hamaika txango horietan ikusi zuten mendi taldea sortu beharra. Hala, 1942ko martxoan jaio zen mendi taldea.

Zaletasunak eutsi badio ere, erakusketan paisaia bera, ohiturak ala mendirako ekipamendua zenbat aldatu diren ikus daiteke 40 argazkitan. Abarkak jantzita ikus daitezke lehen mendizaleak, adibidez; berdin Aralarren, Arraten, zein Ordesan.

### Gorla, ikur eta babesleku

Bergarako mendizaleek, ordea, inguru kutunik izatekotan, Gorla dute begietako lekua. Pol-Pol mendi taldekoek euren eskuekin egin zuten aterpea eta eraikuntzaren zenbait une ikus daitezke erakusketan, garai bateko teilatupearen lekukotza ematen dutenak.

### Mendia eta jaia

Ez ziren gutxi izan aterpe horren inguruan egin zituzten erromeria jendetsuak. Hain zuzen, Antzuola, Zumarraga eta Azkoitia eta Azpeitiko jendea igotzen zen Gorlako erromerietara eta erakusketan 40ko hamarkadako dantzaldietako argazkiak badituzte ere, erakusketara joandako askok oraindik ere gogoan dituzte festa egun haiek; "lehen, errepiderik egon ere ez zegoenean", Aroztegira joandako beteranoetako batek iragan-minez zioen bezala. Izan ere, bideak garbitu, postontziak jarri, iturriak egin eta txukundu... Izerdi ederrak bota dituzte mendian Pol-Polekoek, oinez bai, eta baita lanean ere. Taldeak izena zor dion iturria –Bergarako Pol-Poli dagokiona, ez Urkiolakoari–, taldearen historiako mugarrietako bat da, hain zuzen. Urkuluko urtegiak hornitu aurretik, Bergaran Pol-Polgo ura edaten zuten eta mendizaleek, egoera txarrean zegoela-eta, 1960an berriztu zuten. Argazki baten baino gehiagotan dator jasota inaugurazio egun hori, baina denetan deigarriena guardia zibil bat, apaiza, alkatea eta garai hartako presidentea agertzen direna da. 60ko hamarkada hasierako giro gordinaren lekukotza ematen du argazki horrek. Taldea sortzerakoan ere erregimenarekin tira eta bira ibili behar izan zuten eta lehen presidentea "*movimiento*-koa" izan zutelako lortu zuten Gobernu Zibilaren oniritzia. "Horren ostean, baina, presidente guztiak abertzaleak izan dira", dio Bittor Arriaran *Satorretxe*k barre txikiarekin. Istorio eta pasarteekin, egubakoitzean, beteranoek kolorea itzuli zieten zuribeltzezko une horiei.

---

**BITTOR ARRIARAN**
POL-POL MENDI TALDEA

### "Partikularregana eta artxibategi publikoetara jota lortu ditugu"


J.B.

Erakusketa bultzatu duen taldeko kide da Arriaran.

**Zergatik urte tarte hori zehazki?**
Pol-Pol taldeak lau urte barru 75 urte beteko ditu. Urte asko dira. Horregatik, nahi genuena zen hasierako urte horien argazki bilduma egitea eta, hori horrela, lehen 30 urteak hartu genituen epe modura.

**Aukeraketa zelan egin duzue?**
Partikularrengana eta artxibategi publikoetara jo dugu. Bergarako argazkilari taldearekin erakusketako 40ak aukeratu eta ahal izan dugun modura identifikatu ditugu.

---


POL-POL MENDI TALDEA

**AMESTIKO BASERRIA** Gorlarako bidean gora zegoen azken baserria zen Amesti. Bertako Joxepa andreak harrera egiten zien Pol-Poleko mendizaleei eta sarri ogia ere egiten zuen. Erakusketako argazkirik zaharrena da, erakusketa bera zabaltzen duena.


GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

**GORLAKO ATERPETXEA** (1947). Gorla da taldearen ikur eta leku kutuna. Aterpetxea ere mendi taldekoek egin zuten. Erakusketan eraikuntzaren fase ezberdinak ikus daitezke. Gaur egungo aterpetxean lehen eraikin horren zati bat ikus daiteke oraindik aldeetako baten.


BERGARAKO UDAL ARTXIBOA / R. LARRAÑAGA

**ITURRIAREN INAUGURAZIOA** (1960). Guardia zibil bat ikus daiteke irudian. Orduan Gobernu Zibilaren baimen barik ezin zen talderik eratu. "*Movimiento*"-ko kide zen Pol-Poleko lehen lehendakariari esker lortu zuten Pol-Polekoek taldea eratzeko baimena.


IÑAKI ETXEBERRIA FONDOA

**PIRINIOETAN** (1958) Ordesara egindako irteera. Argazkian ikus daiteke ibilbide luzeak nola egiten zituzten. Zaldietan eramaten zituzten ekipamendu astuna eta ibilbidea egiteko beharrezkoak ziren janari eta osagarriak.

# Ilusioaren arauek eta itzalen legeek soilik balio izan zuten Magia Mostraren gala liluragarrian

- Zapatu gauean, Espaloikoa, ilusionismoaren diziplina ezberdinez osatutako ikuskizun sorta izan zen
- Prestidigitazio saioak bikainak izan ziren eta ikuskizun handiak liluraz eta poesiaz josiak

JON BEREZIBAR | ELGETA

Frantzia, Portugal, Espainia eta Kataluniako artistekin osatu zuten zapatuko gala handia. Jatorriak bezain askotarikoak izan ziren ikuskizun motak: ilusionismoa, prestidigitazioa, mentalismoa, kartomagia... Espaloiko oholtzan, gau batez, logikaren legeek ez zuten indarrik izan.


Galako mago guztiak, amaierako agurrean. | IMANOL SORIANO

### Bost izarreko menua

Dani DaOrtiz malagarrak hartu zituen *showman* lanak eta hark gidatu zuen gala, Tamarizen eskolaren amarru jostari eta umoretsuekin. Karta-jolas biziaren zorabioaz baliatuta, ikuskizunen arteko geldiuneak entretenitu zituen grazia handiarekin. Oturuntza handietan sorbeteak bezala, plater nagusien arteko aringarria izan zen harena. Menua bost platerekoa izan zen: zigarroekin magia komikoa, espiritismo ukituko ilusionismoa, manipulazio akrobatikoa, poesia magikoa eta amaitzeko, ikuskizun magia handia. Ustekabean eta konturatzeke igaro ziren bi ordu eta pikuak. Nazioarteko magiaren bost espektakulu erakusgarri moduan saldutakoak, agindutakoa bete zuen.


Edama magoaren laguntzaileak. | I.S.


Tá Na Manga. | I.S.

### Terapia magikoa

Mario Lopez kataluniarrak tabakoa uzteko terapia magikoa proposatu zuen. Berak behintzat ezin izan zuen zigarro bat bera ere erre. Zigarroak agertu, desagertu, bat-batean ugaldu eta bat harrapatzerako filtroak buelta ematen zion magoari. Abilezia eta umorez jositako ikuskizun alaia egin zuen.

### Lilura eta poesia

Haren ostean tonua serioagoa izan zen Luis Boyano galiziarraren kabina espiritistarekin. Haren laguntzailea esku eta oinetatik lotu eta gortinen atzean ezkutatu zuen korapilo ustez askaezinekin. Izpiritu maltzur bati dei egin eta denetarik gertatu zen oihalaren atzean oholtzara igotako lekukoak harri eta zur geratzen ziren bitartean. Mentalismoa eta ilusionismoa nahastuta, lilura eragin zuen. Antzokia itxura eta itzalen mundu zoragarri baten bete betean sartua zen orduko eta Portugaldik etorritako bi mutil xarmanten proposamen poetikoak agertokian fisika eta logikaren legeek indarra galdu zutela frogatu zuten segidan. Ametsezko planteamendu baten poesiaren hitzak egia bihurtu zituen Tá Na Manga bikoteak, zapiak arrosa bihurtuta eta mugikorrak paper hondar, adibidez. Ameskeria hori apurtzera, ostera, Pilou bihurria etorri zen haur plantak egin eta kartekin eta sagarrekin malabare magikoak eginez.

### Ilusio handiak amaieran

Gala ixteaz Edama mago errioxarra arduratu zen. Kondaira txinatar baten tankera emanda, halako *show* batetik espero daitekeen guztia eman zuen: ezpatek zulatutako neska bat, beste bat kutxa baten sartuta, ezereztu arte murriztua, benetako objektu bihurtzen ziren itzalak... Guztia eszenaratze zaindu eta ikusgarri batekin borobilduta.


JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

## Regino Valleri, Beart elkartearen esker ona

Regino Valleri, urteetan Bergaran kultura sustatu eta ekimen askotan laguntzaile izateagatik, omenaldia egin zioten atzo, domeka, Beart Egunean. Goizez erakusketa egin zuten plazan eta eguerdian bazkaria egin zuten artistek omenduarekin, Agorrosinen. Xabier Ugalderen eskultura bat jaso zuen oroigarri moduan Vallek.

Ikastaroak, lehiaketak, erakusketak... Makina bat lan egin du Vallek beti Bergarako kultura sustatzeko nahiarekin. Kultura sustapen taldea eratu zuen. Orduan ereindakoek urteekin hazi eta oraindik ere fruituak ematen jarraitzen dute garai hartako ekimen asko eta askok. Hunkituta jaso zuen oroigarria atzo Vallek.

# Atsotitzek lehia bizia piztu zuten San Migel Txikietan

## Esaera zaharren lehiaketa egin dute lehen aldiz jaietan eta erakustaldia egin zuten parte-hartzaileek

**JON BEREZIBAR** | OÑATI

Lau laguneko zortzi taldek hartu zuten parte zapatuko txapelketa berezian eta umore eta memoria erakustaldi ederra egin zuten esakun, bertso eta trikiti artean. Talde guztiek 100 esaera zaharrez osatutako zerrenda jaso zuten aste batzuk lehenago. Erdiaren esanahia bazekiten eta beste erdiarena ez. Bertsolariak Egoitz Aizpuru eta Jon Irizar izan ziren eta haiek kantatutako bertsoekin, esaera asmatu beharra zeukaten parte hartzaileek. 'Izenak ez du egiten izanak' ala 'Aita biltzaile, semea gastatzaile' moduko esaerak erraz asmatzen dira baina 'Erandio, Leioa eta Loiu, arto asko erein eta gutxi koiu' ala 'Orrotza ta firu, uxa miru' modukoak igartzen gorriak ikusi zituzten parte-hartzaileek. Eguerdian, tabernaz taberna, trikitilarien laguntzarekin, kanporaketa egin zuten lehenik eta 14:00ak aldera finala jokatu zuten Oñatz eta Lupe taldeek. Finala ezin parekatuagoa izan zen eta makina bat bider berdindu eta gero, Lupe neska taldekoak izan ziren Oñatiko lehen esaera zeharren lehiaketako txapeldunak eta 100 euroko saria jaso zutenak.



Kanporaketako une bat, Pako tabernan. | J.B.



**IRENE, IRENE, MAIDER ETA UXUE**
LUPE TALDEA

"Oso urduri geunden denok finalean eta azkenean luze samarra egin zaigu. Maila nahiko altua izan dela dirudi. Geu, behintzat, gustura egon gara. Egia esateko, ez da hain erraza izan ze batzuk asmatzea benetan zaila izan da. Bertso askotan ez zen argi geratzen zer esan gura zen. Gustatu zaigu lehiaketa. Antolatuko zutela irakurri genuenean ideia polita iruditu zitzaigun eta izena eman genuen. Orain 100 euroko saria irabazi dugu eta gaur bertan gastatuko dugu jaietan".



**ANE, LEIRE, EIDER ETA ANDER**
OÑATZ TALDEA

"Irabazi ez izanaren penarik ez daukagu ze hain ondo pasatu dugu ... Horrekin nahikoa. Espero ere ez genuen egiten finalera iristea eta pozik gaude. Ikasi, ikasi dugu apur bat baina zortea ere izan dugu apur bat, egia esateko. Maila altua egon da eta ez gara iritsi abantaila handiarekin. Jendea prestatuta etorri da. Lehiaketa pila bat gustatu zaigu eta dagoeneko hurrengo urtean ere aurkeztuko garela erabaki dugu. Ea irabazterik badugun hurrengo baten!".

# Munduan zehar ahotsen bidez bidaiatzeko gonbita

**J.B.** | BERGARA

Ahots zuriek gidatutako munduan zeharreko bidaia musikala izan zen zapatukoa. Ederra eta jendetsua izan zen gainera *Ahotsen soinua* ikuskizuna, parrokia betetzeaz gain, aldarera abestera irten zirelako 150 ume eta gaztetxo. Haur hasiberrien abesbatza hasi zen Australia eta Afrikako abestiekin eta euren tartea Indiako abesti herrikoi batekin amaitu zuten. Marije Ugalde izan zuten zuzendari. Haurren abesbatzakoek, Nagore Sanz eta Marije Ugaldek zuzenduta, Bergarako Santa Marinako aldare ederra ezin hobeto aprobetxatuta, *Eguns entia* eta *Ave Maria* abestu zituzten eta Itoiz, The Police ala Leonard Cohen-en pieza garaikideekin bukatu. Nahasketa ederra egin zuten klasikotik modernoenera. Gaberoko gaztetxoek, Alaitz Urkiaren zuzendaritzarekin, Sarasolaren euskal abesti sorta aurkeratu zuten.

### Amaiera, txalotan

Amaitzeko, partaide guztiak berriz ere aldare inguruan gutxik ezagutuko ez zuten The Beatles-en *Hey Jude* abestu zuten; txalo zaparradarekin amaituta. Pianoan, Anabel Henao, Amaia Urdangarin eta Nagore Sanz zeuden.



Haurren abesbatza, zapatuko saioan. | IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

## Inprobisazio delikatua

Gasteizko Ikutu dantza taldeak inprobisaziotik abiatzen den kontaktu-dantzan oinarritutako *Amets soinua* izeneko ikuskizuna aurkeztu zuen zapatuan Aretxabaletako Arkupen. Dantzariak eta pianoaren musika, eszenatoki biluzi baten; besterik ez zuten behar izan emaitza eder eta delikatua lortzeko.

## Arteaga, Bergarako gaztetxean

Alberdaniako Inazio Mujikaren gidaritzarekin, Josu Arteaga idazle arrasatearrak *Historia universal de los hombres gato* liburua aurkeztu zuen Bergarako gaztetxean zapatuan, Angliolillo liburutegiaren eskutik. Haren lehen eleberria da eta 2009an *Hijo de Satanás* kontakizun saritutik garatu duen lan luzea da.



IMANOL SORIANO

GURE MUSIKA TALDEAK

MATXINBRADA



Matxinbrada, San Andres auzoko jaietan jo zuten kontzertuan. | EGOITZ ERASO

# "Instrumentuak jotzen jakin barik sortu genuen Matxinbrada"

Taldearen lehenengo lana izango dena grabatzen dihardute

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Matxinbrada; matxinada hitzetik eratorritako izena, iraultza aldarrikatzen duten kantuak. Pentsatu eta sentitzen dutena inongo filtro barik transmititzeko bide bezala erabiltzen du hirukoteak musika. Matxinbradarentzat mezua da garrantzitsuena, egunerokoak barrunbehetan eragindako egonezin eta amorrua bideratzeko arma perfektua. 2008an erein zuten proiektuaren lehen hazia eta gaur egunerako bidea errepasatzeko Rober, Gaizka eta Joanes-ekin egon gara.

**Nola hasi zenuten Matxinbrada?**

Punk-aren historian musika talde askok bezala, instrumentua jotzen jakin barik. Gaizka eta biok[Rober] garaje batean jotzen hasi ginen, bateria eta gitarra jotzen hasi berriak ginen, baina gogotsu pasatzen genituen orduak bertan 2008an Joanes ezagutu genuen arte. Azken honek baxua hartu eta Aretxabaletako gaztetxean entseatzeari ekin genion. Pixkanaka gure bidea jorratzen hasi ginen bertsio batzuk joaz, baina batez ere material propioa egiteko gogoarekin. Hilabete batzuez laukote izan ginen, baina berriz ere hirukote izatera buelta egin genuen.

> "Mezuak musikak baino garrantzia handiagoa du"

**Hasieratik, mezuek garrantzia handia zuten, ezta?**

Bai, guk punk musika ez dugu mezu barik ulertzen, punk musika jotzen duten taldeetatik gehien hitzak gustatzen zaizkigu; musika ere noski, baina hitzek berebiziko garrantzia dute. Musikalki orain hasi gara hobeto moldatzen, azken finean bakarrik gaude, ez dugu inolako irakaslerik izan. Musikaren teoriari buruz ezer gutxi dakigu, entzunaz eta joaz ikasten joan gara, eta harro gaude. Matxinbradaren lehen kontzertua hirurok hasi eta hiru hilabetera jo genuen Arrasateko gaztetxean. Bakarrik hiru akorde jotzen genituen, baina betidanik esan dugun bezala, letrak onak egin eta pentsatzen genuena esateko aukera zen.

**Orduan, zuen materialagatik apustu egin duzue hasieratik.**

Guztiz, sortu genuen lehenengo kantua Segurata Kabron izan zen eta hurrengoa Matxinbrada. Bertsioak jotzen ditugu, baina gure musika egiteari esfortzu handiagoa eskaini diogu. Bertsioak jotzen hasi ginenean, beti zer edo zer aldatzen genuen, gure ezaugarri pertsonala gehitzeko. Askotan jendeak dena esanda dagoela eta dena abestu dela diote, baina gure ustez, gure hitzak ezberdinak edo bereziak dira.

**Zein istorio kontatzen dituzue?**

Gehienbat gure bizitzei buruz idazten dugu; ez dugu ez garenaren itxurarik eman nahi, pozik gaude egiten dugunarekin eta ez gara musika munduan errekonozimendu bila sartu. Abestiek lagunarteko istorioak, hil zaizkigun lagunei eskainiak...askotan egunerokotasunaren isla dira ere; sufrimendua, gizartea eta sistemaren aurkako mezuak eta abar. Barruan dugun amorruaz, maitasunaz edo bestelako sentimenduez hitz egiten dute.

**Lehenengo diskoarekin lanean zabiltzate, ezta?**

Bai, orain arte zuzeneko kantu batzuk grabatuta eta maketa baterako kantu batzuk grabatuta ditugu, hauek taldearen *myspace* webgunean daude. Baina orain diskoa grabatzeko ordua heldu dela uste dugu. Esan bezala, urte batzuen ondoren gure kantuek forma hartu dute eta jotzen eroso sentitzen gara. Presa barik ibili gara, momentu egokia heldu bitartean, eta orain dela uste dugu. Dagoeneko kantuen baseak grabatu ditugu, baina pixkanaka egitea erabaki dugu, guk geuk gustura geratu artean lanean jarraituko dugu. Grabazioa guretzako planteatu dugulako, behin amaituta noski banatuko dugula, baina gehienbat urte batzuk igaro ondoren diskoa hartu eta guk egindakoaz gozatzeko planteatu dugu. Hala ere, gure asmoa uda inguruan amaitzea da, dena gure kontu egingo dugulako, autoekoizpena izango da.

**Orduan, zuen musika zabaltzea izango da beste helburua.**

Bai, printzipioz egindako kopiak lagunen artean banatuko ditugu seguruenik. Oraindik ez dugu erabaki baina agian diskoen kopiak etxean egin eta aurkezpen txukun baterekin oparitu egingo ditugu. Guretzako dirurik ez daukagunez ez diegu besteei dirurik eskatuko.

**Nola ikusten duzue gaur egungo punk eszena?**

Asko aldatu da, gaur egun ia ez daude punk talderik, Oi edo punk-Oi taldeak baizik. Horrez gain, gure ustez talde askok entzun nahi duzuna esaten dute eta horretan geratzen dira, borroka alde batera utzi dela uste dugu. Teorikoki talde erreibindikatiboenak, borrokarako orduan ez dira inon agertzen. Hori lehengo punkiekin ez zen gertatzen, askok kabroi batzuk eta putaseme batzuk zirela esango zuten, baina beti hor zeuden borrokarako prest. Hori guztiz galdu da gaur egun. Horrez gain, orain ez dira horrenbeste talde gazte ikusten, badirudi musika jo beharrean beste gauza batzuk egitea nahiago dutela, esaterako telebista ikusi edo ordenagailu aurrean orduak pasatzea.

**Bukatzeko, San Andreseko taldea izanik, Arrasateko punk mugimendutik at zaudetela uste duzue?**

Bai, askotan sentitu izan dugu. Ez dakigu erantzuna zein den, baina egoera hori da. Normalean Aretxabaletako taldeekin erlazio gehiago izan dugu. Hala ere egiten dugunarekin pozik gaude eta horrela jarraitzeko asmoa dugu.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Pisua salgai edo alokairuan Abadiñoko probalekuan; 3 logela, 3 balkoi, sukalde-jantokia, egongela handi bat, komuna eta ganbara. Interesatuak deitu telefono honetara: 615-71 12 40.

**Azpeitia.** Garmendi auzunean etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela bat ditu. Ganbara ere bai. Gela guztiek kanpoaldera ematen dute. Garagea aukeran. Interesatuak deitu telefono honetara: 943-81 27 28.

**Bastida.** Pisua saldu edo egunetarako alokatu egiten da, Bastidan (Arabar Errioxa). Herriaren erdialdean kokatuta dago. 106m2koa eta 3 logela, 2 bainu, sukaldea eta saloia dauka. Altzairuekin geratzen da. 8-10 pertsonentzat alokatzen da 65 euro eguneko, pisu osoa. Arremanetan jartzeko 600-46 32 76 telefonora deitu. alejandrojosefina@ gmail.com.

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Interesatuak deitu telefono honetara: 647-77 73 92.

**Bolibar.** Bolibarren etxea salgai, lur sailekin edo gabe. Tel.: 660-35 80 67.

**Durango.** Pisua salgai Durangoko erdigunean. Bi logela. Berriztatuta. Denak kanpora ematen du. Oso argitsua edo eguzkitsua. 120.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 695-70 24 61.

**Eibar.** Pisua salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukaldea, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar-hegoaldekoa da. Arroparako esekitokia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Interesatuak deitu telefono honetara: 656-78 60 97.

**Eibar.** Etxea salgai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztatzeko. Interesatuak deitu telefono honetara: 94-655 05 53.

**Elorrio.** Etxebizitza salgai Elorrioko erdigunean, estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 198.000 euro Interesatuak deitu telefono honetara: 634-45 72 01.

**Gasteiz.** Pisua salgai San Martin auzoan (125m2, 2. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmira ederrekoa, ipar-hegoaldera begira. Sukaldea, 3 logela, egongela eta bi komun ditu; baita balkoia, aparkaleku eta trastelekua ere. Altzari eta guzti. Berogailua gas bidez. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693-24 37 12 telefonora deitu. 253.000euro.

**Iurreta.** Iurretan, Arriaundin, etxebizitza salgai. 50.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

**Iurreta.** Iurretan Zubiaurre kalean pisua salgai. 70 m2, 3 logela, egongela, komuna eta sukaldea. 30 m2ko terraza. Berriztatzeko. Interesatuak deitu telefono honetara: 636-40 26 67.

**Leintz-Gatzaga.** Etxea salgai erdigunean. Orube handia dauka aldamenean. 160.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 677-52 46 71 / 615-74 13 47.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Interesatuak deitu telefono honetara: 685-72 78 12.

**Aulesti.** Pisu ederra alokatzen da. Behe solairua, sukalde handia, egongela, hiru logela, hiru bainugela, begiratokia, balkoia, trastelekua, egurtokia eta ortu txikitxo bat. Interesatuek deitu 620-56 85 89 telefonora.

**Bastida.** Bastidan oporretako pisua alokatzen dut piszinarekin. Torre - otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuak deitu hona: 620-62 92 45. iarteaga_@hotmail.com.

**Bergara.** Etxebizitza interesgarria ematen da errentan erdigunean. Garajearekin, eguzkitsua eta guztiz hornitua. Interesatuak deitu telefono honetara: 688-62 39 45.

**Durango.** 4 gela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berokuntza zentrala, igogailua eta argitsua. Interesatuak deitu telefono honetara: 660-05 56 43

**Elgeta.** Etxebizitza errentan ematen da Elgetako Salbador kalean. bi logela, sukaldea eta egongela. Interesatuak deitu telefono honetara: 650 23 10 19

**Elorrio.** Etxebizitza alokagai. Erdigunean eta estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 650 euro hilean. Interesatuak deitu telefono honetara: 634-45 72 01.

**Gasteiz.** Pisua alokagai Arantzabal auzoan (8. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmira ederrekoa, hegoaldera begira. Sukaldea, 4 logela, egongela eta bi komun ditu; baita aparkaleku eta trastelekua ere. Altzari eta guzti; bizitzen hasteko moduan. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 665-75 78 07 telefonora deitu. 950 euro.

**Irura.** Iruran, pisu ederra alokatzen da. Guztiz eraberritua, 80m2, lehen solairua, auzo lasaia, bizilagun eta jabe iruratar eta euskaldunak, aparkatzeko inongo arazorik gabe, eguzkitsua, Donostia eta Beasainetik 15 minutura besterik ez. Etxeko tresna berriak, instalakuntza berriak, climalit leihoak, egurrezko zorua, balkoi ederra, kanpotik eta barrutik eraberritua. Bizilagun zaratatsurik gabe. Norberak bere gustuko altzariak jartzeko aukeran. Deitu edo idatzi lasai ikusteko inongo konpromisorik gabe. Aurrekaria, abala edo asegurua beharrezkoa. joxibalerdi@gmail.com. Interesatuak deitu telefono honetara: 676-05 18 85.

**Oropesa del Mar (Castellon).** Oropesa del Mar, Marina Dor 4 - 6 pertsonantzako apartamentu berria, udan eta urte osoan zehar alokagai. Hondartzatik 150m-tara. Egongela, 2 logela, komuna, sukaldea, terraza handia, garajea, 2 igerileku eta txintxaunak. Leku lasaia. Animaliarik ez. Interesatuak deitu telefono honetara: 670-21 49 2.4 Marijo.

**Santo Domingo de la Calzada (Errioxa).** Pisu berria alokatzen da Santo Domingo herri erdian. Ezkaraitik hurbil. Denboraldietarako. 2-4 pertsonentzako. Interesatuak deitu telefono honetara: 657-77 26 13.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.**

**Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

| **1. ETXEBIZITZAK** | **3. LOKALAK** | **5. IRAKASKUNTZA** | **7. ANIMALIAK** | **9. HARREMANAK** |
|---|---|---|---|---|
| 101. Saldu | 301. Saldu | 501. Jaso | 701. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 302. Erosi | 502. Eman | 702. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 303. Errentan eman | 503. Bestelakoak | 703. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 305. Bestelakoak | **6. MOTORRA** | | |
| 106. Bestelakoak | | 601. Saldu | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | **4. LANA** | 602. Erosi | 801. Saldu | |
| **2. GARAJEAK** | 401. Eskaintzak | 603. Alokatu | 802. Erosi | |
| 201. Saldu | 402. Eskaerak | 604. Konpondu | 803. Eman | |
| 202. Erosi | 403. Bestelakoak | 604.Bestelakoak | 804. Hartu | |
| 203. Errentan eman | | | 805.Trukatu | |
| 204. Errentan hartu | | | 806.Galdu | |
| 205. Bestelakoak | | | 807.Aurkitu | |
| | | | 808. Bestelakoak | |

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223 €.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Ibarra 65 m2. 3 logela. Berriztua. 150.000 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak OSO PREZIO ONEAN.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Justo Garate 50 m², 2 logela. 10m2 terraza. Oso ondo. 210.350 €. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 150.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Tolosa.** Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det tolosan, persona bat edo bintzako egokitua,bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 500 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 609-48 11 24.

**Zaldibar.** Pisua alokatzen dugu Zaldibarren. 3 logela, altzariz horniturik. Hilean 550 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 655-70 62 68.

**Zaldibar.** Zaldibarren, herri erdigunean, pisua alokagai. 3 logela, altzariz horniturik eta igogailuarekin. Interesatuak deitu telefono honetara: 639-21 01 39.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Interesatuak deitu telefono honetara: 648 46 90 51

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Bi edo hiru logelakoa. Interesatuak deitu telefono honetara: 629-80 77 73.

**Durangaldea.** Pisu txikia alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest. Interesatuak deitu telefono honetara: 665 70 34 08.

### 105. ETXEAK OSATU

**Abadiño.** Logela bat alokagai Muntsaratz auzoan. Komun pribatua, ikuspegi paregabea, argitsua eta oso merke. Interesatuak deitu telefono honetara: 653-71 24 67.

**Abadiño.** Muntsaratzen (Abadiño) logela bat alokatzen da. Neska euskalduna bada, nahiago. Interesatuak deitu telefono honetara: 676-98 33 06.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. 300 euro gastu guztiak barne. Interesatuak deitu telefono honetara: 619-83 13 51.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Gelmako etxeetan etxebizitza osatzeko. Olaia. Interesatuak deitu telefono honetara: 687-26 46 58.

**Berriz.** Logela alokatzen da baserria konpartitzeko. Berriztatu berria eta leku paregabean. Interesatuak deitu telefono honetara: 619-66 58 57.

**Durango.** Logela bat alokagai Durangon, Ibaizabal auzoan. Komun pribatuarekin. 652-86 57 80.

**Oñati.** Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. Ruben. Interesatuak deitu telefono honetara: 688-69 49 76.

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Elgeta.** Salbador 21ean, garajea salgai. 650 23 10 19

**Elorrio.** Elorrioko Berrio-Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! Interesatuak deitu telefono honetara: 658-75 92 64.

**Elorrio.** Elorrion, Belengua kalean, garaje itxia salgai. Interesatuak deitu telefono honetara: 634-45 72 01.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Harane erreka auzoan garajea hartuko nuke errentan. Interesatuak deitu telefono honetara: 617-78 73 21.

**Oñati.** Garaje itxia hartuko nuke errentan. Kokapena eta tamaina berdin zait, urtean zehar asko erabiltzen ez diren gauzak gordetzeko nahiko bainuke. Gehien axola zaidan kontzeptua ekonomikoa izatea da, ez baitut asko erabiliko. Trasteleku bat ere izan daiteke. Interesatuak deitu telefono honetara: 625-70 86 49.

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan Bakardadeko Ama kale inguruan. Berdin da itxia edo irekia izan. Epe luzerako gurako nuke. Interesatuak deitu telefono honetara: 630-13 08 92.

**Oñati.** Garajea errentan hartuko nuke Errekalde edo Moiua kaleen inguruan. Telefonoa: 650-27 05 78.

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**ARRASATE**
Taberna salgai
Alde Zaharrean.
Tel. 666 40 65 19

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Abadiño.** Emakume sukaldari autonomoak, urte askotako esperientziadun eta elikagai manipulatzaile agiridunak, gozogintza eta etxeko platerak eskaintzen ditu: Dena etxean egina ta oso merkea!!! Informazio gehiagorako: 634-29 30 18. danagozo@hotmail.com

**Arrasate.** Neska gaztea arratsaldeetan umeak zaintzeko prest. Haur Hezkuntza ikasten. Interesatuok deitu telefono honetara: 685 77 43 24

**Arrasate.** 54 emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko esperientzias. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 79 60 89

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 54 17 27

**Azpeitia.** Zaintzaile bat eskeintzen da umeak edo gende edadetuak zaintzeko baita ere etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 695-74 88 35

**Bergara, Arrasate eta Oñatin** lan egingo nuke. Garbitasun lanak: etxebizitzak, tabernak, atarteak eta abar. Umeak edo nagusiak ere zainduko nituzke. Orduka ere bai. Berehala lanean hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono honetara: 625 86 99 51

**Bergara.** Emakume euskalduna prest goizetan etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627 96 19 22

**Bergara**. Haur hezkuntza ikasketak egiten ari den neska euskalduna, ekainean eta uztailean haurrak zaintzeko prest. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

**Debagoiena**. 18 urteko mutil espainiarrak loratzaintza lanak egingo lituzke. Gidabaimena eta esperientzia. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 32 43 67

**Debagoiena**. Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusien zaintzan jarduteko. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 32 43 67

**Debagoiena**. Emakumea gertu lanerako: nagusiak eta haurrak zaintzen zein atari, etxe eta abarren garbiketan. Brenda. Interesatuok deitu telefono honetara: 631 13 02 48

**Debagoiena**. Emakumea gertu lanerako: tabernako sukaldean, garbiketak egiten, zaintzan eta abar. Hotelean lan egin izan dut. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono hauetara: 636 11 23 40 edo 648 10 26 53

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Gauez ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 672 96 08 22

**Debagoiena**. Emakumea lan egiteko gertu, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten. Maite. Interesatuok deitu telefono hauetara: 943 76 48 26 edo 650 17 74 87

**Debagoiena**. Eritzaintza titulodun neska lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan, gauak ospitalean egiten eta abar. Autoa daukat. Debagoienetik kanpo ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono hauetara: 688 80 27 01 edo 943 25 02 96

**Debagoiena**. Erizain laguntzailea prest lana egiteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 79 96 25

**Debagoiena**. Garbiketa lanetan lan egingo nuke: garajeak, baserriak, tabernak eta etxebizitzak garbitzen, baita mezulari moduan ere. Pascual. Interesatuok deitu telefono honetara: 625 96 73 33

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Nagusiak zaintzen edo nekazaritzan arituko nintzateke. Etxean bizi izaten edo orduka. Lege dokumentuak eta erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono honetara: 630 45 51 03

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: nagusiak zaintzen, taberna, jatetxe eta abarrak garbitzen, gidari edo igeltsari. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: zaintza lanetan zein atari, taberna eta abarrak garbitzen. Interesatuok deitu telefono honetara: 661 94 19 13

**Debagoiena**. Mutila lanereko gertu: nagusiak zaindu, garbitasun lanak eta abar. Interesatuok deitu telefono hauetara: 943 53 35 82 edo 691 72 67 38

**Debagoiena**. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena**. Neska arduratsua lanerako gertu. Garbiketan edo ume eta nagusiak zaintzen

esperientzia daukat. Etxean bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono honetara: 617 64 08 48

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna. Etxe, atari, taberna eta bestelako garbiketak egingo niutzke eta baita nagusiak zaindu ere. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz zein orduka. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egunez zein etxean bertanbizi izaten. Manikura eta pedikura lanak ere egingo nituzke. 727 74 42 36

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaindu eta sukalde zein garbitasun lanetan. Interesatuok deitu telefono honetara: 688 68 12 79

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu zein garbiketak egiten. Orduka edo egun osoz. 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska arduratsua orduka lan egiteko gertu, etxeetan, tabernan. Bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 648 46 90 51

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zaintzen, garbiketak, atariak eta abar. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danny. Interesatuok deitu telefono honetara: 680 87 38 66

**Debagoiena.** Neska zaintza lanetarako gertu: etxean bizi izaten, egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 671 10 39 13

**Debagoiena.** Nikaraguako neska nagusi zein umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 14 42 86

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 633 28 81 24

**Debagoiena.** Prest nago etxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko. Tel. 647 10 58 72

**Debagoiena.** Udan umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen neska euskalduna naiz. Interesatuok deitu telefono honetara: 653 70 85 52

**Durangaldea.** Nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo umeak zaintzeko lan bila nabil. Lanaldi osoan zein erdian, gauez ere bai. Erreferentzia onekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 609-88 79 21.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila dabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 689 -43 64 54 .

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Egunez edo orduka. Bizileku-baimenarekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 686 -19 00 24.

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko, garbiketan zein sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 680-54 48 62.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko 24 orduz edo egunez, zerbitzari lanetan, sukaldeko laguntzaile edo etxeko lanetan aritzeko lan bila. Tel.: Interesatuok deitu telefono honetara: 602-65 39 64.

**Durangaldea.** Bikote bat lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen zein etxeko lanetan. Gidatzeko baimenarekin. Tel.: 697-66 48 18 (Roni) // 659-16 93 77 (Hilda)

**Durangaldea.** Emakume arduratsua eta erreferentziaduna lan bila. Pertsona nagusien zaintzan 24 orduz edo egunez, sukaldeko laguntzaile edo garbiketan orduka. Tel.: 608-65 90 55 //602-80 83 85 (Nieves)

**Durangaldea.** Abadinoko 33 urteko neska euskalduna etxeak garbitzeko, plantxa egiteko edo pertsonak zein umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 658-73 80 48 (saioa).

**Durangaldea.** Nagusiak zein umeak edo etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 608-27 18 73.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edo garbiketan aritzeko prest. 30 urteko neska, erreferentzia onak. 24 orduz, egunez edo orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 697-93 85 65 (Rosmary Alvarez).

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Esperientziarekin eta erreferentziakin. Interesatuok deitu telefono honetara: 651-34 12 38.

**Durango.** Euskal jantziak, arropa konponketak, gortinak... egiten ditut. Interesatuok deitu telefono honetara: 675 -70 72 75.

**Durangaldea.** Edozein ordutegitan 24 orduz zein egunez eta edozein lanetan aritzeko prest. Etxeko lanetan, zaintzan zein garbiketan. Interesatuok deitu telefono honetara: 603-48 80 27 (Nira).

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko, garbitzaile lanak egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Bizileku- baimenarekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 636-44 59 01.

**Durangaldea.** Garbiketan aritzeko (tabernak, etxeak, portaleak) zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 653-29 86 17.

**Durangaldea.** Itzulpenak, zuzenketak, azpitituluak eta edonolako hizkuntza zerbitzuak eskaintzen ditut. Euskara, ingelesa, frantsesa, gaztelania... Arlo guztietako testuak: ostalaritza, ikasleak, enpresak, komertzioak... Bideoentzako azpitituluak sortzen ditut: korporatiboak, iragarkiak, filmak, bideoklipak, dokumentalak, albisteak, internetekoak... info@eleanitz.eu

**Durangaldea.** Kontsulta psikologikoak. Helduak - bikote arazoak, banaketak, antsietatea. Interesatuok deitu telefono honetara: 656-72 30 21.

**Durangaldea.** Tabernetan garbiketa lanak egiteko prest. Eta bestelako lanak egiteko ere bai. Tel.: 647-24 23 01 (Markel).

**Durangaldea.** Goizez, arratsaldez, gauez, asteburuetan zein jaiegunetan garbiketan zein zaintzan aritzeko prest. Esperientzia gaixorik dauden nagusiak zaintzen. Tel.: 690-68 73 95.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua eta erreferentziaduna pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile lanetan lan bila dabil. 24 orduz, egunez edo orduka. Tel.: 608-65 90 55.

**Durangaldea.** Erreferentziak dituen emakumea lan bila. 24 orduz edo egunez, orduka, gauez zein asteburuetan aritzeko prest. 669-52 73 27.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, gauez... 696-75 35 30.

**Durangaldea.** Lan bila nabil, nagusiak zaintzen edo garbiketan. Lanaldi osoan edo erdian, baita gauez ere. Erreferentzia onekin. Segituan hasteko. Paperak erregulatuta . Telefonoa: 650-61 01 94.

**Durangaldea.** 24 orduz edo egunez, asteburuetan zein gauez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientziaduna. Gidatzeko baimena. Tel: 619-13 07 16.

**Durangaldea.** 24 orduz edo egunez, asteburuetan zein gauez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientziaduna. Telefonoa: 628-86 41 86.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 24 orduz edo egunez. 620-16 14 96.

**Durangaldea.** Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. 24 orduz edo egunez. Telefonoa: 632- 32 07 27.

**Durangaldea.** Emakumea lan bila, 24 orduz, egunez, gauez, asteburuetan edo orduka. Tel.: 690-11 62 94.

**Durangaldea.** 33 urteko neska nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest. Osasun osagarria. Tellefonoa: 691- 23 32 20.

**Durangaldea.** Asteburuetan zein astean zehar pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko zein garbiketarako prest. 631-26 28 68.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila nabil. 24 orduz edo egunez. 632 -32 07 27.

**Durangaldea.** Emakumea umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz edo egunez. Paperak araututa. 629-18 02 71.

**Durangaldea.** Asteburuetan, gauez zein orduka nagusiak zaintzeko prest. Telefonoa: 634 -00 82 22.

**Durangaldea.** Gaueko txandan edo goizez pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. 673-68 97 69.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez, baita asteburuetan ere. 602-07 19 11 (Patricia).

**Durangaldea.** Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Tel.: 649 -35 96 06.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Tel.: 669-50 16 53.

**Durangaldea.** Nagusiak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko lan bila. 600-72 84 37.

**Durangaldea.** Esperientzia duen neska 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila dabil. 672-85 39 30.

**Durangaldea.** Neska arduratsua, esperientziaduna eta erreferentzia onekin, 24 orduz edo egunez, asteburuetan edo orduka pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila dabil. Paperak eguneratuta. Tel.: 628 -00 22 17.

**Durangaldea.** 24 orduz, egunez edo orduka pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketan aritzeko lan bila. 602 -89 44 78.

**Durango.** Andre euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Urte askotako eskarmentuarekin. Tel.: 699- 74 57 23.

**Elorrio.** Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez (durangaldean) haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

**Elorrio.** Arratsaldetan, pertsona nagusiak edota ezinduak paseatzera atera edota konpainia egiteko prest dagoen neska gaztea naiz. Mendekotasuna duten pertsonenganako arreta ikasten ari naiz. Interesa baduzu, jarri nirekin harremanetan. 688 -64 06 04. Mila esker.

**Lan ezberdinak egiteko prest.** Lorategi lanak eta eraikuntza lanak egingo nituzke. Bi urtetako esperientzia igeltsero gisa. Mudantza lanak egiten ere lagundu nezake. Interesatuok deitu telefono honetara: 663 34 70 36

**Sukaldari laguntzailea lanerako prest** Debagoieneko herri guztietan sukaldari laguntzailea, zerbitzaria eta garbitzailea eskaintzen da. Interesatuok deitu telefono honetara: 610 93 98 21

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Debagoiena.** Ekonometria ikasgaia ematen duen irakasle bila nabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 652 -73 12 34.

**Plano mekanikoak.** Goi zikloko plano mekanikoen interpretazioan laguntzeko eskola partikularrak jasoko nituzke, astean bizpahiru egunez. Interesatuok deitu telefono hauetara: 646 36 68 02 edo 943 76 47 56

### 502. EMAN

**Durangaldea.** Neska gazte bat eskola partikularrak emateko eskaintzen da. LH, DBH zein Batxilergoan. Ekonomian lizentziatua. DBH eta Batxilergoan irakasle izateko masterduna, eta EGA tituluduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 635-74 67 98.

**Durangaldeko** neska euskalduna. Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaslea; ingeleseko first tituluarekin eta pedagogia terapeutikoarekin. Umeak zaintzen, partikularrak ematen, begirale eta irakasle bezala esperientziaduna. Partikularrak emateko edo umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 628-04 51 25.

**Durango.** Klase partikularrak , ikas teknikak (lan ohiturak , motibazioa): erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloak ; LH, DBH eta Batxilergoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 656-79 15 99.

**Durango.** 24 urteko mutil euskalduna eta Lehen Hezkuntzan diplomatua eskola partikularrak emateko prest. 695-73 69 94 edo emaila: k.anderez@hotmail.es

**Elorrio.** Lehen hezkuntzako edozein kurtsora zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688 -64 06 04.

**Villabona.** Ingleseko eta frantseseko klase partikularrak ematen ditugu. Taldeka edo bakarka. Hizketaldiak,azterketak. Bakarkako klaseak zure etxean eman ditzazkegu edo gure estudioan. Lehendabiziko eguna proba moduan izanik,gero zuk erabaki. Tel: 664-16 02 68.

**Villabona.** Klase partikularrak ematen dira: ingelesa,frantsesa, matematika,fisika, kimika, eta abar. Taldeka edo bakarka. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@yahoo.es.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A4 kotxea salgai.** Audi A4 kotxea salgai. Oso egoera onean. 160.000 km. Tel.: 673 -49 36 39.

**Autoa.** Karneta atera berra badaukazu edota zure kontu autoan ibili nahi baldin baduzu, zuretzako auto ezin hobea daukat, 71.000 km erreal dituen polo coupe gt 1.3 55cv. Prezioa 999 euro negoziagarriak. Deitu ezazu, 695-70-62-27.

**Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai.** Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai, 22.300 km. Irrati-cd-mp3, abiadura-mugatzailea, ispilu elektrikoak, barne- ordenagailua, ia-ia berria eta durangaldetik bakarrik erabilita. IAT 2013ko azarora arte pasata. 7.500 euro negoziagarri. 618-93 62 14.

**Citroen jumper 2.2 100 cv hdi diesel furgonera salgai.** Furgoneta salgai: citroen jumper 2.2 100 cv hdi diesela.73.000 km. Tel.: 618-93 62 14.

**Furgoneta salgai.** Mercedes viano fun furgoneta luzea salgai. Kristal tindatuak. Bizikletak eramatekoa. Mahai eta ohearekin.6 lagunentzako lekua. Oso egoera onean. Zatoz ikustera! 615-00 72 16.

**Honda Hornet cb 600 motorra salgai.** Honda Hornet cb 600 motor horia salgai. 2008. urtekoa. 10.200 km. Bi jaka (Alpinestar L tamaina eta Levior M tamaina), hiru kasko (Hebo L tamaina, Lem S eta M tamainak) eta eskularru pare bat oparitzen ditut. Prezioa: 5.600 euro. 629-45 52 41.

**Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai.** 1999. urteko Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai, 105 CV. Ohea, aulkiak, mahaia, pintura berria, larruzko aulki berriak, leiho automatikoak, klimatizagailua, ABS eta aparkatzeko sentsoreak. Tel.: 673-49 36 39.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ahuntz eta aumak salgai.** Ahuntz eta aumak salgai. 695 -71 00 68.

**Aharia eta ardia salgai.** Latxa arrazako urtebeteko ahari ederra eta ardi bat saltzen dira. 94-621 82 57.

**Txintxillak salgai.** Martxoaren 14an jaiotako 3 txintxilla eme ditut salgai, umeentzako maskota egokiak. Jadanik denetarik jaten dute. Janari apur bat eta txosten batekin ematen dira (bertan, txintxillei buruzko informazioa dator) informazio gehiago nahi izanez gero txintxillak@gmail.com edo 634 778 458 (Izaskun)

### 703. EMAN

**Txakurkumea opari.** Txakurkume bat opari ematen dugu. Emea. Aita labrador beltza, eta ama villano alano arrazakoa. Tel.: 645-73 77 01.

**Pointer txakur emea oparitzen da.** Pointer txakur emea, 3 urtekoa, zuri-beltza, oso oso polita, kumeak egiteko aproposa oparitzen da. 616-91 90 61.

**Txakurkume mestizoak opari.** Aurki bi hilabete egingo dituzten txakurkume mestizoak ematen ditut opari. Inigo. 688 -92 00 86.

**Txakurkumeak opari.** Labrador arrazako txakurkumeak opari. Pedigriarekin. 606-70 65 08. Carlos

**Txakurkumeak opari.** Txakurkumeak oparitzen ditut. Hilabete bat dute. Arra edo emea. 648-63 58 06.

**Txakurkumeak opari.** Brako eta ardi txakur nahasketa. Astebete daukate. Beltz kolorekoak. Interesatuok deitu zenbatki honetara: 637-90 57 15.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoi diatonikoa.** Tekladuna, salgai. Polita. 80 baxukoa. 400 euro. Atzerrira bizitzera noalako saltzen dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 74 00 61

**Belarra mozteko honda 57ht hws inox gasolinazko makina salgai. .** Belarra mozteko; honda 57ht hws Inox gasolinazko makina salgai. 2012ko uztailean erosia. Faktura eta 3 urterako bermea dauzka. Aitor. Tel.: 665-72 17 18. Posta: a.arteaga@terra.es.

**Bernedo.** Lursail eraikigarria urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. 665-75 78 07 (Ana). ana.vitoria.gasteiz@gmail.com

**Bolibar.** Bolibarren lursaila salgai. Tel.: 660-35 80 67

**Kanpadenda salgai.** Marechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonarentzat. Aukera ezinhobea! 100 euro. Tel.: 615-00 72 16.

**Ostalaritzako materiala salgai.** Negozioa ixten delako, ostalaritzako materiala salgai. Edalontziak, mota guztietako platerak, mahai-tresnak, makina erregistratzailea, lanparak, aulkiak.... Dena egoera onean, oso gutxitan erabiliak. 674-96 03 64.

**Quinny freestyle xl (silla+-kapazoa).** Quinny freestyle xl. Kapazoa (gris iluna) berria da eta silla (beltza) oso egoera onean dago. Sillak lau posizio ditu eta posizio batean erabat etzaten da. Silla bi norantzatan jarri daiteke, haurra zuri begira dagolea edo aurrera begira. Gehigarriak: euritik babesteko plastikoak. 350 euro. 660-25 25 13 (Ana)

**Sofa salgai.** 3 plazako sofa salgai. Chaise longuearekin. Oso ondo zaindua. Interesatuak deitu: 615-00 72 16.

### 802. EROSI

**Akordeoi kromatikoa.** Akordeoi kromatikoa erosiko nuke. 607-16 03 60 / 607-15 26 62.

**Babycook duo.** Babycook duo erosi nahi dut. 635 70 05 14

**Haurren aulkirako zakuak.** Bugaboo Donkey haurren aulkirako bi zaku berdin erosiko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635 70 05 14

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 84 10 82

### 803. EMAN

**Bidali zure ordenagailua Peru eta Boliviara.** Hondatuta,zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Bolivia eta Peruko eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

### 804. HARTU

**Musika tresnak.** Batukada Feministak perkusioko musika tresnak behar ditu, nahiz eta egoera txarrean egon, birziklatu egingo ditugu.Etxean edo entsailu lokaletan musika tresnaren bat kentzeko edo botatzeko edukiz gero,jarri harremanetan 615 78 10 68 telefonoran.

### 805. TRUKATU

**Lursailak.** Hiru zaldirentzako Arrasate-Eskoriatza inguruan lursailen bila nabil. Trukean, lursailen mantenua eta garbiketa egingo nuke. Sastrakak kentzeko makina daukat. Telefonoa: 697 41 66 24

### 806. GALDU

**Belarritakoa Bergaran.** San Pedro kalea eta Correos bitartean erdian zirkonita brillantea duen zilarrezko belarritakoa galdu dut. Aurkitu baduzu, deitzea eskertuko nizuke. 637 52 89 83

**Betaurrekoak Bergaran.** Orain dela aste batzuk Bergarako erdialdean, eguzkitako betaurreko batzuk galdu nituen. Graduatuta daude. Fundaren barruan zeuden. Beltzak eta txuriak dira. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 617 51 27 71

**HTC telefono mugikorra.** Larunbat iluntzean edo gauean, apirilak 27, HTC markako telefono mugikorra galdu nuen Bergaran edo Antzuolan. Zuria da. Mesedez, aurkitu duenak dei diezadala: 695 95 07 24

**Marmot jaka beltza.** Zira beltza galdu dut: Marmot etxekoa, baltza eta txanoarekin. Aurkitu baduzu deitu eidazu mesedez eta bila fango naiz. Eskerrik asko. 678 53 12 25

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Bikotekide liluragarriaren bila.** Udaberriaz batera, bat-batean konturatu zara norbaitekin eskutik helduta gauzak ederragoak direla?, momentu onak eta txarrak norbait konpartitzeko aukera izatea gustuko zenuke? auurera jarraitzeko ilusioa emango dizun bat behar duzu batzuetan?. Ba hemen naukazu . Bilboko 54 urteko neska alaia, irekia, oso soziablea naiz. Zinema, bidaiak, itxasoa, hondartza, irakurtzea, kantatzea, lagunekin pasieran ibiltzea, txangoak egitea e. A... Dira nire zaletasunak. Antzekoa bazara animatu eta deituidazu elkar ezagutzeko eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Harreman iraukor baten bila nabil, baina adiskidetasuna ere oso gauza polita da zure zain telefonoa: 606-25 05 84.

**Euskara-Frantsesa.** Mintzapraktika egiteko jende bila nabil. Deitu 685 76 59 73 telefono honetara.

**Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila.** Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil,46 urte ditut,altua eta morenoa naiz,ez ditut kargarik. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Deitu telefono honetara 609-48 11 24.

Etxebila higiezinak
9 4 3 - 4 4 61 66
ALOKAIRUAN
**ERDIALDEA:** Urbieta. Apartamentua. Igogailua. Hutsa edo haltzariekin. 600€
**ERDIALDEA:** Autonomia. 2Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 675€
**AMARA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berogailua. 650€
**AMARA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Parkin pribatua. 590€
**MARTUTENE:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Parkina. 550€
**ASTIGARRAGA:** 3 logela, sukaldea, egongela, 2bainugela. Terraza handia. 700€
**EGIA:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Haltzariak. 700€
**LEZO:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 500€
**HERNANI:** Oso polita. 2Logela, sukaldea, egongela, bainugela. 700€
SALMENTAN
**INTXAURRONDO:** 75 m2. 2 logela, 25 m2-ko egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 2 trasteleku handi. Aparkalekua. 225.000 €.
**AMARA:** Apartamentua. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. 93.000€
**AMARA:** Amara hasieran. Altua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 180.000€
**AMARA:** Azkena. Amara hasieran. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 186.000 €.
**GROS:** Jose Arana. Apartamentu berritua. Balkoia. Trastelekua. Kalera. 230.000 €.
**EGIA:** Mandasko dukearen kalea. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 231.000 €.
**EGIA:** Karmengo Andre Mariaren kalea. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. 185.000 €.
**ANTIGUA:** atikoa. Oso bista politak, itsasora. Eguzkitsua. Sartzeko. 99.500 €.
**ANTIGUA:** igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Garaje itxia. 248.000 €.
**MARTUTENE:** Berritua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Izkina. 126.000 €.
**LOIOLA:** Sierra Aralar. Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 150.000 €.
**ASTIGARRAGA:** 60 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kalera. Bistak. 99.900 €.
**HERNANI:** igogailuakin. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Berritua. 145.000 €.
**ZARAUTZ:** duplexa. 98 m2. Terraza. Bistak itsasora eta hondatzara. 260.000 €.
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA



Lehen webgunearen pantaila irudia. | CERN

# Historiako lehen webgunea abiatu zenetik, 20 urte

## Tim Bernes–Lee fisikariak eskegi zuen lehen dokumentua, libre eta doan

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Orain dela 20 urte erabaki zuen CERN-ek (Ikerketa Nuklearretarako Europako Kontseilua) Interneterako sarbidea publiko eta doako egitea. Historiako gertaera teknologikorik garrantzitsu horretatik bi hamarkada bete dira. World Wide Web delakoa sortzeko oinarriak zabaldu zituen CERN-ek: HTML hizkuntzaren, HTTP protokoloaren eta webean objektuak lokalizatzeko sistemaren oinarriak publiko egin zituzten. Horren berri ematen duen webgunea bera, atzera ere eskegi dute urteurrena ospatzeko..

Tim Berners-Lee fisikari ingelesa izan zen egitasmoaren burua. Interneten aita bezala ere ezagutzen den zientzialariak 1980 urtera arte egin zuen lan CERNen eta haren asmoa zen zientzialarien artean informazioa trukatzeko beharrari erantzutea. Internet HTML, HTTP protokoloa eta URLen lokalizazioarekin lotzea proposatu zuen hark eta horrek eman zuen emaitza modura gaur egungo sareen sarea. Teknlologia hori, hain zuzen, oinarri oinarrian gutxi aldatu da lehen urratsetatik gaur egunera arte. Unibertsitateen arteko sare bezala hasi zena bizkor zabaldu zen esparru akademikoetatik kanpo ere CERNek 1993 urtean dokumentu historikoa eskuragarri jarri zuenetik..

### Berriz ere 'on-line'

Publiko jarri zuten lehen webgunea Tim Berners-Lee berarena izan zen, gainera. Hain zuzen, World Wide Web artean berri horri buruzko argibideak eta jarraibideak ematen ziren historiako lehen webgunean. Urteurrena ospatzeko berriz ere eskegi egin dute webgunea, 1993 urtean zegoen bezala.

# Facebook-en etorkizun dudakoaren datu gehiago

## Erabiltzaile kopuruak behera egiten segitzen du, baina mozkinetan hazi egin da konpainia

**J.B.** | ARRASATE

Alde handiarekin, erabiltzaile gehien dituen sarea bada ere, geroago eta nabarmenago, erabiltzaileek Instagram, ala neurri txikiagoan, Path moduko sare sozial espezifikoagoetara jotzen dute. Gainera, hasieratik erabiltzaile gehien izan dituen herrialdeetan goia jo du Facebook-ek. Alde handiarekin, erabiltzaile gehien dituen sarea bada ere, geroago eta nabarmenago Instagram, ala neurri txikiagoan, Path moduko sare sozial espezifikoagoetara jotzen dute erabiltzaileek.

### Goia jota herrialde batzutan

Etekin ekonomikoetan, momentuz, aldaketa horrek ez du eraginik izan baina burtsan dagoenetik, inbertitzaileek oso gertutik jarraitzen dituzte joera horiek, Facebooken luzerako errendimendu ekonomikoak zalantzan jarraitzen du-eta. Hain zuzen, Europan eta Estatu Batuetan erabiltzaile kopuruari dagokionez goia jo du honezkero Facebook-ek eta egoera honetan galeretara jo dezake Mark Zuckerbergen konpainiak. Bisita kopuru orokorrak %4 egin du behera –datu ofiziosoen arabera– Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan, zehazki 6 milioi bisita gutxiagorekin. Hala ere, erabiltzaileek bataz beste Facebook-en ematen duten denborak ere behera egin du: abenduan 121 minutu izan ziren eta urtarrilean, adibidez, 115. Aipatutako herrialdeez gain Facebookek arrakasta handien Alemanian, Canadan, Espainian, Frantzian eta Japonian izan du. Facebook-en aspaldiko nobedade falta omen da erabiltzaileak gogaitzera eraman dituena eta Instagram (Facebook-en jabetzakoa) atera da garaile, ematen duenez, alternatiba bezala, argazkien sare sozial horrek urte eta erdian 30 milioi erabiltzaile irabazi baititu. Gaur egun Hegoamerikan soilik dabil hazten Facebook modu esanguratsu baten.

### Irabaziek, gora

Lehen begiradan kontraesankorrak dirudite albiste askok. Ustezko erabiltzaile galerarekin batera Zuckerbergen konpainiak geroago eta gehiago fakturatzen duela eman da ezagutzera azken datuekin. 2013ko lehen hiruhilekoan sare sozialak 166 milioi euroko irabazi garbia izan zuen, iazko epealdi berdinarekin alderatuta, %6,8ko hazkundearekin. Sarreretatik %43 dator publizitatetik eta horren barruan %30 gailu mugikorretatik dator. Igoera gertatu da hemen ere eta konpainiatik zabaldutako datuen arabera hileko erabiltzaile aktiboen kopuruak ere gora egin du (%26 igo da aurtengo martxora arteko epealdian, iazkoarekin konparatuta) hilean 1.110 erabiltzaile aktibo dituzte, guztira.



iTunes–en bilakaeraren grafikoa. | APPLEWEB

# iTunes dendak 10 urte bete ditu, merkatuaren nagusitzari eutsita

**J.B.** | ARRASATE

Gaur egun dirutza egiten du musika denda digital horrek eta Apple-eri urtero 12 mila milioi dolarretik gorako irabaziak dakarzkio. *iTunes Music Store* izenarekin abiatu zuten zerbitzua 2003 urteko apirilaren 28an eta halako lehen zerbitzuetako bat izan zen. 2001ean merkaturatu zuten iPod musika jotzailearen osagarri moduan planteatuta, sekulako zabalkundea izan zuen musika salmenta zerbitzuak ere, jotzailearen arrakasta itzelarekin bat. Urteekin, liburu digitalak, filmak, aplikazioak… etorriko ziren eredu berberari jarraituz. 2003an eskaintzen zituzten 200.000 abestiz osatutako katalogoa ziztu bizian hazi zen zen eta gaur egun 35 milioi kantutik gora ditu iTunes-ek.

# Tableten merkatuan nagusi da dagoeneko Google-en Android, sistema eragile moduan

**J.B.** | ARRASATE

Android sistema eragilea darabilten tableten ekoizle guztien kopurua jada iPad-ena baino handiagoa da lehen aldiz. orain arte, iOS baitzen nagusi. Android-ek tableten merkatuan %56,5eko kuota dauka, Apple-ek baino 15 puntu gehiagoko kuotan. Hori bai, iPad-a tabletik errentagarriena da oraindik orain. Apple-ek %40 dauka eta Microsoft-ek, Surface modeloarekin, %1,8a. Diru gehien Apple-ek irabazten du.

### Tablet merkeak

Android sistema erabiltzen duten Samsung, Asus, Sony eta Acer fabrikatzaileen gailuek eman diote nagusitza Google-en sistema eragile ezagunari; %142,4 hazi dira salmentak 2012 urtearekin alderatuta. Sistema eragile moduan, hortaz, Android da nagusi merkatuan baina Apple da, ekoizle moduan, tablet gehien saltzen dituena kopuru aldetik. Tableten salmentatik diru gehien ere Apple-ek egiten du, gainontzekoek nagusiki tablet merkeak saltzen baitituzte. Apple-ek jadanik 19,5 milioi tablet saldu ditu, Samsung bigarren ekoizle nagusiaren salmentak bikoiztuz.

# Leihora konektatzeko entxufea

**Eguzki–energiarekin dabilen entxufea momentuz propotopoa besterik ez da baina Kyuho Song eta Boa Oh diseinatzaileen proposamenak jada fabrikatzaileen arreta biziki piztu du. Eguzki–plaka bat, bentosa eta energia bihurgailua ditu entxufeak.**


YANKODESIGN

## TELE-BEGI



IMANOL GALLEGO

# Argiren 'GH-gate'

Jendeak ez du sinistuko baina lehen edizioa eta gero ez dut *Gran Hermano* jarraitu. Egia da Mercedes Milaren pailazokeriak, tarteka, Internet bitartez jarraitu ditudala, baina gero eta agerikoagoa da Milak, audientzia ona lortzearren, haren anaia Lorenzo ere salduko lukeela. Lankide bat oso haserre iritsi da gaur lanera. Bera *GH*-ren jarraitzaile sutsua da eta kontatu didanaren arabera, Argik, txoriburu eta neska txolinaren arteko nahasketa den parte-hartzaile koitaduak, nik baino aho handiagoa dauka. Itxuraz, zortzi ordu irauten duten elkarrizketa aspergarri horietako baten zera esan zuen: "ETA buelta dadila eskatzen zuen manifestazio batera joan nintzen". Ez, ez da urteko komentariorik zuzenena izan. AVTk makinaria martxan jarri eta kalera bota dute neska. Egia da bizkor damutu zela, baina kamerek guztia grabatu zuten. Dena den, egun batzuk lehenago beste batek "Marta del Castillo baino galduago nago" esan ostean ez da ezer gertatu. Akaso, El Cuco-ren amak Telecinco-ra deitu du? Argi ez da oso argi ibili, nahiz eta, agian, batzuek usteko duten garrantzia gehiegi eman zaiola esaldi horri.

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 6



**Eraikuntza gaiak**

Arizmendi Ikastolakoek *Magazinea*-n Natura eta Eraikuntza jardunaldiei buruz jardungo dute. | **20:15**

**12:00** Magazinea
**13:00** Gurean gaur
**13:30** Zorion Agurrak
**13:36** Onein
**14:14** Ekogune
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:18** AZK2012
**16:18** Pedalka
**16:48** Zorion Agurrak
**16:53** Berriak
**17:18** Eguraldia
**17:21** Onein
**17:47** Ikusi irratia
**18:21** Ekogune
**18:51** Ikusmira
**19:14** Altxorraren bila
**19:46** Zorion Agurrak
**19:51** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**22:00** Harmailatik
**22:45** Berriak
**23:05** Eguraldia
**23:08** Magazinea
**23:53** Harmailatik

MARTITZENA, 7



**Erlabio asiarrak**

Espezie inbaditzaile horren aurrean hartu beharreko neurriak azalduko dituzte adituek. | **20:15**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Ekogune
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:10** Harmailatik
**15:50** Onein
**16:25** AsteON
**16:55** Zorion Agurrak
**17:00** Berriak
**17:20** Eguraldia
**17:23** AZK2012
**17:48** Altxorraren bila
**18:20** Ikusi irratia
**18:56** Harmailatik
**19:41** Zorion Agurrak
**19:46** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** AZK2012
**22:00** Berriak
**22:20** Eguraldia
**22:25** Magazinea
**23:10** Bizitegia
**23:38** Berriak
**23:58** Eguraldia
**00:23** Berriak
**00:43** Eguraldia
**00:46** Magazinea

EGUAZTENA, 8



**Tabakoa laga**

Osasun Ikasgelan, eguazten honetan, erretzeari uzteko aholkuak emango dituzte *Magazinea*-n. | **20:15**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:18** Harmailatik
**14:03** Pedalka
**14:38** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Klaketa
**15:45** Onein
**16:07** Harmailatik
**16:52** AZK2012
**17:22** Zorion Agurrak
**17:27** Berriak
**17:47** Eguraldia
**17:49** Ikusmira
**18:05** Ikusi irratia
**18:38** Bizitegia
**19:08** Beranduegi.tv
**19:38** Zorion Agurrak
**19:44** Berriak
**20:09** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:31** AsteON
**22:01** Ekogune
**22:31** Berriak
**22:51** Eguraldia
**22:53** Magazinea
**23:38** Harmailatik
**00:10** Berriak
**00:30** Eguraldia

EGUENA, 9



**'Pedalka'**

Alpeetako ibilaldian Aravis eta Sasies mendateetatik igaroko gara hirugarren egunean. | **21:51**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Altxorraren bila
**13:47** Ikusmira
**14:03** Onein
**14:41** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Ikusmira
**15:29** AZK2012
**15:59** Berriak
**16:19** Eguraldia
**16:22** Onein
**16:57** Bertso saioa
**17:32** Planik bai?
**17:52** Hitzlandia
**18:19** AZK2012
**18:49** Onein
**19:08** Zorion Agurrak
**19:13** Beranduegi.tv
**19:38** Planik bai?
**19:58** Berriak
**20:18** Eguraldia
**20:20** Magazinea
**21:05** Gurean gaur
**21:50** Pedalka
**22:20** Planik bai?
**22:40** Berriak
**23:00** Eguraldia
**00:05** Magazinea
**00:50** Klaketa
**01:05** Eguraldia

BARIKUA, 10



**'Planik bai?'**

Asteburuko aisialdi agenda guztiaren berri emango du Arantzazu Ezkibelek *Planik Bai* saioan. | **17:33**

**00:03** Eguraldia
**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Zorion Agurrak
**13:10** Gurean gaur
**13:40** Onein
**14:10** Pedalka
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Planik bai?
**15:28** AZK2012
**15:58** Ikusmira
**16:14** Beranduegi.tv
**16:44** Zorion Agurrak
**16:50** Planik bai?
**17:10** Berriak
**17:30** Eguraldia
**17:33** Planik bai?
**17:53** Altxorraren bila
**18:25** Zorion Agurrak
**18:31** 28.Klip
**19:03** Beranduegi.tv
**19:28** Ikusmira
**19:43** Zorion Agurrak
**19:46** Berriak
**20:10** Eguraldia
**20:13** Planik bai?
**20:33** Gurean gaur
**21:00** Pedalka
**21:30** AZK2012
**22:00** AsteON
**22:30** Berriak
**22:50** Eguraldia
**22:53** AsteON
**23:23** Planik bai?
**23:43** Berriak

### ARRASATE IRRATIA

**Mendi Tour zinema jaialdiari buruzko elkarrizketa**

Martitzenean egingo duten mendiari buruzko Mendi Tour film jaialdia izango da elkarrizketaren ardatza astelehenean, 11:00etan. Antolatzaileekin jardungo dute Arrasate Irratikoek eta ikusiko diren 8 filmen berri emango dute haiek. Iazko arrakasta errepikatzea espero da aurten.

**Lipusen 'Publikoari gorroto' ikusteko sarreren zozketa**

Huts Teatrorekin etorriko da eguenean gaztetxera Ander Lipus ezaguna, Kooltur Ostegunak-en beste saio baten. *Publikoari gorroto* lana antzeztuko du markinarrak eta irratian sarrerak zozkatuko dituzte ohiko bideetatik: 943 25 05 05era deituta eta *irratia@goiena.com*-era idatzita.

**Gazte Bulegoaren berri Arrasate Irratian, eguaztenero moduan**

Arrasateko Gazte Bulegoak bere eguazteneroko irratiko tartean bulegoko berritasun guztien berri ekarriko du. Dorleta Kortazar teknikaria etorriko da nobedade guztiekin. Lan eskaintzak, aisialdia, gazteentzako proposamenak... Orientaziorako gomendio eta proposamen guztiak jasotzeko aukera da gazteentzat.

## TELE-ALBISTEAK

# Natura, tabakoa eta tertuliak oraingo asteko 'Magazinea'-n

Eguazteneko saioan, osasun tartean, tabakoa uzteko gomendioak ezagutu ahalko ditugu



Txomin Madina, *Magazinea* saioko aurkezlea. | J.B.

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Goiena telebistako iluntzeetako *Magazinea* saioak, gaurtik eguenera arte, astero moduan, jarraipena egingo die asteko Debagoieneko aktualitateari elkarrizketa eta tertulien bitartez.

Astelehenean, Arizmendi Ikastolak urtero antolatzen duen eraikuntza eta naturari buruzko jardunaldien berri emango dute arduradunek. Natura kontuekin jarraituta, martitzenean, ibarrean plaga bihur daitekeen asiar erlabioaren mehatxuari buruz hitz egingo dute *Magazinea*-n. Eguaztena, osasun kontuei dagokie eta tabakoa izango da ardatza. Kontsumoa uzteko gomendioak emango dituzte saioan.

**Gazteak, eguenean**

Tertulia da magazineko tarte gogokoenetako bat. Astelehenean aktualitateko azken gaiak izango dituzte hizpide eta eguenean, berriz, ibarreko gazteek hartuko dute platoa gazteen tertulian. Txomin Madina eta Amaia Txintxurreta oñatiarrek gidatzen dute telebista saioa.

# Mendateetan gora eta behera jarraituko dugu, 'Pedalka' saioan

Ganadu artean ibiliko da, besteak beste, Julen Iriondo, eta bide zoragarriak ezagutuko ditu

**J.B.** | ARRASATE

*Pedalka* saioaren hirugarren atala ikusteko aukera izango da eguen honetan –gaueko 21:50ean– Goiena telebistan. Frantziako Alpeak alderik alde eta bizikletaz zeharkatzeko abenturan hirugarren eguna izango du hau Julen Iriondok, ibilbidean bete-betean sartuta egingo duen bigarrena.

**Petanka ere bai**

Aravis eta Sasies mendateak igotzea tokatuko zaio. Araviseko tontorrean bertako larru saltzailearekin egingo du berba, eta antzerako ibilbidea baina kontrako noranzkoan egiten ari zen talde batekin ere egingo du topo.

Sasies mendatean gora, berriz, petankan jokatzen ari zen koadrila batengana arrimatuko da, Frantzian hain maitea duten jardun horren gainean bi hitz egiteko.

Hasierako asmoetan eguna kilometro gehiago eginda amaitzea egon arren, azkenean Sasiesko tontorrean hartuko du ostatu Julenek, hori bai, bertara iristeko ere aldapa gehigarri eder bat igota. Eskerrak, bertara iristeak merezi izan zuen, horixe baietz.

## ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
**Irati Gorosarri Zuazubiskar**
Maiatzaren 12an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo-potolo bat etxeko danon partetik!



BERGARA
**Ion Agiriano Larrión**
Maiatzaren 11n, 9 urte. Zorionak, Ion! Bihotz-bihotzez, ondo pasatu zure eguna, familiaren aldetik eta bereziki Maitanek.



ARRASATE
**Raul Garcia Aguado**
Maiatzaren 11n, 4 urte. Zorionak eta patxo handia etxeko guztien eta, batez ere, arreba Lauraren partetik.



ARETXABALETA
**Aitzol Lagunilla Agirre**
Maiatzaren 10ean, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Den-denok joango dara merixendara. Muxu handia etxeko guztien partetik, eta bereziki Oskitxek.



ARETXABALETA
**Ange Lagunilla**
Maiatzaren 10ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi-handia etxeko guztien partetik eta txokolatezko patxoak zure lehengusu guztien partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze egunien.



BERGARA
**Haizea Olabarria**
Maiatzaren 9an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Beti bezain bihurri eta maitagarri jarraitu, Jone eta Gorkaren partetik.



ARRASATE
**Ivan Gomez Martins**
Maiatzaren 8an, 13 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure amama eta osaba-izeben partetik.



BERGARA
**Erik Gartzia Perez**
Maiatzaren 8an, 2 urte. Zorionak urte askotarako, mutikote! Belarritik bi tirakada eta patxo handi bat familia guztiaren eta bereziki Ander, Ane, Jurgi, Elene eta Noraren partetik.



OÑATI
**Mara Mugarza Urizar**
Maiatzaren 7an, 4 urte. Zorionak, politt hori! Azkenian ailau da zure urtebetetze eguna! Edarto ospatuko dogu lau kandeladun tarta eta guzti. Putz!



OÑATI
**Peru Guenetxea Irizar**
Maiatzaren 8an, 3 urte. Zorionak, txikito! Honezkero hiru urte pasatu dia! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat danon partetik.



OÑATI
**Ekain Guridi Carrascal**
Maiatzaren 7an, 7 urte. Zorionak, Ekain! Oso ondo ospatu zure eguna eta muxu handi bat Asier, Beñat, Jone, Gorka eta Noraren partetik.



ARRASATE
**Eider Amurrio Saez**
Maiatzaren 7an, 8 urte. Zorionak eta patxo asko etxeko denon partetik.



ARETXABALETA
**Oxel Aldalur Zuazua**
Maiatzaren 6an, urtebete. Zorionak, tximista! Etxeko guztion partetik muxu handi-handi bat!



BERGARA
**Gorka Ibarra Guridi**
Maiatzaren 6an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunian eta marrubixko patxo handixak aitatxo, amatxo eta Jonen partetik. Aupa Real!



OÑATI
**Malen Agirrebalzategi Lizarralde**
Maiatzaren 6an, urtebete. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu potolo-potoluak etxeko danan partetik, bereziki Elenek.




BERGARA
**Iker Ibarra Eguren**
Maiatzaren 5ean, 5 urte. Zorionak, begi urdin! Bost patxo goxo Leire, Jone, Mikel, Gorka eta Aneren partetik.



OÑATI
**Aner Urrutia Garcia de Albeniz**
Maiatzaren 5ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi-handi bat etxeko danan partetik.



ARETXABALETA
**Gartxot Elizegi**
Maiatzaren 5ean, 6 urte. Zorionak, artista! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo bat etxeko guztien partetik! Ederra zeok!



ARRASATE
**Iker Zubia**
Maiatzaren 4an, 36 urte. Zorionak etxekoen partetik. Jon, Danel eta Susana.



BERGARA
**Miren Etxeberria Perez**
Maiatzaren 4an, 5 urte. Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik! *Muaks*!



ESKORIATZA
**Ilargi Legorburu Ezeiza**
Maiatzaren 3an, 8 urte. Zorionak, *guapisima*. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo asko eta besarkada handia etxeko danan partetik.



ARRASATE
**Haizea Zabala Muruamendiaraz**
Maiatzaren 3an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Zazpi patxo potolo-potolo zuretzat Danel, amatxo eta aitatxoren partetik!



ANTZUOLA
**Ibone Urzelai Otaegi**
Maiatzaren 3an, 4 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo handi bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Danel Gonzalez Rodriguez**
Maiatzaren 2an, 6 urte. Zorionak, Zekrom! Primeran pasatu zure egunean. Muxu handi bat etxeko danon eta bereziki Lucia, Hugo eta Jonen partetik!



ANTZUOLA
**Enaitz Irizar Iztueta**
Maiatzaren 2an, 2 urte. Urte askotarako etxeko guztien partetik. Muxu potolo bat Aiantze, aita eta amaren partetik.



OÑATI
**Uxue Lopez Lasa**
Maiatzaren 1ean, 6 urte. Zorionak eta oso ondo pasatu zure egunean!



BERGARAI
**Patxi eta Alazne Urkiola**
Maiatzaren 1ean, Alaznek 10 urte eta Patxik 40 eta piko. Zorionak, bikote, eta patxo handi bana, etxeko danen partetik eta ondo-ondo pasatu zuen eguna!

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK



### Ane Ibarzabal Vz. de Mendizabal

Bergara. 3,660 Kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Amaia eta Iñigo. Argazkian, Ane, ahizpa Norarekin.



### Jule Herrarte Arregi

Arrasate. 2,870 Kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Maider eta Igor. Argazkian, Jule jaioberria sehaskan.



### Erik Callejo Diez

Bergara. 3,300 Kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Sonia eta Jose Ignacio. Argazkian, Erik amarekin.



### Arianne Apraiz Lopez

Arrasate. 2,800 Kilo. Maiatzaren 2a. Gurasoak: Marianella eta Iñigo. Argazkian, Arianne gurasoekin.



### Maddi Ajuriaguerra Garcia

Eibar. 2,800 Kilo. Maiatzaren 2a. Gurasoak: Monica eta Ander. Argazkian, Maddi gurasoekin.


## Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




## DENBORA-PASA

### HITZ GEZIDUNAK



Bustitasun · * Kirol olinpiarra · Gurasoen aitak · Naroate · Soldata · Hondo handikoak · Trapu · Aurrizkia · Bizkaieraz, birrindu · Puritanismoaren jarraitzailea · Neguko jantzi · Saturnoren satelitea · Eramaten ari zen · Gipuzkoako udalerria · Zer lekutan? · Ibar · Dauka · Tona · Auzoa · Daukat · Azkenekoa · Errep., fruitu mota · Bokala · Nitrogenoa

LUMA

### BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





### SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 5 | | | | | |
| 8 | | 5 | | | 4 | 2 | | |
| | | 4 | 6 | | 2 | | | 8 |
| 5 | | 3 | 8 | | | | 2 | 9 |
| | 8 | 2 | | | | | 6 | 4 |
| | 4 | | 2 | | 7 | 5 | | |
| 4 | | | | | | | | 7 |
| 3 | 5 | | | | | 8 | | |
| 7 | | 6 | | 8 | | 3 | | |

### HIZKI SALDA

Topa itzazu Hego Amerikako bost ibai

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| P | A | R | O | A | S | D | T | I |
| A | M | A | Z | O | N | A | S | N |
| R | O | A | Y | K | U | A | S | E |
| A | P | J | I | S | O | T | A | G |
| N | B | A | T | J | R | D | P | R |
| A | A | O | R | I | N | O | K | O |
| G | A | U | X | D | A | Y | H | A |
| M | A | G | D | A | L | E | N | A |
| A | R | L | U | V | K | R | O | P |

### EZETZ IGARRI!

Boteila bat, ardoz beteta
dago erdiraino,
eta kortxoarekin itxita.

Zer egin dezakegu
boteila apurtu
edo kortxoa atera barik,
ardoa edateko?

### SOLUZIOAK



Kortxoa botilan sartu.
Ezetz igarri!

## AI, ENE!

### Itsusia, baina erabilgarria



Ez dakigu argazkiko komunaren egileak zein brikolaje saio ikusi duen, baina seguru diseinuari buruzko atalean lo hartu zuela.
**www.sarda.es**

## AHOBERO

### "Infanta bat ezin da epaitegira joan, Edurnezuri joatea bezala litzateke".

ARCADI ESPADA | IDAZLEA

Ez da arraroa Bartzelonako kazetariak adierazpen polemikoak egitea. Esaldi hau, beste adierazpen batzuen jarraipena da: "Infanta bat ezin da inputatu, baina bai gillotinatik pasa". Asko igartzen al da bere azken liburua promozionatzen dabilela?
**www.publico.es**

## EGURALDIA

| | |
|---|---|
| Max. | 23º |
| Min. | 9º |

Zeruan urdina nagusituko da, nahiz eta egun amaierarako erdi mailako hodeiak sartu.
**euskalmet.net**


ASTELEHENEKOA
goiena"
2013-05-06


## HAMARREKOA

**Mikel Gorosabel 'Norton'** Ia mende laurdena bete du EH Sukarrak eta bertako gitarra-jotzaile eta abeslaria da hasieratik dagoen kide bakarra. Kalean da 'Uhinak', taldearen zazpigarren lana. | TXOMIN MADINA

# "Institutuan piper egiten nuenean ikasi nuen gitarra jotzen"

**1. Hamaika urte pasa dira aurreko diskotik. Gauzak lasai hartzearen aldekoak zareten seinale?**
Izan daiteke. Momentua iritsi denean atera dugu; bitartean beste kontu batzuetan-eta ibili gara. Naturala izan da agertze hau.

**2. Zazpigarrenari, *Uhinak*. Zergatik?**
Diskoan bada *Uhin urdinak* izeneko kanta bat, eta hortik etorri zen ideia: uhinak urdinak izan daitezke; baina baita gitarraren uhinak, soinuenak edo malkoak uretara erortzean egindakoak ere. Generikoan utzi dugu, bakoitzak interpretatu ditzala uhin horiek.

**3. Izatekotan, zer dute komunean diskoko hamar abestiek?**
Letrak egin dituen Asier Serranoren esanetan, paisaia dekadentea irudikatu gura izan du, baina beti positibismo edo argi izpi zuri batekin.

**4. Zuk musika, Asier Serranok letra. Funtzionatzen duen tandema?**
Urteetako errezeta dugu: hirugarren diskoan hasi zen, eta hau EH Sukarrarekin bosgarren diskoa da. Ohituta gaude elkarrekin lan egitera: nire melodiak edertu egin ditu.

**5. Diskoa erosi partez legez kanpo internetetik jaitsi duenari, zer?**
Musikariak ohitu gara. Baina uste dut gero eta gutxiago erabiltzen direla legez kanpoko bideak. Spotify modukoak egokiak dira: jaitsi gabe entzun dezakezu diskoa, eta gero erosi ala ez erabaki.



AGM

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

**"Osasuna ziurtatuko nuke"**

"Maite nautenei eta maite ditudanei urte askotarako osasuna emango nieke makilarekin; gero, alde batera utzi eta ez nuke makilaz ezer gehiago jakin gurako. Behin osasuna ziurtatuta, beste guztia etor dadila datorren moduan".

**6. Ia 25 urte talde bezala. Ez da ohikoa euskal musikan...**
Lehengusu batek esan zidan euskal Rolling Stones-ak izango garela. Zaharrak izan arren rock munduan jarraituko dugula esan nahi zuen. Hala bada, horretan Euskal Herriko lehen belaunaldia izango gara.

**7. Abenturak ere izan dituzu: Lorelei, Norton Klub... Arnasbideak?**
Baliteke. Lorelei oso esperientzia polita izan zen; Norton Klub Bartzelonan nengoela izandako burutapena. Ondo dago esperimentatzea. Norton Klubekin arrakasta ez zen oso handia izan, eta arrakastaren bi aldeak ezagutu ditut; hortik ere atera daitezke gauza positiboak.

**8. Zenbat urte gitarra berarekin?**
Oraingo Gibson maitearekin hamasei urte. Zuzenekoetan Arrasateko Soinua dendan erositako Fernandes gitarra erabiltzen dut berriz; horrekin hogeitaka izango dira urteak.

**9. Lau anai arreba, lauak musikarekin lotuta. Zer ematen zizueten gosaltzeko?**
Musika. Aitak apur bat denetarik entzuten zuen disko-jogailuan; pianoa ere bagenuen. Arrebari gitarra bat oparitu zioten eta hamalau urte nituela, institutuan piper egiten nuenean, etxera joan eta gitarra jotzen ikasi nuen.

**10. Nondik *Norton*?**
Ikastolan genbiltzala, 70eko hamarkadako telesail amerikarrak ikusi eta elkarri horietan entzundako abizenak jartzetik.

## BIHARAMUNA



MARKOS BALENTZIAGA

### Dutxa hotzarena

Krisiaren larriak ez du gozagarririk, lepotik harrapatuta gauzka eta ez daukaguna bera ere larrutik ordainarazten digu. Alferrik ikusi nahi dugu esperantza-izpi mehe bat leiho-zirrikituan, datorrela Europatik, Madriletik, datorrela datorrenetik; ez dator inondik, baina.

Madriletik idatzi dut? Begiraleek Madrileko agintariei egiten dieten kritika zerrendan erabaki ekonomiko eta sozial okerrak hartu izanaren, azalpenik ez ematearen, hitza jan eta gezurrak esatearen salaketa zorrotz-zorrotzak daude.

Eta egoera egunean baino egunean gaiztoagotzen trebeak dira Raxoi, Montoro, Mato, De Cospedal eta enparauak; baina horiei guztiei erantsi beharreko tesela da Arias Cañete urregorria ere.

Arias Cañete Nekazaritza, Ingurumen eta Elikadura ministroaren ekimenez, Espainiako itsasertzean, etxegintzaren debeku-eremua orain arteko 100 metrotik 20ra estutuko du Gobernuak. Krisiari tinko –hankak bero eta burua hotz- aurre egiteko, berriz, dutxa hotza hartzea gomendatzen du! "Har ezazu dutxa hotza astegoienean eta lana izango duzu astelehenean!" eranstea falta zaio.


